DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Plan de
Recuperación,
Transformación
y Resiliencia

Financiado por
la Unión Europea
NextGenerationEU

IRUZURRAREN AURKAKO PLANA EUROPAKO FUNTSAK KUDEATZEKO

DONOSTIAKO UDALA

AURKIBIDEA

Aurkibidea

LEHENENGO ATALA: MEMORIA....5

1.- SARRERA....5

2.- IRREGULARTASUN ADMINISTRATIBOA, IRUZURRA, USTELKERIA ETA INTERES GATAZKAK NOZIOEN GLOSARIOA....7

2.1.- IRREGULARTASUN ADMINISTRATIBOAK....7

2.2.- IRUZURRA....7

2.3.- USTELKERIA....8

2.4.- INTERES GATAZKAK....8

2.5.- IZENDAPENAK DOKUMENTU HONEN ONDORIOETARAKO....9

3.- ARAUDI APLIKAGARRIA....10

3.1.- Europar Batasuneko araudia....10

3.2.- Estatuko araudia....10

3.3.- Euskal Autonomia Erkidegoko araudia....11

BIGARREN ATALA: DONOSTIAKO UDALAREN ZUZENTASUN ETA IRUZURRAREN AURKAKO NEURRIEN PLANA....12

1.- ZUZENTASUN ETA IRUZURRAREN AURKAKO NEURRIEN PLANAREN ELEMENTU OROKORRAK....12

1.1.- Planaren xedea....12

1.2.- Planaren izaera eta helburua....12

1.3.- Zuzentasun eta Iruzurraren aurkako Neurrien Planaren printzipioak 12

1.4.- Aplikazio esparru objektiboa....13

1.5.- Aplikazio esparru subjektiboa....13

1.6.- Plana kudeatzeko eta garatzeko antolamenduaren egitura....15

1.6.1.- Planaren Zuzendaritza Politikoa....15

1.6.2.- Zuzentasun eta Iruzurraren aurkako Neurrien Plana Kudeatzeko Arduradun Teknikoa....15

1.6.3.- Proiektuaren arduradunak....15

2.- IRREGULARTASUN ADMINISTRATIBOAK, IRUZURRA, USTELKERIA ETA INTERES GATAZKAK PREBENITZEKO, HAUTEMATEKO, ZUZENTZEKO ETA JAZARTZEKO NEURRIAK....16

2.1.- PREBENTZIOZKO NEURRIAK....16

2.2.1.- Erakundearen Zuzentasunaren aldeko eta ustelkeriaren aurkako zero tolerantziaren aldeko konpromiso eraginkorrari buruzko Adierazpen politiko bat maila gorenean onartzea....16

2.2.2.- Jokabide kodeak eta kudeaketa onaren kodea onartzeko edo indartzeko estrategia bat diseinatzea....16

2.2.3.- Plan honekin batera, berehala onartzea Europako funtsak kudeatzeko Zuzentasun Protokolo bat....18

2.2.4.- Erakundeak onartutako Zuzentasun Protokoloa eta, Zuzentasun Batzrodea izeneko jokabide Kodeak kudeatzeko, aplikatzeko eta interpretatzeko berme organo komun bat sortzea....18

2.2.5.- Zuzentasun eta etika publikoaren arloan estrategia eta formakuntza ekintza sorta bat diseinatzea....19

2.2.6.- Arriskuen ebaluazioa kudeatzeko eredu baten definizioa irregulartasunak, iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak prebenitzeko esparruan....20

2.2.7.- Antolamendu Neurriak ezartzea funtsen kudeaketan....24

2.3.- HAUTEMATEKO NEURRIAK....24

2.3.1.- Dilema etikoak edo salaketak edo alerta planteatzeko barne kanalak antolatzea....24

2.3.1.1.- Artikulazio printzipioak....25

2.3.1.2.- Salaketaren edukia....25

2.3.1.3.- Funtzionamendua....26

2.3.1.4.- Salaketak egiteko Udaleko barne kanala....27

2.3.1.5.- Salaketak aurkezteko kanpo kanalak....27

2.3.2.- Bandera gorrien zerrenda bat aurreikustea....28

2.3.3.- Jarduerei eta, hala badagokio, interesei, ondasunei edo ondareei buruzko adierazpenak....28

2.3.4.- Datuak eta trazabilitatea kudeatzeko tresnak sartzea.....29

2.4.- ZUZENTZEKO NEURRIAK.....29

2.4.1.- Sarrera.....29

2.4.2.- Jarduerak ustezko iruzur bat hautematen denean.....30

2.4.3.- Iruzur, ustelkeria eta interes gatazkak sistemikoak ala puntualak diren jakiteko ebaluazioa.....30

2.4.4.- Proiektuak osorik edo zati batean baztertzea.....31

2.4.6.- Beste zuzenketa neurri osagarriak hartzea:.....31

2.5.- JAZARPEN NEURRIAK.....32

2.5.1.- Sarrera.....32

2.5.2.- Informazio erreserbatua eta diziplina edo zehapen prozedurak abiaraztea.....32

2.5.3.- Gertatutakoak eta hartutako neurriak agintari eskudunei jakinaraztea.....33

2.5.4.- Ustezko iruzur kasuak nazioko edo Europar Batasuneko agintaritza publikoen eta fiskaltzaren edo auzitegien aurrean salatzea.....33

2.5.5.- Kasuaren gaineko jarraipena eta funtsak berreskuratzea.....34

3. PUBLIZITATEA ETA ONDORIOAK ETA JARRAIPENA.....34

3.1. Publizitatea.....34

3.2. Ondorioak.....35

3.3. Jarraipena.....35

LEHENENGO ATALA: MEMORIA

1.- SARRERA

I.-

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak (EBFT), bere 310. eta 317. artikuluetan aitortzen du finantza kudeaketa onaren printzipioa Batasunaren Aurrekontuaren erabileran. Estatu kideek, EBFTren 325. artikuluak finkatzen duenez, Batasunaren aurrekontu horietatik etorritako baliabideak kudeatzen dituztenean, elkarlanean jardun eta iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak prebenitzeko, hautemateko eta zuzentzeko beharrezkoak diren neurriak aplikatu behar dituzte, nahitaez.

EBFTan jasotako aurreikuspen horiek unean-uneko oihartzuna izan dute, eta Iruzurraren aurkako Neurrien Plan honetan ohartaraziko denez, EBren "Zuzenbide eratorria" deitutako kategorian biltzen diren arau tresnek (Zuzentarauak, Erregelamenduak, Erabakiak) eta *soft law* deituriko tresnek (Komunikazioak, Gomendioak, etab.) garatu dituzte.

Europar Batasunak arian-arian emendatu egin ditu erakundeetako eragileek, Batasunetik etorritako aurrekontu sailen zuzeneko edo zeharkako kudeaketan edo kudeaketa partekatuan, zuzentasunaren arloan egiaztatu behar zituzten eskakizun estandarrak, lehenik Europako funtsen arloko xedapen partekatuei buruzko 1303/2013 Erregelamenduaren bidez, eta azkenik, 2018ko Finantza Erregelamenduaren bidez, iruzurraren aurkako borrokari buruzko 2017ko Zuzentarautik igaro ondoren.

Europako Kontseiluak onartutako Next Generation UE programa jarri zen abian 2020ko uztailean, eta ondorioz, Covid-19ak eragindako krisi sanitario/humanitario, ekonomiko eta sozial hirukoitzaren ondorioak arintzeko neurri antizikliko batzuk aplikatuko ziren.

Programa horren garapenak garrantzi bereziko tresna juridiko europar batzuk onartzea ekarri zuen berekin batean, horien artean aipagarri Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa (SEM-MRR) ezartzen duen Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamendua, otsailaren 12koa. Horren arabera, finantza sustapeneko neurri horiek (finantza ekarpenak eta maileguak) baliatu nahi zituzten estatu kideek Suspertze eta Erresilientzia plan bat bete behar zuten, eta plan horretan dena delako herrialdeak suspertzeko, indartzeko eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko egin beharreko erreformak eta inbertsio proiektuak jasoko ziren.

Europako Kontuen Auzitegiak bere garaian 6/2020 Irizpenean egindako iruzkinen ondorioz, SEM-MRR Erregelamenduak era berean aipamen ugari egin zituen Europako funts berezi horiek kudeatuko dituzten estatu kideek iruzurrari, ustelkeriari eta interes gatazkei aurre egiteko beharrezko neurriak hartu behar zituztela adierazteko. Asmoa da finantza baliabide horien erabileran halako gertaera patologikoak saihestuko edo arinduko dituen prebentzio, hautemate eta zuzenketa politika egitea. EBko Kontuen Auzitegiak ohartarazi zuenez, kontuan izanik oso epe laburrean erabili beharreko finantza baliabideen bolumena, kasu honetan oso handia zen irregulartasun administratiboak, iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak gertatzeko aukera, eta beraz, funts berezi horiek aldez aurretik diseinatutako norakoa eta ondorio

ekonomikoak eta sozialak izateko beharrezkoak diren kudeaketa neurriak aplikatzeaz gain, alderdi horretan funtsezkoa zen Suspertze eta Erresilientzia Plan horiei lotutako programak egikarituko zituzten erakunde publiko eskudunetan zuzentasun mekanismoak finkatzea edo indartzea.

II.-

Espainiak 2021eko apirilaren 30ean aurkeztu zuen bere Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana (PRTR). Hartan aletzen ziren erreformak eta inbertsio proiektuak, eta SEM-MRRren Erregelamenduan finkatutako estandarren arabera, lau ardatzetan (SEM-MRRren sei zutabeekin zuzenean edo zeharka lotuta), 10 palanka politiketan eta erreforma eta finantza proiektu horiek biltzen zituzten 30 Osagai edo ekintza lerrotan egituratzen ziren. Plan horrek Europako Batzordearen oniritzia jaso zuen, eta bere garaian finantza ekarpenei lotutako aurreneko funtsak (guztizkoaren % 13) iristen hasi ziren. Geroago iritsiko ziren gainerako funtsak, PRTR planean jasotako erreformetan eta inbertsio proiektuetan finkatutako mugarriak eta helburuak bete ahala.

SEM-MRRren Erregelamenduan jasotako eskakizunaren zuzeneko emaitza zen Plan hori. Era berean, abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretua onartu zen barne Zuzenbidean; horren bidez onartu ziren Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko premiazko neurriak. Plan horren edukiaren zati batek oinarrizko izaera du, eta 3. artikuluak Plan hori egikaritzeko kudeaketa printzipio batzuk aipatzen ditu, horien artean –Europar Batasuneko Zuzenbideak hala eskatzen duelako– interes gatazkak, iruzurra eta irregulartasunak behar bezala prebenitzeko mekanismoak indartzekoak.

Betebehar orokor hori Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema konfiguratzen duen irailaren 29ko HFP 1030/2021 Aginduan zehazten da. Agindu horren arabera, irregulartasunak, iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak prebenitzeko, hautemateko eta zuzentzeko mekanismo horiek, beste askorekin batera, PRTR planetik etorritako Europako funtsak kudeatzeko sistemaren zati dira, sistemaren zeharkako irizpide edo printzipio. 6. artikuluaren arabera, SEM-MRRtik etorritako Europako funts bereziak erabakitzen edo erabiltzen dituzten erakunde guztiek nahitaez onartu beharko dute Zuzentasun eta Iruzurraren aurkako Neurrien Plan bat.

Zuzentasun eta Iruzurraren aurkako Neurrien Plan batek jaso beharreko betebehar edo eskakizun batzuk finkatzen ditu Agindu horrek. Era berean, Plan hori erakunde bakoitzaren ezaugarri espezifikoetara moldatu behar dela adierazten du, eta beraz, dagokion eskumen eta jarduera esparru propiora, eta hain zuzen ere horixe bera da Plan honetan egin dena.

Neurri horiek iruzurraren aurkako zikloaren inguruan aplikatu behar diren arren, Zuzentasun eta Iruzurraren aurkako Neurrien Plana onartu behar duen erakundeak neurri batzuk edo beste batzuk sustatzeko konfigurazio tarte zabala du egoeraren edo, zuzentasun mekanismoei dagokienez, burura eramandako diagnostikoaren arabera.

2.- IRREGULARTASUN ADMINISTRATIBOA, IRUZURRA, USTELKERIA ETA INTERES GATAZKAK NOZIOEN GLOSARIOA

2.1.- IRREGULARTASUN ADMINISTRATIBOAK

Europar Erkideetako interesak babesteari buruzko 1995eko abenduaren 18ko 2988/95 zenbakiko (EB, EURATOM) Erregelamenduaren 1.2 artikuluak ematen du irregulartasun administratiboaren definizioa: "*Irregulartasuna izango da eragile ekonomiko baten ekintza edo ez egite bati dagokion Erkidegoko Zuzenbidearen xedapen baten arau hauste oro, baldin eta arau hauste horrek Erkidegoen (Europar Batasuna) aurrekontu orokorrari edo erkidegoek administratutako aurrekontuei (edo nazioko agintaritzek edo tokiko agintaritzek modu partekatuan kudeatutako aurrekontuei) kalte egiten badie, dela Erkidegoen kontura zuzenean jasotako baliabide propioetatik datozen diru sarrerak murriztuz edo ezabatuz, dela bidegabeko gastu baten bidez*".

2.2.- IRUZURRA

Iruzurraren definizioa Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren 2017ko uztailaren 5eko 2017/1371 (EB) Zuzentarauan, Batasunaren finantza interesei eragiten dien iruzurraren aurkako borrokari buruzkoan, dago jasota: "*1. Estatu kideek beharrezko neurriak hartuko dituzte Batasunaren finantza interesei eragiten dien iruzurra arau hauste penala izan dadin bermatzeko, iruzur hori nahita egin bada.*

2. Zuzentarau honen ondorioei begira, Batasunaren finantza interesei eragiten dien iruzurtzat joko da ondorengoa:

a) Kontratu publikoekin zerikusirik ez duten gastuen arloan, honako hauei buruzko egite edo ez egite:

i) adierazpen edo agiri faltsu, zehaztugabe edo osatugabeak erabiltzea edo aurkeztea, baldin eta horien ondorioa Batasunaren aurrekontuko edo Batasunak administratutako aurrekontuetako edo haren izenean administratutako funtsak edo aktiboak bidegabe erabiltzea bada,

ii) informazio jakin bat jakinarazteko berariazko obligazioa ez betetzea, baldin eta ondorio berbera badu, edo

iii) funts edo aktibo horiek hasieran ematea eragin zuten helburuez bestelako helburuetarako bidegabe erabiltzea;

b) Kontratu publikoekin zerikusia duten gastuen arloan, egilearentzat edo beste pertsona batentzat legez kontrako irabazi asmoz egiten direnean bederen, eta Batasunaren finantza interesei galera eragiten dienean, honako hauei buruzko edozein egite edo ez egite:

i) adierazpen edo agiri faltsu, zehaztugabe edo osatugabeak erabiltzea edo aurkeztea, baldin eta horien ondorioa Batasunaren aurrekontuko edo Batasunak administratutako aurrekontuetako edo haren izenean administratutako funtsak edo aktiboak bidegabe erabiltzea bada,

ii) informazio jakin bat jakinarazteko berariazko obligazioa ez betetzea, baldin eta ondorio berbera badu, edo

iii) funts edo aktibo horiek hasieran ematea eragin zuten helburuez bestelako helburuetarako bidegabe erabiltzea eta Batasunaren finantza interesei kaltetzea;

(Nolanahi ere, iruzurraren nozioaren irismen zehatza finkatzeko, kontuan hartu behar da 2017/1371 (EB) Zuzentarauaren 3. artikuluaren eduki osoa, hona zati bat baizik ez baita ekarri)".

2.3.- USTELKERIA

Ustelkeriaren kontzeptu hau aplikatzen du Europako Batzordeak: *"Ustelkeria da postu publiko baten botere gehiegikeria onura pribatuak lortzeko. Ordainketa ustelek beste iruzur mota asko ahalbidetzen dituzte, hala nola fakturazio faltsuak, izan ez diren gastuak eta kontratuaren araberako betebeharrak ez betetzeak. Ohikoenak ordainketa ustelak edo antzeko onurak dira: hartzaile batek (ustelkeria pasiboa) emaile baten (ustelkeria aktiboa) eroskeria onartzen du mesede baten truke"* (Iturria: Europako Egiturazko Funtsetarako eta Inbertsioetarako Europako Batzordea. Jarraibideak Estatu kideentzat eta programen agintaritza arduradunentzat. Iruzur arriskuaren ebaluazioa eta iruzurraren aurkako neurri eraginkorrak eta proportzionalak, 2014).

2017/1371 (EB) Zuzentarauaren 4.2 artikuluak ematen du **Ustelkeria aktiboa eta ustelkeria pasiboa** kontzeptuen definizioa:

"2. Estatu kideek beharrezko neurriak hartuko dituzte ustelkeria pasiboa eta aktiboa, nahita egiten direnean, arau hauste penalak izan daitezen bermatzeko.

a) Zuzentarau honen ondorioei begira, ustelkeria pasiboa da, zuzenean edo bitartekari baten bidez, beretzat edo hirugarrenentzat, edozein motatako abantailak eskatzen edo jasotzen dituen edo abantaila baten promesa onartzen duen, edo bere betebeharrak edo bere eginkizunak betetzen ez dituen eta Batasunaren finantza interesak kaltetzen dituen edo kaltetu ditzakeen funtzionarioaren ekintza.

b) Zuzentarau honen ondorioei begira, ustelkeria aktiboa da, zuzenean edo bitartekari baten bidez, funtzionario bati edo hirugarren bati, edozein motatako abantailak agintzen, eskaintzen edo ematen duen pertsona ororen ekintza, funtzionario horrek edo hirugarren pertsona batek jardun dezan edo bere betebeharren edo bere eginkizunen arabera jardun ez dezan Batasunaren finantza interesei kalte egiteko moduan".

2.4.- INTERES GATAZKAK

2018ko Finantza Erregelamenduaren 61.3 artikuluak gisa honetan zehazten du zein kasutan gertatuko diren interes gatazkak: *"1. atalaren ondorioei begira, interes gatazka gertatuko da 1. atalean adierazitako finantza eragileen eta gainerako pertsonen* (arduradun politikoak eta Europako funtsak kudeatuko dituzten enplegatu publikoak) *eginkizunen lan inpartziala eta objektiboa arriskuan jartzen denean familia arrazoiengatik, arrazoi afektiboengatik, kidetasun politiko eta nazionalengatik, interes*

ekonomikoagatik edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako beste edozein arrazoirengatik".

Nolanahi ere, interes gatazken nozioaren irismena zehazteko, Europar Batasuneko Zuzenbidearen arabera kontuan hartu behar dira Finantza Erregelamenduaren 61. artikulu osoa eta *Interes gatazka egoerak Finantza Erregelamenduaren arabera saihesteko eta kudeatzeko jarraibideei* buruzko apirilaren 4ko 2021/C 121/01 Komunikazioa.

Era berean, HFP 1030/2021 Aginduaren III C Eranskinean daude jasota benetako, balizko edo itxurazko interes gatazken definizioak.

2.5.- IZENDAPENAK DOKUMENTU HONEN ONDORIOETARAKO

Dokumentu honen ondorioetarako, iruzurra aipatzen denean, 2.2 puntuan definitzen den moduan ulertu beharko da, baina baita 2.1 puntuan aipatzen diren irregularitate modura, 2.4 puntuan aipatzen den ustelkeria modura eta puntu bereko interes gatazka modura. Iruzur hutsa soilik aipatu denean, hau da, 2.4 puntuan jasotzen den moduan ulertzea nahi bada soilik, "berezko iruzurra" modura izendatuko da.

3.- ARAUDI APLIKAGARRIA

3.1.- Europar Batasuneko araudia

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatua.

Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren uztailaren 5eko 2017/1371 (EB) Zuzentaraua, Batasunaren finantza interesei kaltetzen dien iruzurraren aurka zuzenbide penalaren bidez borrokatzeari buruzkoa.

Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamendua, Batasunaren aurrekontu orokorrari aplikatu beharreko arauei buruzkoa.

Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren 2019ko urriaren 23ok 2019/1937 (EB) Zuzentaraua, Batasunaren Zuzenbidearen arau hausteen berri ematen duten pertsonak babesteari buruzkoa.

Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren otsailaren 12ko 2021/241 Erregelamendua, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena.

3.2.- Estatuko araudia

Abenduaren 26ko 53/1984 Legea, Administrazio Publikoen Zerbitzura ari diren Langileen bateraezintasunei buruzkoa.

Apirilaren 2ko 7/185 Legea, toki araubidearen oinarriak arautzen dituena.

Azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorra, dirulaguntzei buruzkoa.

Abenduaren 9ko 19/2013 Legea, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari eta gobernu onari buruzkoa.

Martxoaren 30eko 3/2015 Legea, Estatuko Administrazio Orokorreko goi kargudunen eginkizunak arautzen dituena.

Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Dekretua, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina onartzen duena.

Apirilaren 28ko 424/2017 Errege Dekretua, Tokiko Sektore Publikoko erakundeetan barne kontrolaren araubide juridikoa arautzen duena.

Azaroaren 8ko 9/2017 Legea, Sektore Publikoko kontratuei buruzkoa.

Martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretua, gaikuntza nazionala duten Tokiko Administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duena.

Abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretua, Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko premiazko neurriak onartzen dituena.

Irailaren 29ko HFP 1030/2021 Agindua, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema konfiguratzen duena.

3.3.- Euskal Autonomia Erkidegoko araudia

Ekainaren 26ko 1/2014 Legea, kargu publikodunen jokabide kodea eta haien interes gatazkak arautzen dituena.

Apirilaren 7ko 2/2016 Legea, Euskadiko toki erakundeei buruzkoa.

BIGARREN ATALA: DONOSTIAKO UDALAREN ZUZENTASUN ETA IRUZURRAREN AURKAKO NEURRIEN PLANA

1.- ZUZENTASUN ETA IRUZURRAREN AURKAKO NEURRIEN PLANAREN ELEMENTU OROKORRAK

1.1.- Planaren xedea

1.- Donostiako Udalaren Europako funtsak kudeatzeko Zuzentasun eta Iruzurraren aurkako Neurrien Plana Europar Batasunaren Zuzenbidean, 36/2020 Errege Lege Dekretuan, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean eta irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduan xedatutakoaren arabera onartu da.

2.- Iruzurraren aurkako zikloaren lau faseen inguruan egituratzen da Plan hau Europako funtsak kudeatzean eta erabiltzean irregulartasunak, iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak prebenitzeko, hautemateko, zuzentzeko eta jazartzeko xedearekin eta finantza kudeaketa onaren printzipioa, Europar Batasunaren finantza interesak babesteko printzipioa eta kudeaketarekiko emaitzen konpromisoaren printzipioa zaintzeko helburu nagusiarekin.

3.- Halaber, sei Eranskinekin osatzen da Plana

1.2.- Planaren izaera eta helburua

1.- Erakundearen zuzentasuna indartzeko eta iruzurraren eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko estrategiaren elementu nagusi gisa dago konfiguratuta Plana, zuzentasunaren arloko plangintza estrategikoa itxuratzeko tresna da, dokumentu bizia eta irekia; izan ere, berehalako helburu batzuk markatzen ditu eta aldizka berrikusteko deia egiten du erakundearen estandar etikoak etengabe hobetzeko, batez ere Europako funtsen kudeaketari eta erabilerari dagokienez, finantza baliabide horien erabiltzailea edo onuraduna Udal hau baldin bada.

1.3.- Zuzentasun eta Iruzurraren aurkako Neurrien Planaren printzipioak

Europako funtsen kudeaketari dagokionez, honako printzipio hauetan oinarritzen da Zuzentasun eta Iruzurraren aurkako Neurrien Plan hau:

a) Zuzentasuna

   Inpartzialtasuna eta objektibotasuna

   Gardentasuna

   Finantza kudeaketa ona

   Europar Batasunaren finantza interesen babesa

   Emaitzarekiko konpromisoa

Kontuak ematea

1.4.- Aplikazio esparru objektiboa

Udal honetan, Europako Batzordeak HFP/1030/2021 Aginduan ezarritako kudeaketa sistemaren esparruan 2021eko ekainean onartutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko Osagaietatik etorri eta Udal honek kudeatzen dituen edo onuradun den Europako funtsei eta kudeatzen dituen Europako gainerako funtsei aplikatuko zaie Zuzentasun eta Iruzurraren aurkako Neurrien Plan hau.

a) Gainera, betiere dagokion araudi espezifikoarekin bat etorrita, Udalak kudeatzen dituen edo onuraduna den finantza baliabideei, hala badagokio, baliabide horiek Europako funtsetatik eta 2021-2027 Urte Askotako Finantza Esparruko inbertsiotik etorriak badira.

a) Eta, hala badagokio, Udalak kudeatu ditzakeen edo onuradun izan daitekeen Europako funtsei, Suspertze eta Erresilientzia planetik edo planetatik etorriak badira eta, 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 13. artikuluan ezarritakoaren arabera, 2023ko abuztuak 31 baino lehen eskatzen badira.

1.5.- Aplikazio esparru subjektiboa

a) Plana aplikatzeko esparru organiko subjektiboa

Zuzentasun eta Iruzurraren aurkako Neurrien Plan hau Udal administrazioari eta atal honetan identifikatzen diren Udalaren sektore publikoko erakundeei aplikatuko zaie; bertan jasotako neurriak, hala badagokio, egokitu edo bereizi ahal izango ditu dagokion entitateak edo funtsak kudeatzeko jarduerek hala eskatzen dutenean. Udal entitateak plan honi lotuta geratuko dira plana bera Tokiko Gobernu Batzordean onartzen den unetik gutxienez honako puntu hauetan:

- Iruzurraren aurkako planaren elementu orokor eta printzipioak
- Europar funtsen gestioan zuzentasun protokoloaren edukia, eta behin onartuz gero, dagokien portaera kodeak
- Planaren antolaketa egitura
- Planaren trebakuntza ekintzak
- Arriskuen ebaluazio orokorraren, eta kontratazio zein diru-laguntzen arrisku ebaluazio espezifikoen metodologia
- Dilema etikoak, salaketak edo alertak aurkezteko barne kanalera atxikitzea, eta berau erabiltzea
- Zuzentze eta jazarpen neurriak

Bereziki, sektore publikoko zuzendaritzek, sailek edo erakundeek arriskuen ebaluazioa egokitu ahal izango dute euren esparruei eta egoerei dagokienez, kasu bakoitzean dagokien egikaritze materialaren eremuaren arabera.

Plan honen ondorioetarako, sektore publiko instituzionalak honako erakundeak biltzen ditu Donostiako Udalaz gain:

- DonostiaTik, erakunde autonomoa
- Musika eta Dantza Eskola, erakunde autonomoa
- Kiroletako Udal Patronatua, erakunde autonomoa
- Vivienda - Etxegintza, enpresa erakunde publikoa
- Donostia Kultura, enpresa erakunde publikoa, eta bere bi sozietate instrumentalak, San Telmo Museoa SA eta Victoria Eugenia Antzokia SA
- Donostiako Sustapena, sozietate publikoa
- San Sebastián Turismoa Donostia, sozietate publikoa
- CTSS, sozietate publikoa
- Donostia Hileta Zerbitzuak (Polloe), sozietate publikoa
- Bainuetxearen baltzua, sozietate publikoa
- Eguskiza, sozietate publikoa
- Anoeta Kiroldegia-Ciudad deportiva de Anoeta, sozietate publikoa
- Cristina Enea, fundazioa

b) Planaren aplikazioa zabaltzen zaien eragileen esparrua

Zuzentasuna indartzeko neurriak eta irregulartasunak, iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak prebenitzeko, hautemateko, zuzentzeko eta jazartzeko neurriak Europako funtsen kudeaketarekin, erabilerarekin edo norakoekin zerikusia duten udal esparruko eragile hauei aplikatuko zaizkie:

Udal arduradun publikoei, nola ordezkari politikoei hala kargu betearazleak dituztenei eta, hala badagokio, erabakietan edo jarduera publikoetan parte hartu edo eragin dezaketen behin-behineko langileei.

Kudeaketa, kontrol eta ordainketa lanak egiten dituzten udal enplegatu publikoei, baita kanpora atera eta eginkizun horietakoren bat edo batzuk eskuordetu edo agindu dioten beste edozein eragileri ere.

Funtsekin finantzatutako jardueren onuradun pribatuei, bazkideei, kontratistei eta azpikontratistei, beren interes alde baina Batasunaren finantza interesen aurka egin badezakete, interes gatazka baten testuinguruan.

Kontratazio publikoko prozesuetan edo dirulaguntza edo laguntza prozesuetan aurretiazko lanetan edo prestakuntzan, edo azterlanen eta irizpenen prestakuntzan parte hartzen duten kanpoko aholkulariei, profesionalei edo lan taldeei edo batzordeei, interes gatazkak gerta badaitezke.

1.6.- Plana kudeatzeko eta garatzeko antolamenduaren egitura

1.6.1.- Planaren Zuzendaritza Politikoa

Alkatetzak bideratuko du Planaren Zuzendaritza politikoa.

1.6.2.- Zuzentasun eta Iruzurraren aurkako Neurrien Plana Kudeatzeko Arduradun Teknikoa

Zuzentasun eta Iruzurraren aurkako Neurrien Plana Kudeatzeko Arduradun Tekniko batek (aurrerantzean Arduradun Tekniko deituko zaio dokumentu honetan) bideratuko ditu Iruzurraren aurkako neurrien Planaren kudeaketaren plangintza, zuzendaritza, koordinazioa, jarraipena eta ebaluazioa egiteko eginkizun teknikoak.

Arduradun teknikoak, gehiegi sakondu gabe, gutxienez honako eginkizun hauek beteko ditu:

- Planean jasotako zuzentasun neurriei dagokienez, egin beharreko egokitzapenak sustatuko ditu.
- Arriskuen eta dagozkien egokitzapenen aldizkako ebaluazioa egingo du.
- Planaren aplikazioari eta garapenari dagokienez, arloei, zuzendaritzei eta erakundearen sektore publikoari aholkatuko die.
- Jarraibideei buruzko eskuliburuak, lizitazio orrien ereduak, dirulaguntzen deialdietako oinarriak, hitzarmenak edo Europako funtsen kudeaketa hobetzeko beste edozein tresna landuko edo sustatuko ditu.
- Funtsen kudeaketaren arloan antolatzeko eta giza baliabideak erabiltzeko proposamenak egingo ditu.
- Oro har, plana kudeatuko eta dinamizatuko du.

Arduradun Teknikoaren eginkizunek ez dituzte oztopatuko Erakundearen Zuzentasun Batzordeari (aurrerantzean Zuzentasun Batzorde deituko zaio dokumentu honetan), hala badagokio, esleitutako eginkizunak.

1.6.3.- Proiektuaren arduradunak

Udalak edo beronen erakunde publikoek, Europako funtsen erabiltzaile edo onuradun diren aldetik, PRTR planaren Osagaien proiektuen, azpiproiektuen edo ekintza ildoen esparruan bideratzen dituzten jarduerak gaiaren arabera esleituko zaizkio arlo, zuzendaritza edo erakunde bakoitzari, eta zeharkako egiturak edo batzordeak eratu ahal izango dira ekintza jakin batzuk egikaritzeko.

Proiektuaren arduradun bat egongo da proiektu edo programa bakoitzaren buru, betiere Koordinazio Orokorraren ikuskaritzapean eta haren jarraibideei, edo, hala badagokio, dagokion organuak eta Arduradun Teknikoak hartutako erabakiei eta bideratutako ekimenei jarraiki.

Proiektuaren arduradunak, Arduradun Teknikoarekin koordinatuta, zuzentasun arduradun bat izendatu ahal izango du dagokion esparruaren kudeaketa arloan, Zuzendaritza Batzordearekin izango ditu harremanak, eta zuzentasun politika sustatzeko ekintzak bultzatuko ditu. Eginkizun horiekin arduratuko den pertsonarik ez bada, proiektuaren arduradunak bere gain hartuko ditu horiek.

2.- IRREGULARTASUN ADMINISTRATIBOAK, IRUZURRA, USTELKERIA ETA INTERES GATAZKAK PREBENITZEKO, HAUTEMATEKO, ZUZENTZEKO ETA JAZARTZEKO NEURRIAK

2.1.- PREBENTZIOZKO NEURRIAK

Xedea

Prebentziozko neurrien helburua da erakundearen azpiegitura etikoa eta Europako funtsak kudeatzeko sistema bera indartzeko ekintza, tresna eta bitarteko sorta bat zuzentasunaren ikuspegitik antolatzea. Horretarako, Europako funts horien kudeaketan irregulartasun, iruzur, ustelkeria eta interes gatazka arriskuak arintzeko edo, hala badagokio, saihesteko ikuspegi proaktiboa hartzen du.

Neurriak

Hauexek dira Plan honen bitartez hartu nahi diren eta ondoren erakundeak egikaritu eta garatuko dituen prebentziozko neurriak:

2.2.1.- Erakundearen Zuzentasunaren aldeko eta ustelkeriaren aurkako zero tolerantziaren aldeko konpromiso eraginkorrari buruzko Adierazpen politiko bat maila gorenean onartzea.

Donostiako Udaleko Gobernu Batzordeak Adierazpen politikoa onartu du Zuzentasun eta Iruzurraren aurkako Neurrien Plan honekin batera.

2.2.2.- Jokabide kodeak eta kudeaketa onaren kodea onartzeko edo indartzeko estrategia bat diseinatzea.

Donostiako Udalari etika eta jokabide printzipioen arloan aplikatu beharreko arau esparrua Plan honekin batera doa.

Udaleko eta bere sektore publiko instituzionaleko erakundeen azpiegitura etikoa indartzeko helburu bakarrarekin, Plan honek esparru kontzeptual bat eratzen du, tresna sorta bat eta denboran kokatutako plangintza bat, Europako funtsen kudeaketari dagokionez batez ere Batasunaren finantza interesak zaintzeko jokabide eta

kudeaketa onaren kodeak onartzeko estrategia finkatzeko. Azken alderdi hori, aurrerago azalduko den bezala, Europako funtsen kudeaketaren arloko Zuzentasun Protokolo espezifiko batean dago jasota, eta protokolo horren xedea da erakundeak jada onartu duen edo onartuko duen jokabide kodea edo kodeak osatzea edo ordezkatzea.

Helburu estrategikoa

Esparru edo zuzentasun sistema ahalik eta holistiko baten eraikuntzan inbertitzea eskatzen du erakundean irregulartasunak, iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak prebenitzeko mekanismoak oro har indartzea edo finkatzea dakarren zuzentasun sistema holistikoak. Horretarako, autoerregulaziorako tresna hauek lantzea edo egokitzea sustatuko du erakundeak:

- Zuzentasun kodearen modalitatea:
    - Etika eta jokabide kodea, kudeaketa onaren kodea eta erakundearen zuzentasunaren kodea (jarraian adierazten diren kodeak bilduko lituzke).
- Egitura segmentuen edo jarduera esparruen kodeen modalitatea:
    - Goi kargudunen, zuzendarien eta behin-behineko langileen etika eta jokabide kodea, eta kudeaketa onarena.
    - Enplegatu publikoen etika eta jokabide kodea, eta kudeaketa onarena.
    - Kontratazio publikoari aplikatu beharreko etika eta jokabide kodea (edo Zuzentasun Protokoloa).
    - Dirulaguntzei aplikatu beharreko etika eta jokabide kodea (edo Zuzentasun Protokoloa).

Helburu estrategikoak betetzeko kronograma

KODE MOTA	JARDUERA MOTA	ONARTZEKO EPEA
Erakundearen zuzentasun kodea	Onartzea	2022ko abendua
Kargu publikodunen kodea	Egungo kodea egokitzea	2022ko ekaina
Enplegatu publikoen kodea	Onartzea (EPOETBren osagarri)	2023ko martxoa
Kontratazio Publikoaren kodea edo Zuzentasun Protokoloa	Onartzea	2022ko abendua
Dirulaguntzen kodea edo Zuzentasun Protokoloa	Onartzea	2023ko ekaina

2.- Berehalako helburua:

Irregulartasunak, iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak prebenitzeko mekanismoak indartzeko berehalako helburu horren xede bakarra da erakundeak Europako funtsak behar bezala kudeatzea eta, beraz, balio eta printzipio sorta bat eta udal erakundean Europako funts horien kudeaketan zuzenean edo zeharka esku hartzen duten eragile guztiek Europar Batasunaren finantza interesak zaintzeko bete beharreko jokabide eta jarduera arau batzuk ezartzea.

Berehalako helburu hori Europako funtsen kudeaketarako Zuzentasun Protokolo batean zehazten da, II. Eranskinean dago jasota, eta plan honekin batera onartzen da. Hurrengo puntuan aztertzen da.

2.2.3.- Plan honekin batera, berehala onartzea Europako funtsak kudeatzeko Zuzentasun Protokolo bat.

Plan honen barruan Europako funtsak kudeatzeko Zuzentasun Protokolo bat onartzea aurreikusten da. Plan hori gaur egun Udalean aplikagarria den kode etikoari batuko zaio eranskin gisa, eta bertan ezarritako eragileei hedatuko die aplikazioa, horretarako berehala indartuko direla funts horien kudeaketari aplikatu beharreko zuzentasun mekanismoak; nolanahi ere, behin betiko kodea edo kodeak onartzen direnean, hala badagokio, eta ezartzen diren baldintzetan eranskin gisa jasotzen direnean, edukia berrikusi ahal izango da.

II. Eranskinak jasotzen du Zuzentasun Protokolo hori, hasiera batean Balioak eta Printzipioak biltzen dituena, eta irismenari dagokionez xehetasunez definitzen dituena. Era berean, Europako funtsen kudeaketari dagokionez, Protokoloa kudeatzeko berme organo bat aurreikusten du.

Zuzentasun eta Iruzurraren aurkako Neurrien Plan honen I. Eranskinean jasotako Europako Funtsak Kudeatzeko Zuzentasun Protokoloa berrikusi egingo da onartzen denetik sei hilabeteko epean, Europako funtsen kudeaketan egindako aurreneko urratsen ondorioz egin beharreko aldaketak jasotzeko eta autoerregulaziorako tresna horretan ezarritako balioei eta printzipioei lotutako jokabide eta jarduera arauak zehazteko.

2.2.4.- Erakundeak onartutako Zuzentasun Protokoloa eta, Zuzentasun Batzrodea izeneko jokabide Kodeak kudeatzeko, aplikatzeko eta interpretatzeko berme organo komun bat sortzea

Ezaugarri horien dituen organorik ez dagoenez, Plan honen bidez erabaki da Zuzentasun Batzordea izeneko berme organo komun bat sortzea, funtzionatzeko autonomiaz hornitua, inpartzialtasun eta objektibotasun irizpideen arabera jardungo duena, zuzentasun sistema betearaziko duena eta Protokoloa eta, hala badagokio, dauden kodeak edo onartzen direnak Erakundearen gutxieneko Zuzentasun Esparru batez hornituko dituena, balioei, printzipioei, jokabide arauei eta jarduteko arauei

eraginkortasuna emateko nola kudeaketari hala emaitzei dagokienez. Organo honen osaera eta funtzioak Zuzentasun Protokoloaren 14 eta 15 puntuetan jasotakoa izango da.

2.2.5.- Zuzentasun eta etika publikoaren arloan estrategia eta formakuntza ekintza sorta bat diseinatzea

Formakuntza Estrategiaren helburua Zuzentasun eta Etika Publikoaren arloan

Zuzentasun eta etika publikoaren esparruko formakuntza Estrategiaren helburua da, alde batetik, erakundean azpiegitura etiko bat garatzea, eta bestetik, prebentzioaren esparruan zuzentasunaren kultura indartzea, eta hein handi batean oinarritzen da erakundea bere autoerregulaziorako tresnen bidez hornitu den balio, printzipio, eta jokabide eta jarduera arauekin bat datozen portaera eta ohituretan eta indarrean dagoen esparru juridikoarekiko eta herritarren eskubideekiko erabateko errespetuan.

Honenbestez, etika eta zuzenbide arloko formakuntzak zentzu berezia hartzen du erakundeak modu partekatuan kudeatzen dituenean Europako Batzordeak sustatutako programetatik etorritako funts publikoak, kasu horietan, barne arau esparruaren berezko betebeharrek ez ezik, finantza kudeaketa egokiaren eta Batasunaren finantza interesen babesaren printzipioek ere esku hartzen baitute. Ondorioz, kasu horietan, Europako esparru juridikoak (besteak beste, 2018ko Finantza Erregelamenduak eta SEM-MRRren Erregelamenduak) betebeharren plus bat ezartzen du, eta beraz, barne araudiak (36/2020 EDLk eta HFP 1030/2021 Aginduak) Europako funtsak kudeatzeko kudeaketa sistema bat ezarri du, eta horren zatia da, zeharkako printzipio gisa, finantza baliabide horien kudeaketan zuzentasun mekanismoak indartzea. Horregatik da garrantzitsua etikari buruzko berariazko prestakuntza programa egokitzea, bai eta zuzentasunaren arloko eskumenak eta tresnak garatzea ere (irregulartasunak, iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak prebenitzea, hautematea eta zuzentzea), bereziki Europako funtsen kudeaketari eragiten dion guztian.

Zuzentasun mekanismoak indartzeko formakuntza ekintzen tipologia

Azaldutako helburuei dagokienez, funtsean hauxe da erakundeak zuzentasun mekanismoak indartzeko sustatu beharreko formakuntza ekintzen tipologia:

a) Zuzentasun eta Iruzurraren aurkako Neurrien Planaren edukiarekin duen loturagatik:

   Zuzentasun Plana politikariei, enplegatu publikoei eta haren edukiaren egikaritzean interesatuta dauden eragileei (kontratistak, dirulaguntzen hartzaileak izan daitezkeen erakundeak, adituak, etab.) aurkezteko saioa.

   Zuzentasun Planaren edukiari buruzko bideoen eta/edo material teknologikoen zabalkundea.

   Zuzentasun Plana Web orrian eta Gardentasun Atarian txertatzea.

Xedearekin eta helburuarekin duen loturagatik:

Zuzentasun eta etika gaian sentsibilizatzeko saioak, Europako funtsen kudeaketari aplikaturik.

Etika eta zuzentasunari buruzko formakuntza ikastaroak.

Zuzentasunari buruzko formakuntza ikastaroak Europako funtsak kudeatzeko sistemaren testuinguruan.

Kudeaketa publikoan gerta daitezkeen dilema etikoei eta interes gatazkei buruzko tailerrak.

Norberak ikasteko programa birtualak eta pilula etikoak.

Publiko hartzailearekin duen loturagatik:

Goi kargudunak eta zuzendariak, baita behin-behineko langileak ere.

Europako funtsak kudeatu ditzaketen edo zuzenean edo zeharka kudeatzen dituzten funtzionarioak eta gainerako enplegatu publikoak.

Oro har enplegatu publikoak.

Kontratistak eta emakidadunak eta dirulaguntzen edo laguntzen hartzaileak.

Dagokion esparruarekin duen loturagatik:

Erakundearen osotasunean kultura etikoa eta zuzentasun kultura indartzeko formakuntza programak eta ekintzak.

Europako funtsen zuzeneko edo zeharkako kudeaketan parte hartzen duten edo parte hartuko duten langileei eta arduradunei soilik kultura etikoa eta zuzentasun kultura indartzeko formakuntza programak eta ekintzak, irregularitasun administratiboak, iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak prebenitzeko, hautemateko eta zuzentzeko mekanismoak indartzeko, finantza kudeaketa onaren printzipioak zaintzeko, Europar Batasunaren finantza interesak babesteko eta emaitzarekiko konpromisoa bermatzeko xedearekin.

2.2.6.- Arriskuen ebaluazioa kudeatzeko eredu baten definizioa irregularitasunak, iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak prebenitzeko esparruan

2018ko Finantza Erregelamenduaren 63. artikuluak, eta lehendik EIE funtsen xedapen komunei buruzko 1303/2013 Erregelamenduak, eta HFP/1030/2021 Aginduaren 6.5 artikuluak eskatzen dute Europar Batasunetik etorritako funtsak erabiltzen dituzten nazioko agintariek arriskuak ebaluatzeko prozesuak egiteko, irregularitasun administratiboak, iruzurrak, ustelkeriak eta interes gatazkak ahalik eta gutxienera eramateko xedearekin.

Metodologia eta antolakuntza arriskuen ebaluazioaren arloan. Arriskuen eta zuzentasun neurrien jarraipenerako proiektu edo jardueraren arduraduna.

Plan honetan alderdi kontzeptualei heltzen zaie, eta ebaluazio prozesuetan aplikatu ahal izango diren alderdi metodologikoak zehazten dira, betiere kontuan izanik prozesu irekiak edo biziak direla eta, hala badagokio, Udalak edo beronen sektore publikoko erakundeek erakunde betearazle gisa edo Europako funtsen hartzaile edo onuradun gisa funts horiek hartzen dituztenean zehaztuko direla prozesu horiek sektore esparru jakin batzuetan.

Beraz, udal proiektu edo jarduera bakoitzean Arduradun Teknikoak edo proiektuaren arduradun izendatutako pertsonak identifikatuko ditu arriskuen matrizean egin beharreko egokitzapenak. Azken kasu honetanPlan honetan adierazitako Arduradun Teknikoaren ereduarekiko oniritzia jaso beharko du homogeneotasun ondorioei begira. eta Europako funtsekin finantzatzen den proiektuaren edo jardueraren kudeaketan esku hartzen duten eragileen artean zuzentasun estandarrak hobetzeko ekimenak sustatuko ditu. Halaber, eta modu berean jokatuz, funts europarrekin finantzatzen den proiektu edo jardueran dihardutenen zuzentasun estandarrak hobetzeko ekimenak bultzatuko ditu.

Proiektuaren arduradunak, hurrenez hurren Arduradun Teknikoari edo Zuzentasun Batzordeari bideratuko dizkie proposamenak, arriskuen ebaluaziorako prozesuen edo dilema etikoak edo salaketa prozesuen arabera eta organo bakoitzaren eginkizunen arabera.

Arriskuen kudeaketa, prozesu gisa, era berean zuzentasunaren esparruan, hiru faseren bitartez bideratzen da:

1. Zuzentasunaren arloan arriskuak geratzeko aukera handienak dauzkaten erakundean jarduera arloak identifikatzea.

   Arrisku mapak eta arrisku matrize bat lantzea, arrisku bakoitzak erakundearen prozesuetan eta jardueretan duen eragina zehaztuz eta arrisku oso handia, handia eta txikia dakartenak definituz.

   Bereziki arrisku oso handia edo handia duten kasuetan abian jarri beharreko neurri zuzentzaileak aplikatzea.

ARRISKUEN EBALUAZIOAREN HELBURUAK ZUZENTASUNAREN ARLOAN

a) Barne ezaugarriengatik edo kanpo eraginengatik irregulartasun, iruzur, ustelkeria eta interes gatazkak gertatzeko arrisku handiena duten arloak, prozesuak eta jarduerak hautematea.

   Sentsibilizazioa ahalbidetzea erakundean erabakiak hartzeko edo kudeatzeko prozeduretan esku hartzen duten eragileen iruzurra eta beste jokabide irregularrak prebenitzeko esparruan.

   Lanbide jokabideak eta portaerak garatzea indarrean dagoen arau esparruari eta autorregulaziorako tresnetan ezarritako balioei eta printzipioei egokituta, Suspertze Planarekin edo Europako beste funts batzuen kudeaketarekin lotutako proiektuen, azpiproiektuen edo jardueren kudeaketan Europar

Batasunaren finantza interesak babesteko eta finantza kudeaketa onaren printzipioak eraginkorrak izateko.

Jarduera edo prozesu jakin batzuek erakundearen helburuei eta xedeei zein neurritan eragin diezaieketen zehaztea.

ARRISKUAK IDENTIFIKATZEA ETA ANTOLAMENDUAREN TESTUINGURUA

Erakundearen diagnostikotik eta haren testuingurutik eratortzen diren koordenatuetatik abiatuta identifikatu behar dira bai arrisku eremuak, bai jarduerak eta prozesuak, bai zuzentasuna kaltetzen duten portaerak edo jokabideak izan ditzaketen eremu espezifikoak.

Era berean, zuzeneko zerikusia du unean uneko arriskuak identifikatzeak esleitutako eginkizunekin eta horiek betetzearekin.

Esate baterako, Europako funtsen kudeaketan azkarragoak izan behar dira kudeaketa prozesuak, laburtu egiten dira epeak, bermeak eta izapideak, erdigunean jartzen da finantza kudeaketa, esleipenetan dirulaguntzen bitartez bideratzen da finantza baliabideen gastua, kontratazio publikoa bereziki garrantzitsua da funts horien eraginkortasuna bermatzeko, lankidetza publiko-pribatuak ateak ireki diezazkieke interes gatazkei, eta abar eta abar.

Udalaren eta bere sektore publiko instituzionaleko erakundeen jarduera esparruan bereziki garrantzitsuak dira departamentuari esleitutako zeharkako eskumenei lotutako arriskuak, hala nola kontratazio publikoari eta langileen kudeaketari dagozkienak, eta hein apalagoan, ekonomia eta finantza esparruari dagozkionak, Ekonomia eta Ogasun departamentuak gai horietan eta dirulaguntzen gaian dauzkan eskumenei kalterik egin gabe.

ZER ARRISKU IDENTIFIKA DAITEZKE USTELKERIA, IRUZUR, IRREGULARTASUN ETA INTERES GATAZKAK GERTATZETIK GERTUKOAK EDO ATARIKOAK?

Sektore publikoaren esparruan, hauexek dira, besteak beste, ustelkeria edo iruzur gertaera patologikoak eragin ditzaketen arrisku agerikoenak:

- Interes gatazkak

Bidegabeko erabilerak

Iruzurra berariazko engainutzat hartuta bidegabeko abantaila lortzeko

Faboritismoa

Nepotismoa

Klientelismo politikoa edo sindikala

Kolusio praktikak

ARRISKUEN EBALUAZIOA ZUZENTASUNAREN ARLOAN

Arriskuaren ebaluazioak, baita zuzentasunaren arloan ere, arriskuaren maila zehaztea dakar bi faktoreren bitartez:

a) Arriskua (handia, ertaina, txikia) gertatzeko probabilitatea, bi elementuren inguruan neurtzen dena:

   Arrisku bat gertatu den maiztasuna edo aldien kopurua.

   Arriskua gertatzeko aukera gutxitzeko, arintzeko edo eragozteko neurriak izatea edo ez izatea; eta hori Plan honetan jasotako prebentziozko neurriekin eta neurri zuzentzaileekin alderatu behar da.

   Gertatuz gero, arrisku horrek erakundeari eragiten dion inpaktua, arrisku jakin bat gertatzeak erakundearentzat dauzkan ondorioetan islatzen dena (izen ona galtzea, konfiantza krisia herritarren artean, alarma soziala, erakundeko klima edo atmosfera etikoa hondatzea, praktika bidegabeak ugaritu ditzaketen joerak bultzatzea, etab.).

ARRISKUEN MATRIZEA

Probabilitatearen eta eraginaren arabera, kasu bakoitzean dagoen larritasun mailaren eskala finkatzea. Era berean, arrisku horiek arintzeko edo saihesteko neurriak jaso beharko lituzke.

Probabilitatea / Larritasun maila	Txikia	Ertaina	Handia
Handia	Ertaina	Handia	Handia
Ertaina	Txikia	Ertaina	Handia
Txikia	Txikia	Txikia	Ertaina

ARRISKUAREN TRATAMENDUA

Arrisku gordina (edo berezkoa) da oraindik berau kalifikatzeko eta tratatzeko jarduerarik abiarazi ez denean sortzen dena; arrisku garbia, berriz, ebaluazioa egin eta eragina kalifikatu ondoren sortzen dena da, eta, hala badagokio, hura murrizteko edo kontrolatzeko neurri egokiak aplikatzen dira. Arrisku handiak alerta gisa erabili behar dituzte baliabide horiek erabakitzen eta kudeatzen dituztenek.

Arrisku mota bakoitzaren sailkapenak arriskuaren larritasun eta eragin mailari eman beharreko erantzun egokia dakar berekin batera.

Arriskuaren tratamendua:

a) Ebaluazioaren ondorio bat da.

   Arriskuak irregulartasun, iruzur edo ustelkeria bihurtzea saihesteko edo arintzeko neurriak zehazten ditu.

   Lehenengo neurriak prebentziozkoak dira, eta horien helburua da jarduera bidegabeak edo ez zuzenak gertatzeko probabilitatea murriztea.

   Era berean, badira barne kontrolerako neurriak, garrantzi handikoak, horien artean kontu hartzailetzako eginkizuna eta barneko eta kanpoko finantza

kontrola (auditoretzak), eta bereziki biderkatzen dira arriskuak gertatzeko aukera handienak dituzten arloen eta jardueren gaineko kontrol lanak.

Ohar garrantzitsua:

II A Eranskinean zehazten da arriskuen ebaluazioa egiteko prozedura: ebaluazio hori horretarako diseinatutako tresna informatikoarekin egingo da, eta lehen deskribatutako arriskuen ebaluazioan eta antolamenduaren metodologian zehazten denarekin bat etorrita, tresna hori egokitu eta bertan aldaketak egin ahal izango dira esparru jakin batzuetan Europako funtsak kudeatu behar direnean.

2.2.7.- Antolamendu Neurriak ezartzea funtsen kudeaketan.

Europako funtsen erabileran inpartzialtasuna eta objektibotasuna zaintzeko eta itxurazko edo balizko interes gatazkak saihesteko, Planak argi eta garbi bereizten ditu kudeaketa, kontrol eta ordainketa rolak: horiek kudeaketa egituran, interbentzio eta auditoretza sistemetan eta ordainketa sisteman daude zehaztuta, hainbat organoren eta, hala badagokio, hainbat departamenturen bitartez.

Donostiako Udalari aplikatu beharreko arau esparruaren arabera, barne kudeaketa eta kontrol sistemak argi eta garbi daude bereizita, kudeaketa organo betearazleari baitagokio eta barne kontrola, bere finantza eta kontabilitate arloetan, Kontu hartzailetza Nagusiari. Era berean, ordainketa agindua bereizten da, hori Diruzaintza Nagusiaren eskumena baita.

2.3.- HAUTEMATEKO NEURRIAK

Iruzurraren aurkako zikloaren bigarren fase honetan egituratu behar dira irregulartasun administratiboak, iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak hautemateko neurriak.

Iruzurraren aurkako Neurrien Plan honetako aurreko epigrafean adierazitako prebentziozko neurriek huts egiten dutenean aktibatuko da fase hau.

Hautemateko faseak galaraz dezake irregulartasuna, iruzurra, ustelkeria edo interes gatazka, edo gutxienez ondorioak arindu ditzake.

Hautemateko neurriak

2.3.1.- Dilema etikoak edo salaketak edo alerta planteatzeko barne kanalak antolatzea.

Irregulartasunak, iruzurra, ustelkeria eta barne gatazkak hautemateko eginkizuna izango dute kanal hauek.

Jokabide kodeetan edo gobernu onaren kodeetan aurreikusten diren jokabide printzipio eta arauen irismenari buruzko dilema etikoen irismena, Plan honetan jasotako antolamendu egituraren bitartez interpretatuko eta bideratuko da, eta kasu zehatz batzuetan aplikatuko da; hau da, Zuzentasun Batzordeak bere kabuz ebatziko du planteatutako gaia.

Salaketak aurkezteko barne kanal horrek printzipio eta arau sorta bat bermatu behar du irregulartasunak, iruzurrak, ustelkeria eta interes gatazkak hautemateko tresna horren erabileran eta funtzionamenduan.

2.3.1.1.- Artikulazio printzipioak.

a) Konfidentzialtasuna.

b) Salatariak kalterik ez izateko bermea.

c) Norabide biko komunikazioa bideratzea, salaketak izengabeak ez badira.

d) Salatariaren edo alerta emailearen datu pertsonalak babestea.

e) Salatariaren babesari dagokionez, betiere zuzeneko ondorioengatik aplikatu badaitezke eta arau bidez garatzen ez den bitartean, 2019/1037 (EB) Zuzentarauaren aurreikuspenak aplikatzea.

f) Kasu bakoitzean aplikagarria den legediarekin bat etorrita, salaketak eraginkortasun eta prozedura berme guztiekin kudeatzea.

g) Salaketak informaltasun printzipioaren arabera aurkeztea, soilik postontzi telematikoan eskatutako datuak betetzea eta, nolanahi ere, salatutako ekintzak, balizko pertsona kaltetuak eta salaketa oinarritzen den frogak edo zantzuak espresuki adierazirik.

2.3.1.2.- Salaketaren edukia

Honako hauek jasoko ditu jarduera ustez iruzurtien berri ematen duen informazioak:

1.- Ahalik eta modurik zehatzenean eta xehetasun osoz deskribatuko ditu gertaerak, eta ahal dela hauexek identifikatuko ditu: haietan parte hartutako pertsonak; ustezko irregulartasunak edo iruzurrak kaltetutako negozioak, deialdiak, tresnak edo espedienteak; gertaerak jazo diren benetako data edo gutxi gorabeherakoa; laguntzak kudeatu dituen organoa edo erakundea; eta, hala badagokio, informazio hori jaso duten organoak edo erakundeak.

2.- Jakinarazitako gertaerak egiaztatzea ahalbidetuko duten dokumentuak edo beste edozein froga, eta gertaera horiekin lotuta bideratutako jarduerak.

3.- Informazioa Iruzurraren aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionalari bidali dion pertsonaren identifikazioa (IFZ zenbakia, izen-abizenak eta posta elektronikoaren helbidea edo, bestela, posta helbidea).

2.3.1.3.- Funtzionamendua

1.- Kanal espezifikoa izango da, eta haren bidez, salatariaren identifikazio elektronikoaren bitartez, ordezkatuak izateko arriskua edo salaketa automatizatuak saihesteko, Udalaren esparruan edo beste edozein esparrutan erakundearen zuzentasunaren aurkako jokabideen edo jardueren salaketa modu elektronikoan egitea ahalbidetuko da, eta beti bermatuko da salatariaren anonimatua eta konfidentzialtasuna, salaketa ikertzeko ardura duten organoek ez dezaten salatariaren identitatea ezagutu, errepresaliak saihesteko.

2.- Era berean, kanal hori enplegatu publikoek erabili ahal izango dute iruzurraren aurkako prozeduretan edo ekintzetan hobetzeko neurriak proposatu ditzaten.

3.- Gainera, dirulaguntzen onuradunek edo enpresa hartzaileek egindako intzidentziak salatu ahal izango dira.

4.- Fede oneko salatariaren babesa bermatzeko neurri espezifikoak ezarriko dira, ikerketa aldian eta gero ere ez dezan isolamendurik, jazarpenik edo lan edo lanbide baldintzak okertzerik jasan, ezta edozein kalte edo diskriminazio ekar dezakeen neurririk bat ere.

5.- Konfirmatu den edo potentzialki egiazkoa den iruzur kasu baten aurrean, salaketen kanalaren arduradun den organoko presidenteak isilpeko informazio prozedura bat tramitatuko du. Prozedura honen baitan kasuaren azterketa sakon bat egingo da, eta bertan dokumentatu beharko dira jarduera, froga eta hartu beharreko ebazpen guztiak, Plan honen 2.5.2 puntuan ageri den moduan jokatuz.

6.- Datuen Babeserako Organo Delegatuak kudeatuko du salaketak aurkezteko kanala.

a) Salaketak jasotzea.

Arduradun Teknikoak aztertuko ditu aurkeztutako salaketak. Urrats hauek egingo dira:

- Aztertu egingo dira jasotako salaketak, eta horretarako informazioa eskatu ahal izango zaie bai aurkeztutako salaketak aipatzen dituen administrazio organoei edo erakundeei, bai salaketak ukitu ditzakeen zeharkako organoei.

- Salaketa ez da izapidetuko argi eta garbi funtsik gabea baldin bada edo helarazitako informazio eskasak, gertaeren deskribapen orokorregiak edo zehaztu gabeak edo emandako froga elementuek ez baldin badiote organo izapidegileari jasotako informazioa zentzuz egiaztatzeko eta jakinarazitako gertaerei zer tratamendu eman behar zaion erabakitzeko aukerarik ematen. Eta ez da argi eta garbi fede txarrez egindako salaketak edo informazio faltsua edo legez kanpo lortutako informazioa jasotzen duen salaketarik izapidetuko. Kasu horietan guztietan artxibatu egingo da aurkeztutako salaketa, betiere artxibatzeko arrazoiak azalduz.

b) Salaketen tratamendua

Aztertutako gertaeren eta araudi aplikagarriaren arabera:

1. Salaketa eta burura eramandako ikerketaren emaitzak Zuzentasun Batzordeari igorriko zaizkio kasua ezagutu dezan, eta dagokion prozedura (diziplina prozedurak, egiaztatutako irregulartasun baten salaketa izan duen prozeduraren bat itzultzeko edo baliogabetzeko prozedurak barne) eta, hala behar badu, dagokion Planaren eguneratzea izapidetu ditzan.

Iruzurraren aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionalari, OLAFri eta, hala badagokio, Fiskaltzari eta Justizia Auzitegiei helaraziko zaie salaketa.

Hala badagokio, aurkeztutako salaketa artxibatzeko agindua emango da, betiere artxibatzeko arrazoiak azalduz.

Salaketa kudeatzean, une oro bermatuko da salatariaren datu pertsonalen konfidentzialtasuna, baita salaketa izenik gabe tratatzea ere, salatariari kalterik egingo ez zaiola bermatzeko.

Jasotako eta izapidetutako salaketei buruzko urteko txostena landuko da.

2.3.1.4.- Salaketak egiteko Udaleko barne kanala

Salaketak egiteko Kanal propio bat antolatuko da balizko iruzur baten edo haren susmo oinarridunaren eta ustezko irregulartasunaren inguruko balizko salaketei erantzuteko. Horretarako posta elektronikoko helbide hau gaitu da: salaketakanala@donostia.eus

Aurreko lerroaldean adierazitako salaketetarako barne kanal hori baliatzeaz gain, alerta emaileak edo salatariak zuzenean jo ahal izango du salaketak egiteko dauden kanpo kanaletara edo beste erakunde mota batzuetara (Kontuen Auzitegia, Fiskaltza, etab.). Hauexek dira salaketak aurkezteko kanpo kanalak:

2.3.1.5.- Salaketak aurkezteko kanpo kanalak

Nolanahi ere, era berean kanpo kanal hauen bitartez bideratu daitezke salaketak:

Iruzurraren aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionala (SNCA), SEM-MRRtik etorritako Europako funtsen arloko IGAE Kontrol Agintaritzari atxikia: https://www.igae.pap.hacienda.gob.es/sitios/igae/es-ES/paginas/denan.aspx

OLAF, Iruzurraren aurkako Agentzia europarra: https: //fns. olaf. europa. eu/main_es. htm

2.3.2.- Bandera gorrien zerrenda bat aurreikustea

Alerta sistema baten gisara jardungo du bandera gorrien zerrendak irregulartasun administratiboak, iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak gertatzeko arriskua handia edo ertaina den kasuetan edo inguruabarretan.

HFP 1030/2021 Aginduaren 6.5 artikuluak aurreikusten du Iruzurraren aurkako Neurrien Planak besteak beste honako betebehar hau izango duela: *"Alerta seinaleei doitutako detekzio neurriak daudela aurreikusiko da, eta horiek eraginkortasunez aplikatzeko prozedura zehaztuko da"*. Tresna hori, beraz, mekanismo egokia da irregulartasunak, iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak prebenitzeko eta hautemateko.

Bandera gorri horiek identifikatzeko eta haien irismena zehazteko, OLAFk bere garaian landu zituen dokumentuak erabiliko dira, Plan honetako III. Eranskinean jasotako Bandera Gorrien Katalogoa erakusgarri. Katalogo hori aldizka berrikusiko da, hartan aldaketak egiteko edo beste kasu batzuk aintzat hartzeko premia dagoela sumatu ahala.

Gainera, III. Eranskinean azalduko da bandera gorriak hautematean bideratuko beharreko prozedura.

2.3.3.- Jarduerei eta, hala badagokio, interesei, ondasunei edo ondareei buruzko adierazpenak.

Dagoeneko azpimarratu egin da jarduerei buruzko adierazpenek duten garrantzia, irregulartasunak, iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak prebenitzeko mekanismo gisa; disuasioaz gain, haren eraginkortasunik garrantzitsuena da jarduera iruzurtiak, irregulartasunak, ustelkeria ekintzak edo interes gatazkak zein kasutan eta inguruabarretan gerta daitezkeen identifikatzea edo hautematea. Beraz, inolako zalantzarik gabe oso garrantzitsua da adierazpen horiek aztertzea irregulartasunak hautemateko atalean.

HFP 1031/2021 Aginduaren 6.4 artikuluak dio organo kudeatzaileek, iruzur arriskuari buruzko ebaluazioarekin batean, nahitaez egin behar duela Interes Gatazka Ezari buruzko Adierazpena (DACI), eta interes gatazka horiei heltzeko prozedura bat onartu behar duela.

6.5 artikuluaren i) letrak, bere aldetik, berriz ere azpimarratzen du DACI hori onartzeko premia, planaren gutxieneko betebeharren artean honako hau ere jasotzea aurreikusten baitu: "Espezifikoki, interes gatazken egoerak prebenitzeko eta zuzentzeko prozedurak definitzea EBren Finantza Erregelamenduaren 61. artikuluaren 1. eta 2. ataletan ezarritakoari jarraiki. Bereziki, nahitaezkoa izango da PRTR plana egikaritzeko prozeduretan parte hartzen dutenek DACI bat sinatzea, hierarkian gorago dagoenari ustezko interes gatazka dagoela jakinaraztea eta hark kasu bakoitzean dagokion erabakia hartzea."

Ministerio Aginduan DACI interes gatazkak prebenitzeko tresna gisa jasotzen bada ere, eta zalantzarik gabe hala bada ere, ezin da baztertu Adierazpen hori lotuta egotea dagokion adierazpenean hartutako betebeharrak saihesten dituzten jarduerak,

jokabideak edo portaerak eta ez egiteak hautematearekin, zuzentzearekin eta jazartzearekin. II B 5 Eranskinean aurreikusitako autoebaluaziorako testak gai hori jasotzen du prebentziozko neurrietan ("Esku hartzen duten guztiek egiten al dute interes gatazkarik ez dagoela azaltzen duen adierazpena?"; baina, azaldu bezala, DACIren disuasiozko ondorioak nahikoak ez diren kasuetan planteatzen den hautemateko fasean gauzatzen dira ondorioak. Horrexegatik, HFP 1030/2021 Aginduan ezarritakoa baino zorrotzagoa den DACI eredua jaso da Plan honetan, Planaren beraren edukian eta dagozkion Eranskinetan ezarritakoarekin bat etorrita.

2.3.4.- Datuak eta trazabilitatea kudeatzeko tresnak sartzea.

HFP 1030/2021 Aginduaren 6.5 artikuluak ezartzen dituen betebeharren artean dago Planean beharrezkoak diren hautemateko neurri guztiak sartzea alerta sistemak behar bezala funtzionatu dezan. Horrekin batera, III C Eranskinak ezartzen du arlo horretan garrantzitsua dela "Datuen analisia" deitutakoa. Hautemateko esparruan, gisa honetan antolatzen dira:

- Betiere datu pertsonalen babesaren (gaur egun DBEOk indartua) errespetuak berekin dakartzan mugen barruan, ustelkeria eta berezko iruzurra hautemateko tresna garrantzitsua da "arloko beste erakunde publiko eta pribatuekin datuak gurutzatzea" Europako funtsak eman aurretik ere arrisku handiko balizko egoerak hauteman ahal izateko.
- Ildo horretan, tresna batzuk dira, esate baterako, Dirulaguntzei buruzko Datu Basea (BNDS), erakunde publikoetako kontratazio plataformak, kontratisten erregistroa, Merkataritza Erregistroa, datuak aztertzeko tresnak ("data mining"), REVASCON (Kontratuen Euskal Erregistroa), Euskadiko Kontratazio Publikoko Plataforma, datuak aztertzeko tresnak eta Europako Batzordearen arriskuak puntuatzeko tresnak (ARACHNE, DAYSI), 2014-2019 Urte Askotako Finantza Esparrutik etorritakoak, etab.

2.4.- ZUZENTZEKO NEURRIAK

2.4.1.- Sarrera

Iruzurraren aurkako zikloaren hirugarren fasea irregulartasunen, iruzurraren, ustelkeriaren eta interes gatazken zuzenketan zehazten da.

Izan ere, irregulartasun, iruzur edo ustelkeria susmorik edo ebidentziarik baldin badago, Udalak eta bere sektore publiko instituzionaleko erakundeek, beren organo eskudunen bitartez, neurri sorta bat aplikatu behar du, horien artean, baztertu egingo ditu proiektuak, aurretiazko jarduerak abiaraziko ditu, edo zuzenketa neurri osagarriak aplikatuko ditu gertatutakoak agintari eskudunei jakinarazteko.

Beraz, kasu batzuetan bat egin dezaketen trazadura sekuentziala dute zuzenketa eta jazarpen faseek; baina zuzenketaren helburua da kalte handiagoak saihestea edo arintzea eta, horrenbestez, Europar Batasunaren finantza interesak zaintzea, hots,

jokabide horien ondorioz erakundearen irudia eta izen ona kalteturik gertatzeko aukera murriztea.

6.5 artikuluaren f) letrak ezartzen du Neurrien Planak besteak beste "*iruzur kasu susmagarri bat hautematen denean dagozkion zuzenketa neurriak definitu behar dituela, iruzur susmoen berri emateko mekanismo argiak ezarririk*".

2.4.2.- Jarduerak ustezko iruzur bat hautematen denean

Arduradun Teknikoak lehen deskribatutako salaketak aurkezteko kanal propioaren bitartez, edo beste edozein bitartekoren bidez, aurkeztutako iruzur susmo baten berri duenean, gaian eskumena duen zerbitzuari eskatuko dio bildu ditzala eskura duen beharrezko informazio eta froga guztiak, kasuari buruzko ondorengo azterketa bideratu ahal izateko.

"Bandera gorriak" deituriko adierazle batzuen agerpena izango da iruzurra baden ala ez den erabakitzeko irizpide nagusietako bat.

Ustezko iruzurra hautemateak edo haren susmo oinarridunak berekin ekarriko du Arduradun Teknikoak hura hauteman den prozedura zehatza bertan behera uzteko baloratzea, eta ahalik eta azkarren jakinaraziko zaio Zuzentasun Batzordeari, honako neurri hauek har ditzan:,

- Dena delako zirkunstantziaren berri emango zaie, ahalik eta lasterren, agintaritza interesdunei eta jarduerak egitean inplikatutako erakundeei, jazarpen neurrietan garatuko den moduan.

Iruzurraren eraginaren ebaluazioa egingo du eta hura sistemikotzat edo puntualtzat joko du, hurrengo atalean zehazten den moduan.

Haren eraginpean bideratu ahal izan diren proiektu guztiak berrikusiko ditu.

Hala badagokio, hautemandako intzidentzia identifikatu den espediente guztietatik finantzazio komunitarioa kentzeko eskatuko du.

Unitate betearazleei emango die hautemandako ahulgunea konpontzeko ezinbestean hartu beharreko neurrien berri, gertatutako intzidentziak errepikatu ez daitezen.

2.4.3.- Iruzur, ustelkeria eta interes gatazkak sistemikoak ala puntualak diren jakiteko ebaluazioa

Ustezko iruzurra hautemanda, Udalak edo bere sektore publiko instituzionaleko erakundeek hautemandako irregulartasun, iruzur, ustelkeria edo interes gatazka horiek puntualak diren ala inguruabar sistematiko bihurtu diren (horrek erakundearen izen onari eragin diezazkiokeen ondorioekin) identifikatu behar da.

Arduradun Teknikoak egingo du ebaluazio hori, eta sistemikotzat joko du kudeatutako finantza baliabideen edo erakundea onuradun den baliabideen berezko iruzurrak erakundeak berak kudeatutako edo egikaritutako proiektu, azpiproiektu edo jarduera horren guztizkoaren % 33an baino portzentaje handiagoan eragiten duenean.

Bestela, iruzur sistemikotzat joko da berezko iruzurra behin eta berriz eta antzeko prozesuetan egin dela salatzen duten probak aurkitzen direnean, eta iruzur puntualtzat joko da gertaera isolatua izan dela egiaztatzen denean, ez dela beste inoiz gertatu egiaztatzen denean.

Arduradun Teknikoak ondorioztatzen badu iruzurra sistematikoa dela, badaezpada eten egingo du edo ditu proiektua edo proiektuak, eta berehala emango dio horren berri Zuzentasun Batzordeari, egoki irizten dituen neurriak proposatu ditzan.

2.4.4.- Proiektuak osorik edo zati batean baztertzea.

HFP/1039/2021 Aginduaren 6.5 artikuluko f), g), h) eta i) letretan ezarritakoari jarraiki, Arduradun Teknikoak Europako funtsen kudeaketan berezko iruzurra edo ustelkeria hautematen duenean edo horren susmo oinarridunak daudenean, proiektuak eta azpiproiektuak osorik edo horietako zati batzuk baztertu ahal izango ditu, inguruabar horiek aipatutako funtsen kudeaketan eragin badezakete.

2.4.6.- Beste zuzenketa neurri osagarriak hartzea:

Kontrol organoaren jardueraren bitartez prozedura administratiboak edo penalak abiarazi aurreko ikerketa eta aurretiazko jardueretan oinarrituko dira neurri hauek.

2.4.5.1.- Ustezko berezko iruzur bat hautemanez gero, edo jarduera bidegabe bat egin ahal izan delako susmoa izanez gero, Datuen Babeserako Organo Delegatuaren Lehendakariak, susmoa salaketen kanaletik datorrenean, edo Arduradun Teknikoak, susmoa bere funtzioak gauzatzetik datozenean, edozein zehapen edo diziplina prozedura abiarazi baino lehen, informazioa emateko edo aurretiazko jarduerak bideratzeko epe bat emango du kasu zehatzaren inguruabarren berri izateko eta dagokion zehapen edo diziplina prozedurak abiaraztea komeni den ala ez ebazteko. Hala bada, jarduera horiek ahalik eta zehatzen azaldu behar dituzte prozedura abiarazteko arrazoiak, pertsona edo pertsonak identifikatu behar dituzte, baita halako kasuetan gertatzen diren inguruabar garrantzitsuak ere, eta guztiaren berri emango zaio Zuzentasun Batzordeari.

2.4.5.2.- Kontuan izanik helburua dela, alde batetik, Europar Batasunaren finantza interesak babestea, eta bestetik, Europako Aurrekontutik etorritako baliabide horiek aurreikusitako helburuetara iritsi ez daitezen saihestea, Udalak bizkortasun printzipioaren arabera bideratu beharko ditu aurretiazko jarduerak, finantza baliabideak berreskuratu ahal izango direla bermatzeko, prozeduran interesdunen eskubideak babesteari kalterik egin gabe.

2.4.5.3.- Era berean, Zuzentasun Batzordeak helaraziko dio dagokion organoari, hark, EBren Finantza Erregelamenduaren 129. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, eta hautemandako berezko iruzurrak edo iruzur susmoak zigor penala jaso dezaketen ustezko egintzak egitea ekar badezake, gertaera horien berri berehala helarazteko Fiskaltzari eta agintaritza judizialari.

2.4.5.4.- Era berean, 2018ko Finantza Erregelamenduaren 129. artikulu horren beraren arabera, Udalak, berezko iruzurra hautematen duenean edo iruzur susmoak dituenean,

elkarlanean eta leiak jardungo du agintaritza eskudunekin, kanpo kontroleko organoekin, fiskaltzarekin eta agintaritza judizialekin eta, hala gertatzen denean, Europako Batzordeak, OLAFk edo Europako Kontu Publikoen Auzitegiak bideratzen dituen jarduerekin.

2.4.5.5.- Nolanahi ere, behin ustezko iruzur bat hautematean, edo haren susmo oinarriduna izatean, Udalak lehen adierazitako neurriak hartuko ditu eta, zehazki, HFP 1030/2021 Aginduaren 6.6 artikuluan jasotakoak.

2.5.- JAZARPEN NEURRIAK

2.5.1.- Sarrera

Berezko iruzurraren eta ustelkeriaren jazarpena da iruzurraren aurkako zikloaren azken fasea. Abiapuntutzat hartzen da zantzu nahikoak daudela uste izateko administrazio arloko irregulartasunak (erakundeak berak edo administrazio agintaritzek zuzendu ditzaketenak) edo, hala badagokio, penalki jazar daitezkeen egintzak egin ahal izan direla.

Aurreko faseetan ez bezala, fase horietan Udalak iruzurra prebenitzeko, hautemateko eta zuzentzeko neurriak har baititzake, jazarpenaren esparruan jarduerak erakunde eskudunekin elkarlanean bideratzen dira berezko iruzur edo ustelkeria kasuak modu eraginkorrean jazarri ahal izateko, salbu eta bere langileei bideratutako diziplina edo zigor jarduerei dagokienez, kasu horretan neurri horiek hartu ahal izango baitira, zuzenketa fasean ikusi denez.

Jazarpen jarduerak adierazten du ordurako kalte egin zaiola erakundeari edo haren izen onari, eta, kasu batzuetan, iruzurraren edo ustelkeriaren xede izandako funts europarrak berreskuratzeko benetako aukerak mugatuak edo konplexuak direla, baina Udalak eskura dituen baliabide guztiak jarri behar ditu Batasunaren finantza interesei ez kaltetzeko helburu hori modu eraginkorrean babesteko.

2.5.2.- Informazio erreserbatua eta diziplina edo zehapen prozedurak abiaraztea

Ustezko edo baieztatutako berezko iruzur kasu baten aurrean, Datuen Babeserako Organo Delegatuaren Lehendakariak, edo hala dagokionean, Arduradun Teknikoak informazio erreserbatuko prozedura bat izapidetuko dute. Prozedura horrek dagokion kasuari buruzko azterketa zehatza eskatuko du, eta bertan dokumentatu beharko dira bideratu beharreko jarduera, froga eta ebazpen guztiak.

Informazio erreserbatua ez da diziplina espedientean jasoko, haren helburu bakarra baita organo eskudunari judizio elementuak ematea espedientea abiarazteko edo ez abiarazteko erabakia argudiatu dezan. Nolanahi ere, diziplina espedientearen barruan, informazio erreserbatuan zehar bildutako dokumentuak eta frogak jaso ahal izango dira.

Informazio erreserbatuko prozesua amaitu ostean, irregulartasun administratiboak edo ukitutako pertsonen ekintzaren edo ez egitearen ondorioz zuzendu ez diren interes gatazken egoerak hauteman diren kasuetan, Zuzentasun Batzordeari jakinaraziko dio informatze xede hutsez, baita hala deritzonean bere ustez zein neurri legozkiokeen ere komunikatuko dio. Kasu guztietan Udalari eta bere sektore publikoko instituzionaleko erakundeei jakinaraziko die hauek, eskumena duen organoaren bidez, araubidez dagokion diziplina edo zigor espedientea has dezaten.

Diziplina edo zehapen prozedura hori izapidetzearen ondorioz zigorrak ezarri behar badira, erakunde erabakitzaileari jakinaraziko zaio edo, hala badagokio, erakunde betearazleari, erakunde betearazlea Udala ez bada.

Ebazpen horiek, era berean, Europako funtsen kudeaketaren arloan eskumena duten organoei helaraziko zaizkie.

2.5.3.- Gertatutakoak eta hartutako neurriak agintari eskudunei jakinaraztea

Udalak, Europako funtsen organo kudeatzailea edo soilik hartzailea edo onuraduna den kontuan hartuta, balizko iruzur egoeren aurrean jardun beharko du, gertakari horien berri emanez:

a) Organo kudeatzailea den kasuetan, erakunde betearazleari edo, hala badagokio, erabakitzaileari.

b) Beste erakunde edo kudeaketa organo batek kudeatutako edo erabilitako funts europarren hartzaile edo onuradun den kasuetan, erakunde horri berehala jakinarazirik.

Eta hori HFP/1030/2021 Aginduaren III C Eranskinean xedatutakoa betez; izan ere, jazarpen fasean ustezko iruzur eta ustelkeria kasuei heltzen dienean xedatzen du ahalik eta lasterren “jakinarazi behar zaizkiela gertatutakoak eta hartutako neurriak erakunde erabakitzaileari (edo jarduerak bideratzeko agindua jaso duen erakunde betearazleari, kasu horretan erakunde betearazleak jakinaraziko baitio erakunde erabakitzaileari), eta horrek Agintaritza Arduradunari emango dio gertakariaren berri, eta Agintaritza horrek egokitzat jotzen duen informazio gehigarria eskatu ahal izango du, Kontrol Agintaritzak horien jarraipena egin eta jakinaraz dezan.

2.5.4.- Ustezko iruzur kasuak nazioko edo Europar Batasuneko agintaritza publikoen eta fiskaltzaren edo auzitegien aurrean salatzea

Ustezko iruzurra modu eraginkorrean egiaztatzen bada edo iruzurra egin izanaren susmoak zantzuetatik abiatuta oinarridunak badira, kasu horretan (baita beste kasu batzuetan ere Finantza Erregelamenduaren 129. artikuluan ezarritako lankidetza betebeharrarekin bat etorrita) ekintza edo jarduera hauetakoren bat bideratu behar du Udalak:

a) Kasua bada, Agintaritza Publiko eskudunei emango die gertakari zigorgarrien berri; hau da, Iruzurraren aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionalari (SNCA)

edo, hala badagokio, Iruzurraren aurka borrokatzeko Bulego Europarrari (OLAF).

b) Informazio erreserbatu bat abiaraziko du erantzukizunak argitzeko edo, hala badagokio, diziplina espediente bat abiarazteko, administrazio publikoen administrazio prozedura erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 55. artikuluari jarraiki eta zuzenketa fasean eta fase honetako 2. puntuan adierazitako baldintzetan.

c) Hala behar duenean, zuzenketa fasean adierazitakoarekin bat etorrita, Fiskaltzaren eta auzitegi eskudunen aurrean salatuko ditu gertakariak.

2.5.5.- Kasuaren gaineko jarraipena eta funtsak berreskuratzea

Ustezko iruzurraren edo egiaztatutako iruzur kasuaren gaineko jarraipena egingo da, eta aurreko ataletan adierazitakoaren arabera egindako analisi, jakinarazpen eta salaketen ondorioz abian dauden ikerketen kontroletik igaroko da.

Informatutako agintaritza eskudunetako baten erantzuna jasoz gero, aintzat hartuko dira hark proposatutako jarraibideak, neurriak edo gomendioak.

Gainera, hala badagokio, bidegabe erabili diren edo ustezko iruzur edo ustelkeriaren batekin lotu diren funtsak berreskuratzeko izapidetze lanak egingo dira, eta Udalak itzuli egin beharko ditu funts horiek (Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikulua). Europako Batzordeak ere funtsak itzultzeko eska dezake Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22. artikuluan xedatutakoari jarraiki, Batasunaren finantza interesak kaltetu dituen iruzur, ustelkeria edo interes gatazken kasuan eta estatu kideak dagokion zuzenketa egin ez badu.

Kontratuen esparruan eta subsidiarioki enkarguen kasuan, Sektore Publikoko kontratuei buruzko azaroko 8ko 9/2017 Legearen 71.2.c), 110.c) eta 194. artikuluetan xedatutakoa beteko da.

3. PUBLIZITATEA ETA ONDORIOAK ETA JARRAIPENA

3.1. Publizitatea

Iruzurraren aurkako Neurrien Plan Orokorra langile eta goi kargudun guztien artean zabalduko da, bereziki dirulaguntza edo kontratazio espedienteak izapidetzen dituzten unitateetan ari direnen artean.

Era berean emango zaie haren berri unitateetan sartzen diren langile berriei.

Berritik sartzen diren langileei begira, harrera egiteko eskuliburuan azaldu beharreko nahitaezko edukietako bat izango da Iruzurraren aurkako Neurrien Plana.

Era berean, Donostiako Udalaren Gardentasun Atariko atal propioan eta Udalaren Internet Atarian argitaratuko da.

3.2. Ondorioak

Plan honek Udalak Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzean eta Plan horren iraunaldian zehar garatzen dituen proiektu guztietan izango ditu ondorioak, proiektuak abiarazten diren egunak edozein izanik ere. Era berean, ondorioak izango ditu Udalak kudeatzen dituen edo etorkizunean kudeatuko dituen Europako beste funtsetan, betiere araudi aplikagarriarekin bateragarria bada.

3.3. Jarraipena

Arduradun Teknikoak proposatutako neurrien aplikazio eta betetze mailaren gaineko jarraipen etengabea bideratu beharko da.

Datu hauetan oinarritu daiteke jarraipena:

- Jasotako eta izapidetutako salaketen erregistroa.

  Egokitzat jotzen diren beste guztiak.

Gainera, proposatutako neurrien betetze mailaren eta egokitzapenaren arabera ebaluatuko da plan hau, eta, horri esker, komeni diren aldaketak sartu ahal izango dira, Tokiko Gobernu Batzordeak onartu beharrekoak.

Tarteko eta amaierako izaerarekin egingo da jarraipena; horretarako, dagozkion jarraipen eta emaitza adierazleak definituko dira, espero diren emaitzak lortu diren aztertzeko.

Era berean, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 6.5 c) artikuluarekin bat etorrita, bi urtean behin berrikusiko da iruzur arriskuari buruzko ebaluazioa, eta betiere, prozeduretan edo langileen artean berezko iruzur kasuren bat hautematen denean edo aldaketa garrantzitsuak egiten direnean.

Jarraipen jarduera horiek Arduradun Teknikoak bideratuko ditu, eta besteak beste alderdi hauek izango ditu kontuan:

- Berezko iruzurraren xede izateko arrisku handiena duten neurriak identifikatzea, hala nola intentsitate handikoak, aurrekontu handikoak, eskatzaileak justifikatu beharreko baldintza asko dituztenak, kontrol konplexuak, etab.
- Ustezko interes gatazkak identifikatzea.
- Aurretiazko barne auditoretza lanen emaitzak.
- Europako Batzordearen edo, hala badagokio, Europako Kontuen Auzitegiaren auditoretza lanen emaitzak.
- Lehendik hautemandako berezko iruzur kasuak.

I. ERANSKINA.- EKINTZA PUBLIKOAN ETA EUROPAKO FUNTSEN KUDEAKETAN ZUZENTASUN MEKANISMOAK ETA IRREGULARTASUN ADMINISTRATIBOEN, IRUZURRAREN, USTELKERIAREN ETA INTERES GATAZKEN AURKA BORROKATZEKO MEKANISMOAK INDARTZEKO KONPROMISOAREN ADIERAZPEN POLITIKOA

Adierazpen honen bidez, zuzentasun mekanismoak modu eraginkorrean indartzeko eta, zehazki, irregulartasun administratiboak, iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak modu eraginkorrean borrokatzeko beharrezkoak diren neurriak aplikatzeko konpromisoa hartu nahi da, jokabide eta portaera horiek herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza galtzea baitakarte, eta era berean erakundearen irudia kaltetzen baitute, eta bereziki, baliabide publikoen erabileran eta norakoan ekonomia, eraginkortasuna eta efizientzia printzipioei eragiten baitiete, eta ondorioz ageriko desberdintasun egoerak bultzatzen baitituzte.

Adierazpen honek, gainera, konpromiso politiko eraginkorra izatea du helburu, finantza kudeaketa ona bermatzeko eta Batasunaren finantza interesak zaintzeko Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako Europako funtsen erabileran biltzen diren jardueretan edo finantza baliabideetan, baina baita Europar Batasuneko Urte Askotako (2021-2027) Finantza Esparrutik etorritako gainerako funtsen kasuan ere, baliabide horien norakoa edo kudeaketa partekatua Udal honi baldin badagokio.

Azaldutakoarekin bat etorrita, hauexek aintzat hartu ditu Tokiko Gobernu Batzarrak:

1. 2030 Agendaren Garapen Jasangarriaren Helburuetako bat da erakunde sendo eta inklusiboak izatea Sektore Publikoko erakunde guztientzat.

2. Erakundearen Zuzentasuna da Gobernantza Publikoaren eta, era berean, Gobernu Irekiaren oinarrietako bat.

3. Irregulartasun administratiboek, iruzurrak, ustelkeriak eta interes gatazkek higatu egiten dute erakunde publikoen zilegitasuna, kaltetu egiten dute haien izaera publikoa, eta guztiz urratzen dute herritarrek botere publikoetan duten konfiantza.

4. Jardunbide irregular, arau hausle edo delituzko horiek, erakundearen irudian eta haren izen onean ondorio guztiz kaltegarriak eragiteaz gain, baliabide publikoen galera izugarriak eragiten dituzte, gizartean eta zerbitzu publikoen eskaintzan ondorio ezin okerragoak eragiten dituzte, eta desberdintasuna eragiten dute.

5. Covid 19aren krisialditik aurrera abiarazitako suspertze eta eraldatze ekonomikoak eskatzen du erakunde honek arian-arian zuzentasun estandarrak eta erakundearen azpiegitura etikoak hobetzeko.

6. Europar Batasunaren Zuzenbideak Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuan eta eratorritako zuzenbidean jasotzen du finantza

kudeaketa onaren printzipioa.

7. 2018ko EBren Finantza Erregelamenduak eta Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen Erregelamenduak (EB) aurreikusten dute Estatu kide bateko agintaritza publikoak Batasunaren Aurrekontutik etorritako funtsak kudeatzean Europar Batasunaren beraren finantza interesak babestu behar direla.

8. 36/2020 Errege Lege Dekretuaren 3. artikuluan eta Espainiako Gobernuak Batzordearen aurrean aurkeztu eta bere garaian onartutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean ezarritakoaren arabera, aitortu egiten da, alde batetik, zuzentasun mekanismoak indartzea dela kudeaketa onaren printzipioa, eta bestetik, ezarri egiten ditu hartan finkatutako mugarriak eta helburuak bete behar dituzten egokitzapen neurri eta inbertsio proiektu batzuk.

9. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema onartzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduak erakunde bakoitzak Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoen esparruko Europako funtsak erabiltzean lortzen duen emaitzarekiko konpromisoaren printzipioa jasotzen du.

10. Arauzko xedapen horren arabera, erakundearen zuzentasuna indartzeko edo iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak prebenitzeko, hautemateko eta zuzentzeko mekanismo horiek zeharkako izaera duten printzipio edo irizpide gisa daude jasota Europako funtsak kudeatzeko sisteman, edo EBren Zuzenbidearekin bat etorrita, Europako aurrekontutik etorritako finantza baliabide horien erabileran eta norakoan.

11. Batasunaren finantza interesak jokoan daudenez, Estatu kideetako botere publikoek, eta kasu honetan Udalak, nahitaez hartu behar dituzte eskura dituzten neurri guztiak irregulartasun administratiboak, iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak prebenitzeko, hautemateko zuzentzeko eta jazartzeko.

12. Herritarrek beren zerbitzari publikoen jokabide eta zuzentasun estandarrei buruz egiten dituzten adierazpenak zorrotzagoak dira krisi fiskalaren edo ekonomikoaren testuingurua kontrakoa denean edo zerbitzu publikoek mugak jasaten dituztenean edo zerga presioa emendatzen denean.

Horiek guztiak kontuan harturik, Tokiko Gobernu Batzarrak honako konpromiso hauek hartu ditu bere gain, bere organoen funtzionamenduan, erabakietan eta ekintzetan, eta beren politika, zuzendaritza edo kudeaketa lanak egiten dituzten pertsonen edo funts publikoak jasotzen dituzten pertsonen zuzentasuna sustatzeko eta bermatzeko.

KONPROMISOAK

Lehenengoa. Ahalegin handienaz iruzurraren, ustelkeriaren edo interes gatazken aurka aritu.

Bigarrena. Irregulartasun administratiboen aurka berauek desagertu arte indar

betez jardun, eta behar diren neurri guztien bidez halakoei aurre egin.

Hirugarrena. Udalak onartutako Iruzurraren aurkako Neurrien Planaren eta aldizka egingo zaizkion berrikuspenen bitartez, erakundearen zuzentasunaren kultura bultzatzea.

Laugarrena. Iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak prebenitzeko eta hautemateko jardueran era aktiboan inbertitzea.

Bosgarrena. Erakundeari arian-arian erakundearen zuzentasuna eta jokabide estandar hobeak bultzatuko dituzten tresna eraginkorrak ematea etika publikoari dagokionez.

Seigarrena. Ordezkaritza duten kargu publikoak eta enplegatu publikoak etika publikoan eta erakundearen zuzentasunean sentsibilizatzea eta horien formakuntza ahalbidetzea.

Zazpigarrena. Finantza kudeaketa onaren printzipioaren eraginkortasun osoa bermatzea eta Europar Batasunaren finantza interesak babestea Europako funtsen kudeaketan, erabileran eta norakoan.

Zortzigarrena. Europako funtsak kudeatzeko sistema bat ezartzea, xede nagusia zuzentasun mekanismoak indartzea izango duena.

Bederatzigarrena. Europako funtsak emaitzarekiko konpromisoaren printzipioaren arabera kudeatzea, erabiltzea eta bideratzea, kudeaketa horren organo kudeatzaileak edo arduradunak une bakoitzean ezartzen dituen mugarrietara eta helburuetara egokituz.

Hamargarrena. Zuzentasuna arriskuan jartzen duten jokabideak edo ekintzak berehala zuzentzea, eta kontrol erakundeekin modu aktiboan eta lankidetzan aritzea irregulartasun administratiboak, iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak jazartzeko eta desagerrarazteko.

Donostian, sinatzaileak.

I. ERANSKINA

EUROPAKO FUNTSEN KUDEAKETARAKO ZUZENTASUN PROTOKOLOA

I.-

Europar Batasunaren 2018ko Finantza Araubideak aurreikuspen batzuk ezartzen ditu finantza kudeaketa onaren printzipioa babesteko agintari nazionalek (estatukoak, autonomia erkidegoetakoak eta tokikoak) beren Aurrekontuetatik datozen Batasunaren finantza baliabideen kudeaketa partekatua egiten duten esparru guztietan, eta zabaldu egiten ditu kudeaketa prozesu horietan sor daitezkeen interes gatazken kontzeptua eta aplikazioa.

Bestalde, suspertze eta erresilientzia mekanismoa ezartzen duen Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduak behin eta berriz aipatzen du suspertze tresna horri lotutako Europako funtsen kudeaketan estatu kideek Batasunaren finantza interesak zaindu eta babestu beharko dituztela, bereziki neurriak hartu behar dituztela iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak prebenitzeko, hautemateko eta zuzentzeko. Bereziki garrantzitsua da aipatutako Erregelamenduaren 22. artikuluan jasotako araudia, izan ere, Estatu kideak, eta beraz estatu horiek osatzen dituzten erakunde guztiak, behartuta daude, herrialde bakoitzak aurkeztu behar zuen Suspertze eta Erresilientzia Planaren esparruan, Europako funtsen kudeaketan parte hartzera eta iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak prebenitzeko, hautemateko, zuzentzeko eta aurka egiteko beharrezkoak diren neurri guztiak hartzera.

Era berean, Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko presazko neurriak onartzen dituen abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren 3. artikuluak kudeaketa onaren printzipioak arautzen ditu, printzipio horiek Administrazio Publiko orori aplikatu beharreko oinarrizko arau gisa daude konfiguratuta, eta horien artean dago jasota interes gatazkak, iruzurrak eta irregulartasunak modu eraginkorrean prebenitzeko printzipioa. Lege horren 21.3 artikuluak Iruzurraren aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionalari (IGAE), Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko Kontrol Agintaritza baita, Estatuko Administrazioaren Kontu hartzailetza Orokorrari atxikiriko zerbitzuari, agintzen dio “iruzurraren, ustelkeriaren edo legez kanpoko beste edozein jardueraren aurrean Europar Batasunaren finantza interesak babesteko eginkizunen erabileran” beharrezkoak diren prebentzio, hautemate eta ikerketa lanak sustatu ditzala eta ondorio horiei begira kudeaketa organoekin eduki beharreko harremanak eduki ditzala.

Espainiako Gobernuak aurkeztutako eta bere garaian europar erakundeek onartutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren zati batzuek iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak hautemateko, zuzentzeko eta hala badagokio, jazartzeko neurriak ezartzen dituzte gisa horretako praktika irregularrak prebenitzeko eta horrenbestez Suspertze Planari atxikiriko Europako funtsen kudeaketari dagokionez, halakoak gauzatu daitezen saihesteko edo arintzeko.

36/2020 Errege Lege Dekretuan jasotako aurreikuspenen araubidezko garapenean, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema egituratzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduak arautzen ditu Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kudeaketa printzipio espezifikoak; aitortu egiten du bere zeharkakotasun izaera, eta horien artean espresuki adierazten du honakoa: "Iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak prebenitzeko, hautemateko eta zuzentzeko mekanismoak indartzea”.

Arauzko datu erabakigarria da printzipio horiek bete-betean sartzen direla Europar Batasunetik etorritako baliabideekin finantzatutako proiektuak, azpiproiektuak edo jarduerak egikaritzen dituen edozein erakunde publikok zein pribatuk abiarazi beharreko Europako funtsak kudeatzeko sisteman, tresna horien diseinuan eta kudeaketan irizpide homogeneo batzuk bermatzeko xedearekin. Era berean, Agindu horrek bere 6. artikuluan arautzen du iruzurraren aurkako Plan bat edukitzeko betebeharra “bere jarduera

esparruan bermatu eta adierazi ahal izan dezan dagozkion funtsak arau aplikagarrien arabera erabili direla, bereziki iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak prebenitzeari, hautemateari eta zuzentzeari dagokienez". Aginduaren II B 5 Eranskinak ere, erakunde bakoitzak autoebaluazio galdetegi bati erantzutea aurreikusten du (bertan espresuki islatzen da erakundeak kode etikorik edo jokabide koderik ba ote duen galdera edo itema), eta III C Eranskinak jasotzen du, kultura etiko bat garatzeari dagokionez, prebentziozko neurrien artean "iruzurraren aurreko jokaera kode bat ezartzen dela, interes gatazkak, opariak, konfidentzialtasuna, salaketa bideak (salaketa postontzia eta/edo IGAEren salaketa kanalerako esteka) eta beste alderdi batzuk jaso ditzakeenak".
Zuzentasun mekanismoak indartzeko eskakizuna era berean dago jasota item gisa proiektuen eta azpiproiektuen egikaritzea jarraitzeko eta kontrolatzeko prozesuaren faseetan eta, bereziki, Kudeaketa Txostenean (10. artikulua) eta betetzearen Adierazpenean (12. artikulua), azken horretan espresuki egiaztatu beharko baita, alde batetik, funtsak aurreikusitako xedeetarako erabili direla, eta bestetik, eta bereziki, egikaritze hori burura eraman dela "interes gatazkak, iruzurra eta ustelkeria prebenitzeko araua, eta Suspertze eta Erresilientzia Mekanismotik eta Batasuneko beste programa batzuetatik etorritako finantzazio bikoitza prebenitzeko arauak zorrotz beterik eta finantza kudeaketa onaren printzipioarekin bat etorritik".
Nolanahi ere, erakunde bakoitzaren ezaugarri espezifikoetara egokitu ahal izateko, HFP. 1030/2021 Aginduan jasotako aurreikuspenen edukia zabala da (batez ere prebenitzeko eta hautemateko faseetan) gai honi dagokionez eta nahitaezkoak diren aurreikuspenen kasuetan izan ezik (6. artikulua, 4. eta 5. atalak), eta hartan jasotako salbuespenekin.

II.-
Labur-labur deskribatutako arau esparruan azaldutakoarekin bat etorrita, eta erakunde honek onartutako Zuzentasun eta Iruzurraren aurkako Neurrien Planean ezarritakoaren arabera, Europako funtsak Zuzen Kudeatzeko Protokolo hau landu da: tresna osagarri baten modura egituratzen da (eta zubi gisa Planean kode etiko bat eta jardunbide kode bat edo erakundearen jokabide kodeak onartzeko gaian ezarritzako helburuak betetzen diren artean), erakundean zuzentasun kultura indartzeko xedearekin eta Protokolo honetan Europako funtsen erabileran kudeaketa etikoa eta finantza kudeaketa egokia indartzeko ezartzen diren balioen eta printzipioen interpretazioari eta irismenari begira planteatu daitezkeen arazoei, alderdi etikoei, kexuei edo salaketei unean-uneko erantzuna emateko xedearekin.
Nolanahi ere, tresna honek baditu berezi egiten duten ezaugarri batzuk. Hauexek dira:

a) Zubi tresna da, egungo kode aplikagarria berrikusiz edo etika eta jokabide kode berri bat (edo batzuk) landuz osatu beharrekoa, Europako funtsen kudeaketa eranskin gisa jasoko duena Protokolo honetan ezarritakoari jarraiki.

a) Beraz, tresna osatugabea da; izan ere, balioak eta printzipioak baizik ez ditu ezartzen, baina horien definiziotik abiaturik gainditu egin daitezke erakundeak Europako funtsak erabiltzeko aurreneko urratsetan sor daitezkeen arazoak eta zalantza etikoak.

b) Hala eta guztiz ere, protokolo honek jokabide arau batzuk ezartzen ditu erabaki, zuzendaritza edo lanbide eginkizunak betetzean inpartzialtasun eta objektibotasun bermea eraginkorra izan dadin eta modu horretan interes gatazkak saihestu edo arindu daitezen. Arau horiek estu lotuta daude pertsona horiek opariak, erregaluak edo arreta bereziak jasotzeko mugekin, halakoek aipatutako printzipioen eraginkortasun osoa kaltetu baitezakete.

c) Laburbilduta, azaldutako salbuespena izan ezik, protokolo honek ez du espresuki jasotzen jokabide edo jarduera araurik, baina horietako asko ondorioztatu daitezke balio eta printzipio horiei egiten zaien mugapenetik, eta horrek nabarmen erraztu dezake berme

organoaren interpretazio eta aplikazio lana, aipatutako funtsen kudeaketan Europar Batasunaren finantza interesen babesaren erabateko eraginkortasuna zaintzeko.

d) Nolanahi ere, eta hau garrantzitsua da, erakundeak Europako funtsak kudeatzeko autoerregulazio tresna espezifikoa da, izan ere, berezitasun bat ematen dio kode orokorren aurrean, hauek ezin baitituzte kontuan hartu funtsak erabiltzearen berezitasunak eta esparru horretan biltzen diren printzipio espezifikoak.

Egitura bakuna du Zuzentasun Protokolo honek:
Hasteko, Protokoloaren xedea, izaera eta helburuak azaltzen dira Europako funtsen kudeaketari dagokionez. Bere ezaugarri berezia da ezarri egiten dituela Suspertze Planetik eratorritako jarduerak kudeatzean zer balio etiko eta kudeaketa onaren printzipio hartu behar diren kontuan nahitaez.
Haren aplikazio esparru subjektiboa Europako funtsen erabileran arduradun edo kudeatzaile gisa parte hartzen duten pertsona guztietara hedatzen da; nolanahi ere, esparru hori, dagokionean, Europako funts horietatik eratorritako hartzaileak diren beste erakunde, enpresa, elkarte, eragile edo profesional batzuetara zabal daiteke (kontratistak, emakidadunak, diruz lagundutako erakundeak eta pertsonak, etab.).
Protokoloa, berez, argi eta garbi da autoerregulatzeko tresna bat, eta prebenitzeko helburua du, asmoa baita erakundearen azpiegitura etikoa indartzea, bereziki Europako funtsen kudeaketarekin lotutako guztian. Gainera, kudeaketa zuzentasunean oinarritzea du xede, 2030 Agendan Garapen Jasangarrirako 16. Helburuan ezarritakoarekin bat etorriz, helburu horrek erakunde sendoak eraikitzearen alde egiten baitu.
Bigarrenik, erakundeak eta haren arduradunek eta enplegatu publikoek Europako funtsak kudeatzeko gida gisa balio behar duten Balio etikoak ezartzen dira. Hasteko, balioen kontzeptua, xedea eta helburua azaltzen da, eta jarraian funtsen erabilera gidatzen duten balio nagusiak finkatzen dira. Laburbilduta, sei dira:

- Zuzentasuna
- Eredugarritasuna
- Zintzotasuna eta interesik eza
- Inpartzialtasuna eta objektibotasuna
- Bikaintasun profesionala
- Errespetua eta enpatia

Balio horiek beren irismena zehaztu nahi duten enuntziatu batzuen bidez mugatzen dira, helburua baita hartzaileak orientatzea eta Zuzentasun Batzordeari interpretatzeko eta aplikatzeko jarraibideak ematea planteatu dakizkiokeen alderdi etikoei, dilemei, zalantzei edo kexuei aurre egin behar dienean.
Hirugarrenik, era berean Europako funtsen kudeaketa gidatu behar duten kudeaketa onaren Printzipioak zehazten dira. Printzipioak zer diren eta Europako funtsak erabiltzeko prozesuan zer zentzu eta helburu duten definitu edo mugatu ondoren, sei printzipio ezarri dira, honako hauek, hain zuzen ere:

- Konpromisoa kudeaketaren emaitzekin.
- Finantza kudeaketa ona eta efizientzia kudeaketan.
- Gardentasuna.
- Datu pertsonalak babestea.

- Europako funtsen kudeaketa 2030 Agendarekin eta Garapen Jasangarriarekin lerrokatuta.

- Zuzendaritza eta lanbide erantzukizuna Europako funtsen kudeaketan

Balioekin egin den bezala, printzipio horiek zehaztu edo mugatu egiten dira beren zentzuari eta irismenari dagokienez, Europako funtsak erabiltzeko arduradunei eta kudeatzaileei jarraibideak emateko xedearekin, baina baita Zuzentasun Batzordeak printzipio horiek interpretatu eta aplikatu ahal izateko elementuak izan ditzan Europako funtsen eguneroko kudeaketan eta kudeaketa horren inguruan sor daitezkeen arazoen aurrean.
Laugarrenik, bereziki Europako funtsen kudeaketari dagokionez, erakundeen kultura etikoa indartzeko politikak eta formakuntza ekintzak garatzeak duen garrantziari buruzko irizpide sorta bat ezartzen du Protokoloak, Zuzentasun eta Iruzurraren aurkako Planean ezarritakoarekin bat etorrita.
Bereziki garrantzitsua da Zuzentasun Protokolo honetako bosgarren blokea, Ekonomiako Lankidetza eta Garapenerako Erakundeak (ELGA) bere garaian definitu zuen bezala, zuzentasun instituzionaleko edozein esparruren oinarrizko elementuetako bat aurreikusten baitu: tresna honen aplikazioarekin lotuta planteatzen diren arazo etikoak, dilemak, zalantzak, kexuak edo beste edozein kontsulta edo intzidentzia ebazteko mekanismoaren eta prozeduren artikulazioa.
Baina, aldi berean, jokoan dauden Batasunaren finantza interesen garrantzia kontuan hartuta, salaketak egiteko barne kanal bat egituratu da, eta esparru horri dagokionez bederen, konponbide iragankor bat eman nahi zaie salataria babesteko 2019/1937 (EB) Zuzentarautik eratorritako betebeharrei. Zuzentarau horren transposizioa eta eraginkortasuna beranduenez ere 2021eko abenduaren 17rako egongo zen prest. Neurri horiekin, erakundeak bere egiten du barne kanal horren sorrera, ezinbestekoa baita finantza kudeaketa onaren printzipioa betetzeko eta Batasunaren finantza interesak babesteko.
Ez du garrantzi txikiagorik seigarren atalak, izan ere, Protokolo honen berme organo gisa jardungo duen Zuzentasun Batzorde baten aurreikuspena du helburu, Europako funtsen eguneroko kudeaketari balioak eta printzipioak erabat aplikatzen zaizkiola bermatzea xede duten eskuduntzen zerrenda zabalarekin; baina, era berean, antolakuntzaren edo erakundearen ekonomiaren ageriko arrazoiak direla eta, Zuzentasun Batzorde horrek salaketak egiteko barne kanal gisa jardungo du eta horretarako sor daitekeen postontzia kudeatuko du.

I.- ZUZENTASUN PROTOKOLOAREN XEDEA, IZAERA ETA HELBURUAK EUROPAKO FUNTSEN KUDEAKETAN

1.- Xedea

Europako funtsak kudeatzeko prozesuetan esku hartzen duten pertsona arduradunek, kudeatzaileek eta langileek beren egin beharreko balio etikoak eta kudeaketa onaren printzipioak ezartzen ditu protokolo honek, finantza kudeaketa onaren printzipioa bermatzeko eta prozedura horietan Europar Batasunaren finantza interesak zaintzeko xedearekin.

2.- Protokoloaren aplikazio esparrua

2.1.- Erakundeari esleitutako Europako funtsak kudeatzeko prozeduretan beren eginkizunak partzialki edo erabat betetzen dituzten funtzionarioei edo enplegatu publikoei eta erantzukizun eginkizunak betetzen dituzten pertsonei aplikatuko zaie kode hau.
2.2.- Era berean, jokabide arauei dagokienez eta inpartzialtasuna eta objektibotasuna bermatze aldera, lizitatzaileei, kontratistei, azpikontratistei eta dirulaguntzen deialdietan

parte hartzen dutenei aplikatuko zaie, baita kontratazio publikoko prozesuetan eta Europako funtsen kudeaketaren esparruan garatzen diren dirulaguntzen prozesuetan esku hartzen duten kanpoko adituei ere.

3.- Protokoloaren izaera

3.1.- Protokolo hau prebentziozko autorregulazio tresna gisa onartu da Europako funtsen kudeaketan zuzentasun mekanismoak indartzeko.

3.2.- Izaera iragankorra izango du protokolo honek, erakundeak jokabide eta jarduera arauen bidez balioak eta printzipioak garatuko eta jasoko dituzten jokabide kodeak onartu arte edo, hala badagokio, aplikagarria izango den kodea, eranskin gisa jasoko dena, egokitu arte. Helburu hori betetzen den bitartean, kode honetan jasotako balioak eta printzipioak aplikatuko dira, berme organoak zehaztutako moduan, kasu bakoitzean aplikatzekoak diren legezko eta arauzko aurreikuspenak alde batera utzi gabe.

3.3.- Erakundearen azpiegitura etikoa funtsean proaktiboa, prebentziozkoa eta hobetzekoa denez, protokolo honek berezko orientazio axiologikoa du, eta erabakiak hartzen dituzten pertsonengan balio publikoak indartzeko eta jarduera profesionaletan deontologia profesionala indartzeko helburu argia du. Era berean, finantza kudeaketa onaren printzipioa eta Europako funtsen kudeaketan Batasunaren finantza interesak babesteko helburua du.

3.4.- Zuzentasun mekanismoak indartzeko zeharkako elementu gisa txertatu da protokolo hau Europako funtsak kudeatzeko sisteman.

3.5.- Protokolo hau egituratzen duten balioek eta printzipioek Europako funtsen arduradunen eta kudeatzaileen berri emango dute erakunde honetan, eta horien jokabideak eta jarduerak balio eta printzipio horietara egokitzen diren aztertu ahal izango du berme organoak, eta hala badagokio, beharreko zuzenketa neurriak proposatuko ditu.

4.- Helburua

4.1.- Europako funtsen kudeaketan zuzentasun mekanismoak indartzea eta erakundean eta arduradunen eta kudeatzaileen eginkizunetan azpiegitura etiko baten garapena sustatzea ditu helburu protokolo honek.

4.2.- Arduradunek eta kudeatzaileek beren eginkizunetan lagunduko dute Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko ekintza guztietan emaitzarekiko konpromiso printzipioa bete dadin, eta era berean sustatuko dute ingurumena babestea eta hobetzea eta 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburuak betetzea.

4.3.- Europako funtsen kudeaketari dagokionez, hauexek dira protokolo honen onarpenaren helburuak:

Erakundean azpiegitura etiko bat garatzea, bere zerbitzura dauden langileen eredugarritasuna, objektibotasuna eta bikaintasuna nabarmendu eta sakonduko dituena beren eginkizunak eta zereginak betetzean, finantza kudeaketa onaren printzipioaren bidez.

a) Arduradunen eta kudeatzaileen orientazio profesionalerako gida izatea, beren zereginak gauzatzean protokolo honetan jasotako balioak eta printzipioak barneratuz eta aplikatuz.

b) Arduradunen eta kudeatzaileen inpartzialtasun, profesionaltasun, zuzentasun eta zerbitzu irudia indartzea.

II.- BALIO ETIKOAK EUROPAKO FUNTSEN KUDEAKETAN

A. BALIO ETIKOAK

5.- Balio Etikoak. Kontzeptua.

5.1.- Protokolo honetan jasotako balioek arduradunen eta kudeatzaileen erabakiak eta jarduera profesionalak gidatzen eta bideratzen dituzte Europako funtsak erabiltzean, helburua baita kudeaketa eraginkorra eta efizientea bideratzea, finantza kudeaketa onaren

printzipioan oinarrituta Europar Batasunaren interesak babesteko, erakunde honek kudeatzen baititu Batasunaren baliabideak.
5.2.- Erakundeko arduradunek eta langileek kode honetan jasotako balioak txertatu beharko dituzte erabakiak hartzeko prozesuetan, beren jarduera profesionalaren garapenean eta Europako funtsen erabilerarekin lotuta kasu bakoitzean aplikatzen diren prozeduretan edo kudeaketa sistemetan.
5.3.- Protokolo honetan ezarritako balioek funtsean honako helburu hauek izango dituzte:
a) Finantza kudeaketa onaren, Europar Batasunaren finantza interesen babesaren eta kudeaketaren emaitzekiko konpromisoaren printzipioak bermatzea.
b) Europako funtsen kudeaketan bikaintasuna eta objektibotasuna lortzea erakundearen estandar etikoak eta emaitzak hobetzeko.
c) Beren erantzukizunen, lanpostuen edo enplegu funtzionalen eginkizunak eta zereginak estandar etiko handiekin garatzea, baliabide publikoak alferrik galtzea saihesteko eta erakundeetan konfiantza publikoa indartzeko.

6.- Balio Etikoen zerrenda eta definizioa.
Europako funtsen erabileran parte hartuko duten arduradunek eta kudeatzaileek honako Balio Etiko hauetara egokitu behar dute beren jokabide profesionala:
6.1.- *Zuzentasuna*.
ELGAren hitzetan, erakundeak berak ezarritako balio etiko komunei atxikitzean datza zuzentasuna, eta interes pribatuen aurrean interes publikoa babesteko, mantentzeko eta lehenesteko printzipio eta arau multzo batean gauzatzen da. Esparru publikoan, eta zehazki Europako funtsen kudeaketan, balio handia du zuzentasunak finantza kudeaketa ona bideratzeko eta Europar Batasunaren finantza interesak babesteko. Europako funtsen arduradunen eta kudeatzaileen jokabide etiko guztiz zuzenak kudeaketaren emaitzak zaindu ez ezik duindu egiten du jarduera publikoa, eta erakundearen irudia eta izen ona eta erakundearekiko konfiantza publikoa nabarmentzen ditu. Zuzentasunak esan nahi du arduradunek eta kudeatzaileek ezin izango dutela oparirik, erregalurik, ekitaldietarako gonbidapenik edo beren eginkizunak betetzean objektibotasunari eta inpartzialtasunari eragin diezaiekeen beste ezer jaso. Zuzentasun Batzordeak kasu bakoitzean edo jarraibideen bidez mugatuko du zer zenbateko eta zer kasutan onar daitezkeen opariak, erregaluak edo gonbidapenak, betiere Europako funtsen erabileraren kudeaketa egokia eragotzi gabe eta erakundearen etika edo jokabide kodeak ezartzen duenari kalterik egin gabe.
6.2.- *Eredugarritasuna*.
Europako funtsen kudeaketaren esparruan, eragin handia du erakundearen irudian eta izen onean kargu publikoen, zuzendariaren eta enplegatu publikoen jarduerak, Bereziki, ardura handieneko eginkizunak eta zuzendaritzako edo buruzagitzako eginkizunak bideratzen dituztenen jarduerak aitzindaritza etikoan oinarritua egon behar du, hala jokabidean nola kudeaketan. Ondorioz, jokabide eredugarriak gidatuta egongo dira langileen jokabide publiko guztiak, bereziki haien erantzukizuna edo jarduera profesionala bideratzen dutenean, baina baita salbuespenez eremu publikora heda daitezkeen jokabide pribatu guztiak ere. Erakundearen irudia kaltetzen duten edo erakundearen izen ona suntsitzen edo kaltetzen duten eredugarritasun falta guztiak protokolo honetako berme organoak proposatzen duenaren arabera zuzendu beharko da, hala badagokio.
6.3.- *Zintzotasuna eta interesik eza*
Europako funtsak erabiltzeko arduradunek eta kudeatzaileek egiazki eta gardentasunez beteko dituzte beren erantzukizunak, eta soil-soilik interes publikoa erabat betetzera, finantza kudeaketa egokira eta emaitzak betetzeko konpromisora zuzenduko dute beren jarduera, betiere Batasunaren finantza interesak zainduz beren jardueretan. Beren eginkizunen eta beste interes publiko eta pribatu batzuen artean interes gatazkarik edo

itxura bateko gatazkarik sortuz gero, protokolo honen aplikazio esparruko langileek berehala jakinarazi beharko diote hierarkian gorago dagoenari, eta honek txostena egiteko eskatuko dio Zuzentasun Batzordeari. Batzordeak balizko gatazkari buruzko proposamen bat eta, hala badagokio, hartu beharreko neurriei buruzko proposamen bat landuko du. Batzordearen iritziz benetako edo balizko edo itxurazko gatazkak kaltetuta gertatzen denak ez du parte hartuko, ez zuzenean ez zeharka, dagokion prozeduran edo hartu beharreko erabakietan. Hierarkian gorago dagoena soilik arrazoitutako ebazpenaren bidez bereizi ahal izango da egindako proposamenetik. Protokolo honen aplikazioaren mende dagoen langileak Zuzentasun Batzordeari helarazi beharko dio, horretarako ezartzen diren kanalak erabiliz, izan ditzakeen interes gatazken aurrean planteatzen zaion edozein zalantza.

6.4.- Inpartzialtasuna eta objektibotasuna.

Inpartzialtasuna premisa existentziala da sektore publikoaren esparruan funtzioak eta zereginak behar bezala garatzeko, eta bereziki, Europako funtsak kudeatzen direnean, eta prozesu hori norgehiagokako administrazio prozeduren bidez bideratzen da. Nolanahi ere, inpartzialtasunak bere zentzu osoa hartzen du funtzionarioek eta enplegatu publikoek bideratzen duten kudeaketan, eta Europako funtsen erabilerak beti egon behar du oinarrituta objektibotasunean. Beraz, Protokolo honen mende dagoen langileak bideratzen duen jarduera profesionalak urrun egon beharko du eragin eta orientabide politikoetatik, familiakoetatik edo lagunengandik, baita interes profesional edo pertsonaletatik edo beste izaera bateko interesetatik ere. Inpartzialtasuna eta objektibotasuna bereziki zainduko dira interes gatazkarik ba ote den haztatu behar denean, betiere Protokolo honetan azaldutakoaren eta Zuzentasun eta Iruzurraren aurkako Neurrien Planean jasotakoaren arabera. Era berean, protokolo honen aplikazio esparruaren mendeko langileek beren eginkizun publikoak betetzean, interes orokorrak betetzeak eskatzen duen objektibotasuna erabat errespetatuz jardun beharko dute, eta beraz, une oro lehia askearen printzipioak zainduz. Objektibotasun hori bereziki handia izango da, kontratazio publikoko edo dirulaguntzen prozeduretan eta langileak kudeatzeko prozesuetan Protokolo honen mendeko langileek parte hartu behar dutenean eta erakundeak erabaki jakin batzuk hartzean inpartzialtasun bermea bereziki eskatzen duten prozeduretan, kasu bakoitzean aplikatzekoa den araudiaren arabera.

6.5.- ***Bikaintasun profesionala.***

Europako funtsak kudeatzeko eginkizunak, bai bere espezializazio esparruagatik, bai finantza eta kudeaketa inplikazio garrantzitsuengatik, beren profesionaltasuna eta talentua egiaztatuta duten zuzendari eta enplegatu publikoek gauzatu beharko dituzte, bai eta kudeaketaren arlo horretako ezagutzak eta trebetasunak egiaztatzen dituzten edo horretarako prestakuntza esplizitua jaso duten langileek ere. Irizpide horiek kontuan hartu beharko dira arlo honetako erantzukizunak aukeratzean edo esleitzean. Halaber, profesionalizazio eta zintzotasun irizpideen arabera beteko dira eginkizunak eta zereginak. Lanpostuak hornitzeko edo zuzendaritzako kideak edo arduradunak hautatzeko, kontuan hartuko da erakunde barruan dagoen talentua. Horretarako, protokolo honen mende dauden langileek etengabe garatuko eta hobetuko dituzte beren gaitasun profesionalak, eraldaketa funtzionalaren eta teknologikoaren eskakizunetara egokituko dituzte beren ezagutzak eta gaitasunak erakundeak diseinatzen dituen formakuntza programen bidez, haien profil profesionala optimizatzeko, zaharkitzea saihesteko eta beren lanpostuei esleitutako eginkizunak eta zereginak behar bezala betetzeko helburuarekin. Era berean, emaitzen ebaluazioaren mende egongo da lan profesionala. Kudeaketaren emaitzarekiko konpromisoaren printzipiotik abiatuta, helburuak betetzea saritzen duen ordainsari osagarri bat egongo da, plan estrategikoan xedatutakoaren arabera.

6.6.- Errespetua eta enpatia.

Protokolo honen mende dauden langileek, Europako funtsen kudeaketaren arloan dituzten eginkizunak eta zereginak betetzean, errespetu eta adeitasun osoz jokatuko dute

erakundeko gainerako pertsonekiko harremanetan eta hornitzaileekiko edo beste kolektibo batzuekiko harremanetan. Bizikidetza, elkartasuna eta tolerantzia erabat gailenduko diren laneko giroa, giro pertsonala eta profesionala sustatuko da, eta elkarrekiko errespetua, aniztasuna eta profesionalen arteko lankidetza bultzatuko da. Pertsona orok merezi duen adeitasuna, zuzentasuna, behar bezalako errespetua eta duintasuna izan behar dira protokolo honen mende dauden langileen jardueren ardatzak. Protokolo honen mende dauden langileek, ez dute mespretxuzko hitzak edo edozein motatako diskriminazio praktikak erabiltzea dakarren jokabiderik edo portaerarik izango (bereziki genero arloan, baina baita sinesmen, ideologia, joera sexual, arraza, desgaitasun edo beste edozein arlotan ere).

III.- EUROPAKO FUNTSAK KUDEATZEKO PRINTZIPIOAK

7.- Kudeaketa printzipioak: kontzeptua.

Europako funtsen kudeaketaren esparruko kudeaketa printzipioek zuzentarau multzo bat osatzen dute, eta zuzentarau multzo horren helburua da gida edo orientabide izatea funts horien erabileran proiektatzen diren politika, zuzendaritza edo kudeaketa erantzukizunen ondoriozko eginkizunak eta zereginak betetzeko. Izan ere, helburu nagusia da erakundeak gauzatzen dituen proiektuen edo azpiproiektuen mugarrietan eta xedeetan programatutako emaitzak eta helburuak betetzea edo lortzea, eta hala badagokio, esleitutako eginkizunak betetzean kalitatearen eta efizientziaren arloetan berrikuntza prozesuak eta etengabe hobetzekoak sustatzea; proposamen horiek emaitzekiko konpromisoaren printzipioan eta finantza kudeaketa onaren printzipioan oinarrituko dira beti.

8.- Kudeaketa printzipioen zerrenda.

Hauexek dira erakundearen zerbitzura ari diren langileen jarduera profesionalak ardatz izango dituen kudeaketa printzipioak:

8.1.- Kudeaketa emaitzekiko konpromisoaren printzipioa.

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistemaren esparruan erabili behar dira Europako funtsak, eta beraz, kudeaketa emaitzekiko konpromisoaren printzipioa izango dute ardatz, eta horien helburuak funts horiek erabiltzeko ardura duten unitate administratiboetako arduradunek ezarriko dituzte haiek ezartzen dituzten gidalerroei eta helburuei jarraiki, kasu bakoitzean finkatutako helburuak eta mugarriak betetzeko. Zuzendaritzako langileek eta langile publikoek Europako funtsak kudeatzen dituztenean, erakundeak ezarritako irizpideen arabera ebaluatu beharko da lan hori. Nolanahi ere, kudeaketaren emaitzak harmonizatu egingo dira dira finantza kudeaketa onaren printzipioa erabat betetzearekin eta Europar Batasunaren finantza interesak babestearekin.

8.2.- Finantza kudeaketa ona eta efizientzia kudeaketan.

Europako funtsen esparruko kudeaketa ekonomikoak finantza kudeaketa onaren printzipioa izango du ardatz. Printzipio hori kudeaketa eraginkor eta efiziente batean islatzen da, bat dator Batasunaren finantza interesekin, eta, nolanahi ere, guztiz lerrokatuta egongo da termino berberetan formulatzen den kudeaketa teknologikoarekin edo digitalarekin, eta arreta berezia jarriko da Administrazioaren baliabideen, bereziki Administrazioaren baliabide teknologiko eta materialen, erabilera desegokia eta alferrikako xahutzeak saihesteko. Efizientzia helburu hori planifikazio estrategikoko eta operatiboko prozesuen eta berrikuntzako eta etengabeko hobekuntzako prozesuen bidez sustatuko da, eta horretarako proiektuen eta lortutako helburuen ebaluazioa egingo da, bai eta zuzendariek eta langile publikoek Europako funtsak kudeatzeko sistemaren arabera burututako zereginen garapenaren ebaluazioa ere.

8.3.- Gardentasuna.

Europako funtsak kudeatzeko jardueraren funtsezko zatia da gardentasunaren kultura. Beraz, funts horiek kudeatzeko sistema osatzen duen printzipioa da gardentasuna, gaur egungo arau esparru orokorrean eta kontratazio publikoaren, dirulaguntzen, ekonomia eta finantza esparruaren eta langileak kudeatzeko esparruaren berezko araudian finkatutakoarekin bat etorrita. Gardentasuna funtsezkoa da Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren osagairen bati lotutako proiektu, azpiproiektu edo jardueren kudeaketan kontuak ematean. Protokolo honen mende dauden langileen jarduera profesionalaren ardatza izango da beren eginkizunak eta zereginak gardentasun printzipioaren arabera betetzea. Nolanahi ere, bereziki sustatuko da gardentasuna kontratazio publikoko prozeduretan, dagokion legedian finkatutakoarekin bat etorrita.

8.4.- ***Datu pertsonalak babestea.***

Europako funtsen kudeaketak berekin ekarriko du, kasu jakin batzuetan, datu pertsonalen erabilera masiboa edo datu pertsonalen gurutzaketa, administrazio irregulartasunen, iruzurraren, ustelkeriaren edo interes gatazken balizko kasuak aztertzean edo ikertzean, batez ere praktika edo patologia horiek hautematen direnean. Datu pertsonalak eskuratzeko, datuen babesaren arloan indarrean dagoen araudia bete beharko da beti (Datuak Babesteko Araudi Orokorra eta Datu Pertsonalak Babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko Lege Organikoa). Iruzurrak hautemateko datu baseen erabilera, esate baterako Dirulaguntzen Datuen Base nazionalaren (BNSD), Gizarte Segurantzaren datu baseen eta Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren datu baseen erabilera, besteak beste, arau esparru horrek berak babesten du, betiere erabilera horren helburuak interes publikokoak badira. Era berean, datuak aztertzeko edo arriskuak neurtzeko tresnen erabilera (ARACHNE, DAISY, etab.) datuak babesteko Europako eta Estatuko araudian jasotako printzipio eta arauetara egokitu beharko da, hori guztia alde batera utzi gabe, arrisku ikuspegi baten premisen arabera, tratamendu jardueren erregistro egokiak ezarri behar direla, segurtasun neurri egokiak eta ezin hobeak hartu behar direla, datuak babesteko ordezkariaren jardueraren garapena bermatu behar dela prozesu horiek indarrean dagoen araudiarekin bat datozela bermatzeko, arriskuak behar bezala aztertu behar direla, eta, hala badagokio, eraginari buruzko ebaluazioak egin behar direla.

8.5.- Europako funtsen kudeaketa eta 2030 Agenda.

Era berean, Garapen Jasangarrirako Helburuak beteko ditu Europako funtsen kudeaketak, eta bereziki, eragin ekologikoa minimizatzen eta ingurumena eta bioaniztasuna babesten laguntzen duten helburu guztiak beteko ditu. Trantsizio berdeak, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren zutabeetako bat baita, gidatuko du ardatz horretan biltzen diren Europako funtsen arduradunen eta kudeatzaileen jardueren garapena. Era berean, Protokolo honen mendeko langileek Garapen Jasangarrirako Helburuak betetzen lagunduko dute, eta horretarako jarduera sozialki arduratsua bideratuko dute, enplegua, aniztasunaren bermea eta garapen jasangarria sustatuko dute 2030 Agendan jasotakoari jarraiki, bereziki kontratazio publikoari, dirulaguntzei, erakundearen beraren esparruan enplegua sortzeari eta lankidetza formula publiko-pribatuei dagokienez. Era berean, Europako funtsekin finantzatutako Suspertze Planaren araberako Osagaien proiektuen, azpiproiektuen edo jardueren kudeaketak bereziki kontuan izango ditu lurralde eta gizarte kohesioa eta genero berdintasuna eraginkor bihurtzeko egin beharrekoak.

8.6.- Zuzendaritza eta lanbide erantzukizuna Europako funtsen kudeaketan

Beren eginkizunak betetzean, Europako funtsen kudeaketan parte hartzen duten zuzendariek eta enplegatu publikoek zuzendaritza edo lanbide erantzukizun osoz jardungo dute, hurrenez hurren. Zuzendaritza edo lanbide erantzukizunak berekin dakar dedikazio berezia esleitutako eginkizunetan, betiere kudeaketa, prozedura edo tramite bakoitzak berekin dakartzan interes eta posizioak baloratuz, edozein proposamen edo txosten arrazoituz, eta, nolanahi ere, eginkizun horiek behar ez bezala gauzatzearen ondorioak eta bere jokabidearen ondorioak ere bere gain hartuz. Zuzendariek eta enplegatu publikoek bideratutako kudeaketa lanak Agintari Arduradunek eta Kudeaketa Agintariek

ezarritako jarraipenaren mende egongo dira, bai eta mugarriak eta helburuak betetzeko aldizkako txostenak eta ebaluazioak egitearen mende ere, eta, nolanahi ere, Europako funtsak kudeatzen dituzten administrazio unitateetako arduradunek kontuak eman beharko dituzte dagozkien Kudeaketa eta Betetze Txostenetan azaldutakoaren arabera, bereziki aurreikusitako helburuak lortu ez badira. Era berean, funts horien erabileran sortu ahal izan diren gorabeheren aurrean erantzungo dute, bereziki, irregulartasunak, iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak prebenitzeari, hautemateari eta zuzentzeari dagokienez.

IV.- JOKABIDE ARAUAK, SOILIK INPARTZIALTASUN ETA OBJEKTIBOTASUN BALIOEKIN LOTUTAKOAK INTERES GATAZKEI DAGOKIENEZ

9.- Inpartzialtasun eta objektibotasun balioekin lotutako jokabide arauak, Europako funtsak erabiltzeko zereginetan ordezkaritza kargudunei eta enplegatu publikoei egiten zaizkien opari, erregalu edo arreta bereziei dagokienez eta sor daitezkeen interes gatazkei dagokienez.

9.1.- Europako funtsetatik etorritako baliabideei eman beharreko erabilera eta helburua erabakitzeko prozesuetan parte hartzen duten ordezkaritza kargudunek eta enplegatu publikoek honako jokabide arau hauek beteko dituzte beren eginkizunetan:

a) Kontratazio publikoko organoetan parte hartzen dutenek edo parte har dezaketenek inolaz ere ez dute onartuko zuzenean edo zeharka lizitazio prozesuetan parte hartzen duten edo parte har dezaketen edo Udal Administrazioaren hornitzaileak izan daitezkeen pertsonen, enpresen edo erakundeen opariric, erregalurik edo edozein motatako arretarik.

b) Aurreko lerroaldean aurreikusitako kasuan, opariak, erregaluak edo, hala bada, arretak, materialak baldin badira, berehala itzuliko zaizkie halakoak eskaini dituzten pertsonei, enpresei edo erakundeei, edo, edozein eratako arretak badira, arbuiatu egingo dira. Oparia itzultzea ezinezkoa bada, Udaletxeko bulegoetan utziko da opariarekin zer egin erabakitzen den arte. Opari, erregalu edo arretatzat hartuko dira edozein motatako onura pertsonalak, baldin eta lehentasunezko tratua eta tratu bereizia badakarte, eta bere ondarera itzultzen badira edo objektiboki justifikatu gabeko abantaila bat badakarte kargu publikodunaren, funtzionarioaren edo enplegatu publikoaren alde, erakundetik kanpoko hirugarren pertsonen edo erakundeen jarduera baten ondorioz.

c) Funts horien kudeaketaren erabileran edo norakoan parte hartzen dutenek edo parte har dezaketenek ere, betiere kontratazio organoetan parte hartzen ez badute edo parte hartzerik ez badute, ezin izango dute edozein kontratu motaren bidez Udal administrazioaren hornitzaileak izan daitezkeen pertsona, enpresa edo erakundeetatik iritsi daitekeen opari, erregalu edo arreta berezirik onartu. Soilik gizarte usadioei dagozkien opariak, erregaluak eta arretak onartu ahal izango dira, baldin eta Europako funtsetatik etorritako baliabideekin zuzenean edo zeharka faboratu ez diren pertsonek enpresek edo erakundeek emandakoak badira eta beren senideak edo izatezko bikotekideak onuradunak ez badira.

d) Aurreko arauaren aplikazio esparru subjektiboa mugatzeko, kontuan edukiko da Europako Batzordearen 2021/C 121/01 Komunikazioan interes gatazken kudeaketarekiko Orientabideei buruz ezarritakoa.

9.2.- Udal ordezkaritza kargudunek eta enplegatu publikoek Europako funtsak erabiltzean sor litezkeen interes gatazkak Europar Batasuneko Finantza Erregelamenduaren 61. artikuluan ezarritakoa betez ebatziko dira euren irismenari eta aurreikuspenei dagokienez, eta era berean Batzordearen 2012/C 121/01 Komunikazioan ezarritakoaren arabera interpretatuko da haren irismena.

9.3.- Aurreko arauen aplikazioari eta irismenari buruzko edozein zalantza Protokolo honetako VI. atalean ezarritako kanalen bidez eta berme organoaren aurrean planteatuko da.

IV.- FORMAKUNTZA ETA ZUZENTASUN PROTOKOLOAREN ZABALKUNDEA

10.- Sustapena, zabalkundea eta zuzentasunarekiko formakuntza etengabeko formakuntza programetan

10.1.- Erakundeak urtero bideratuko ditu formakuntza ekintzak etengabeko formakuntza programetan, aurrez aurrekoak, erdipresentzialak edo birtualak, Protokolo honi zabalkundea emateko, eta batez ere zuzentasun publikoarekiko formakuntza bideratuko da, arreta berezia jarririk kontratazio publiko, dirulaguntza, kudeaketa ekonomiko eta finantzario eta langileen kudeaketa arloetan Europako funtsen erabilerari dagokionez.

10.2.- Era berean, urtero sustatuko dira tailerrak, hitzaldiak edo dibulgaziozko jarduerak egiteko ekintzak, hain zuzen ere esparru publikoan alderdi etikoak edo zuzentasun kontuak, interes gatazkak eta ustelkeriaren aurkako borroka aztertzeko xedea izango dutenak.

11.- Erakundean zuzentasun politika txertatzeko eta hari zabalkundea emateko beste sistema batzuk.

11.1.- Aurreko ataletan aurreikusitako neurriak alde batera utzirik, erakundearen azpiegitura etikoa bere osotasunean hobetzeko, batez ere Europako funtsen kudeaketari dagokionez, protokolo honen edukiaren zabalkundea ahalbidetuko duten neurri osagarri guztiak sustatuko dira, baita prebentziozko kultura edo arrisku esparruen definizioa zehazten laguntzen duten horiek ere, erakundearen zuzentasuna babesteko eta haren izen ona bermatzeko.

11.2.- Nolanahi ere, Protokolo honen edukiari bitarteko elektronikoen bidez eta erakundean Web orriaren bidez emango zaio zabalkundea.

V.- ALDERDI ETIKOAK, KEXUAK ETA SALAKETAK EBAZTEKO BARNE KANALAK ETA PROZEDURAK

12.- Kanalak, zirkuituak edo prozedurak sortzea Europako funtsen kudeaketarekin zerikusia duten alderdi etikoak edo, hala badagokio, kexuak eta salaketak ebazteko.

12.1.- Zuzentasun eta Iruzurraren aurkako Neurrien Planean finkatutakoarekin bat etorrita, Erakundeak beharrezko prozedurak, kanalak eta bideak ezarriko ditu, protokolo honetan jasotako balio eta printzipioen interpretazioaren eta irismenaren inguruan eta horiek erkatzearen eta Europako funtsen erabilerarekin lotutako jokabide, gertakari edo inguruabarrei aplikatzearen inguruan sor daitezkeen izaera bereko alderdi etikoak, arazoak edo dilemak izapidetzeko.

Nolanahi ere, 2019/1937 Zuzentarauarekin bat etorriz eta Protokolo honetan xedatutakoaren arabera, erakundeak salaketak egiteko barne kanal bat izango du, eta arau xedapen horretan jasotako eskakizunetara eta transposizioa egiten duen legedi eskudunak zehaztutako beste batzuetara egokituko da.

12.2.- Ahal dela, bitarteko elektronikoen bidez bideratuko dira prozedura, kanal edo bide horiek, 2019/1937 Zuzentarauan finkatutako modalitateei kalterik egin gabe.

12.3.- Zuzentasun Batzordearen aurrean planteatuko dira alderdi teknikoak, kontsultak, dilemak, kexuak eta salaketak.

12.4.- Alderdi etikoak, kontsultak, dilemak eta kexuak konfidentzialak izan daitezke haien edukiaren eta planteatzen dituen pertsonaren arabera.

13.- Europako funtsen kudeaketarekin lotutako salaketen tramitazioa 2019/1937 (EB) Zuzentarauaren arabera eta salataria babesteko neurriak.

13.1.- 2019/1937 (EB) Zuzentarauan ezarritakoarekin bat etorrita planteatzen diren salaketak, Europako funtsen kudeaketarekin lotutakoak, ustez Protokolo honetan jasotako balioak eta printzipioak ez betetzeagatik edo ez egiteagatik sortutakoak, baita legezko betebeharrak ez betetzeagatik sortutakoak ere, ezinbestean tramitatuko dira aipatutako Zuzentarauan eta Zuzentasun Batzordeak horretarako garatuko duen barne Arautegian jasotako edozein formatan.

13.2.- Batzordeak unean-unean egingo du salaketa horien gaineko jarraipena, une oro zainduko ditu salatariaren konfidentzialtasuna eta jardueren sekretua, eta bitarteko berbera erabiliz erantzungo du berehala, behar bezala arrazoituta eta, edozein kasutan, gehienez ere hiru hilabeteko epean edo, hala badagokio, araudi aplikagarriak finkatzen duen epean.

13.3.- Postontzi elektroniko bat izango da kexu eta salaketa horiek izapidetzeko, kudeaketa ondorioei begira aurreko atalean ezarritakoarekin bateratu ahal izango dena, baina salaketa horiek 2019/1937 Zuzentarauan finkatutako edozein kanalen bidez ere aurkeztu ahal izango dira, Zuzentasun eta Iruzurraren aurkako Neurrien Planak aurreikusten dituen bitartekoen eta erakundeen bidez.

13.4.- Zuzentasun Batzordeak salaketen erregistroa egingo du, eta Datuak Babesteko Araudi Orokorrean eta Datu Pertsonalak Babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko Lege Organikoan finkatutako eskakizunetara egokituko da. Salaketa edo kexua izenik gabea bada, Batzordeak beharreko neurriak hartuko ditu hura izapidetzeko edo artxibatzeko, garapen araudiak salaketa izengabeak onartzen dituenean izan ezik.

13.5.- Salaketak egiteko barne kanalak 2019/1937 (EB) Zuzentarauan jasotako baldintzak beteko ditu, eta behar bezala babestuko du salataria. Era berean, Europar Batasuneko Zuzenbidean eta barne Zuzenbidera ekarritako arauetan aurreikusitako berme guztiak zainduko ditu.

13.6.- Salaketak aurkezteko erakundeko barne kanal horrek, Europako funtsen kudeaketari dagokionez, gutxienez honako ezaugarri hauek izango ditu:

a) Egiazki kanal eraginkorra izango da.
b) Salaketak aurkezteko kanal baten sorrera txertatuko du erakundearen Zuzentasun eta Iruzurraren aurkako Neurrien Planean irregulartasunak, iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak hautemateko eta zuzentzeko neurrien baitan.

c) Prozedurei eta emaitzei dagokienez, salaketak aurkezteko barne kanala eraginkorra, inpartziala eta efizientea izatea bermatuko du.

d) Kanpo kanalen aurretik salaketak aurkezteko barne kanala lehenetsiko da, alde batera utzi gabe kanpo kanal horiei buruzko informazioa eta horien osagarritasunari buruzkoa eman behar dela (Web bidez, Kontratatzaileren Profilaren bidez edo beste edozein bitartekoren bidez). Era berean berehala jakinaraziko zaizkie Iruzurra Koordinatzeko Zerbitzu Nazionalari eta Agintaritza Arduradunari, edo, hala badagokio, Fiskaltzari, larria izan daitezkeelako edo delitu izan daitezkeelako salbuespenezko neurriak hartzeko, jazartzeko eta, hala badagokio, horien gaineko jarraipena egiteko eskatzen duten salaketa guztiak.

e) Europako funtsen kudeaketaren arloko barne kanala erakundearen salaketak kudeatzeko sistema batean txertatuko da, erakundearen azpiegitura etikoa hobetzeko helburuarekin.

f) Datuen Babeserako Organu Delegatuari esleituko zaio salaketak aurkezteko barne kanalaren eta izapidetze eginkizunen kudeaketa, batzorde hori baita salaketak aurkezteko barne kanal hori kudeatzeko 2019/1937 Zuzentarauak eskatzen dituen inpartzialtasun, profesionaltasun eta gaitasun nahikoaz hornitutako organoa.

g) Salaketen gaineko jarraipena Zuzentarauak finkatutako epeetan eta hartan jasotako eskakizunen arabera egingo da.

h) Salatariei ahalik eta epe laburrenean emango zaie egindako jarraipenari buruzko informazioa, inolaz ere ez da hiru hilabeteko epea gaindituko.

i) Salatzeko prozedurak forma seguruan izapidetzea zainduko da, eta une oro errespetatuko da salatiaren konfidentzialtasuna.

j) Salaketa prozedura guztietan errespetatuko da datu pertsonalen babesa, araudi arautzailean ezarritakoarekin bat etorrita (DBAO eta DPBEDBLO)

k) Salatariaren babesari dagokionez, 2019/1937 (EB) Zuzentarauan finkatutako berme guztiak aplikatuko dira, baita estatuko edo autonomia erkidegoko legedi aplikagarrian aurreikusi daitezkeen beste guztiak ere.

13.7.- Kexuak edo salaketak ondorio penalak edo zehatzaileak izan baditzake, hura aurkeztu duenaren anonimatua eta sekretua bermatuko ditu hori egitea dagokionak, eta beharrezko neurriak hartuko ditu indarrean dagoen legediaren arabera aipatutako kexua edo salaketa egin duen pertsona babesteko, 2019/1937 (EB) Zuzentarauan jasotako aurreikuspenekin bat etorrita.

13.8.- Zuzentasun Batzordeak zabalkundea emango die galderen, kontsulten, arazoen edo dilemen eta kexuen eta salaketen harira egindako gomendio, proposamen edo txosten guztiei, baina beti izenik eman gabe eta haietan jasotako datu pertsonalak bereizi ondoren. Era berean, urteko Memoria bat landuko du, eta Tokiko Gobernu Batzordeari aurkeztuko dio.

VI.- PROTOKOLOAREN BERME ORGANOA

14.- Zuzentasun Batzordea.

14.1.- Zuzentasun Batzordea da Protokolo honen aplikazioaren berme organoa.

14.2.- Hiru kidek eta Zuzentasun eta Iruzurraren aurkako Neurrien Plana kudeatzeko Arduradun Teknikoak osatuko dute Zuzentasun Batzordea, eta Zuzentsaun planaren eta iruzurraren aurkako neurrien gestiorako arduradun teknikoaren laguntza izango dute.

Alkateak izendatuko ditu hiru kide horiek, bat kargu publikoak betetzen dituztenen edo zuzendarien artean aukeratuko du, Batzordeburua izango dena, beste bat funtzionarioen edo enplegatu publikoen artean, idazkariarena egingo duena, ahal den neurrian Datuen Babeserako Organo Delegatuko lehendakaria, eta hirugarrena Administrazioz kanpoko bat izango da, esparru publikoan esperientzia profesional egiaztatua duena eta zuzentasun eta zintzotasun balio sendoak dituena, erretiroa hartutako funtzionarioa edo goi kargudun edo zuzendari ohia izan daitekeena, baldintza berberekin, edo, hala badagokio, etikaren inguruko gaietan edo esparru honetan onarpen akademiko edo profesionala duen unibertsitateko irakasle bat.

15.- Zuzentasun Batzordearen eginkizunak

15.1.- Protokolo honen aplikazio esparruak Europako funtsak kudeatzen dituzten kargu publikoei, zuzendariei eta enplegatu publikoei dagozkien eskumenak baino ez ditu hartzen, eta honako hauek izango dira Zuzentasun Batzordearen eginkizunak:

a) Europako funtsen kudeaketan gobernu organoei, zuzendariei eta enplegatu publikoei aholkatzea zuzentasun gaian. Protokolo honen aplikazioarekin lotuta planteatzen diren zalantzak, kontsultak, dilemak edo kexuak argituz eta ebatziz bideratu ahal izango dira aholkularitza lan horiek.

b) 2019/1937 (EB) Zuzentarauarekin eta hura garatzeko arauekin bat etorrita, aurkeztutako salaketak eta kexuak izapidetzea. Horretarako, Zuzentasun Batzordeko kideetako bat izendatu ahal izango da bideratzaile edo, hala badagokio, txostengile.

c) Europako funtsen kudeaketan zuzentasunaren arloko gomendioak egitea esparru horietan ardura duten erakundeko goragoko organoei eta zuzendaritzako organoei.

d) Hierarkian gorago dagoenak eskatuta, ofizioz, kontsulta, kexu edo salaketa bidez, sor daitezkeen interes gatazken egoeren berri izatea eta horiek aztertzea. Horretarako, ongi argudiatutako proposamen edo gomendio bat helaraziko dio hierarkian gorago dagoenari hartu beharreko erabakia har dezan, edo hala badagokio, inpartzialtasun eta objektibotasun irudia zaintzeko eta Europar Batasunaren finantza interesak babesteko esleitutako eginkizunetatik aldentzeko edo abstenitzeko ebazpena eman dezan.

d) Zuzentasunaren gaian zabalkunde eta formakuntza proposamenak egitea.

e) Iruzurraren aurkako neurrien planak 2.3.1.6.b) puntuan jasotakoaren arabera salaketen tratamendua egin.

f) Zuzentasun Batzordearen aurreko prozeduretan inpartzialtasunaren, objektibotasunaren, konfidentzialtasunaren, datu pertsonalen babesaren eta jardueren sekretuaren printzipioak betetzen direla zaintzea.

g) 2019/1937 (EB) Zuzentarauan eta hura garatzen duen araudian ezarritakoarekin bat etorrita, salatariari edo informatzaileari eman beharreko babesa bermatzea.

h) Dagozkion ikerketak eta egiaztapenak egin ondoren, prebentziozko neurriak hartzeko proposamen arrazoituak egitea, edo, langileen jarduerak edo esku hartzeak aldi baterako edo behin betiko baztertzea benetako edo balizko interes gatazkak, baita itxurazkoak ere erakundearen izen onari eragiten badiote, sor daitezkeen kudeaketa eremuetan. Proposamenak organo eskudunari helaraziko zaizkio balioetsi ditzan eta, hala badagokio, erabaki ditzan.

i) Kode hau aplikatuta Zuzentasun Batzordearen jarduerari buruzko urteko txostena egitea.

j) Urtero Protokolo honen aplikazioari buruzko Gidaliburu bat lantzea. Bertan zehaztuko dira, aztertutako kasuen arabera, testu honetan ezarritako balioei eta printzipioei eman beharreko irismena eta aplikazioa.

k) Protokolo honen araberako egokitzapenak eta moldaketak proposatzea eta protokoloaren aplikazioa erakunde osora eta langile guztietara hedatzea, bereziki salaketak aurkezteko barne kanalari dagokionez, salataria babesteko 2019/1937 (EB) Zuzentaraua benetan betetzeko.

15.2.- Hautemandako ez betetzeak diziplina ondorioak, administrazioko bestelako arau hausteak edo, hala badagokio, ondorio penalak ekar baditzake, Zuzentasun Batzordeak txosten edo proposamen bat egingo du eraginpean egon daitekeen pertsonari entzun ondoren, eta organo eskudunari helaraziko dio zehapen espediente bat irekitzea bidezkoa den ala ez edo jarduketak beste edozein kontrol erakunderi edo, hala badagokio, Fiskaltzari bidaltzea egokitzat jotzen den ebaluatu dezan.
15.3.- Zuzentasun Batzordeak bere funtzionamendurako barne araudia landuko du, eta Gardentasun Atariaren bidez emango zaio zabalkundea araudi horri.

16.- ZUZENTASUN PROTOKOLOAREN HEDADURA

16.1.- Zuzentasun Batzordeak proposatu eta Tokiko Gobernu Batzordeak erabakita, Europako funtsen kudeaketarekin zuzeneko edo zeharkako harremana izan dezaketen kargu publiko guztiei (ordezkariak eta betearazleak), zuzendariei, behin-behineko langileei eta enplegatu publikoei hedatu ahal izango zaie Protokolo honen aplikazioa. Horretarako, egin beharreko egokitzapenak egingo dira testuan aldaketak eginez edo Eranskin baten bidez.
16.2.- Era berean, Protokolo hau izango da, bere balioei, printzipioei eta dagokion berme organoaren erregulazioari dagokienez, erakundearen kode etikoa eta jokabide kodea lantzeko, edo, hala badagokio, zuzentasun sisteman jasotzen diren jokabide kode guztiak egiteko oinarria.
16.3.- Horretarako, Udalak, planean finkatutako epeetan, kode etiko edo jokabide kode bat edo batzuk landuko eta onartuko ditu, eta egokitu egin beharko ditu horien edukian jasota ez dauden balioak edo printzipioak txertatzeko, salbu eta Protokolo hau Kodeari eranskin gisa gehitzen badiote, dagozkion egokitzapenekin.

II-A. ERANSKINA

ARRISKUEN EBALUAZIOA KUDEATZEKO EREDUA EUROPAKO FUNTSEN KUDEAKETAN IRREGULARTASUN ADMINISTRATIBOAK, IRUZURRA, USTELKERIA ETA INTERES GATAZKAK SAIHESTEKO EDO ARINTZEKO.

Udalarentzat diseinatutako irregulartasunak, iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak prebenitzeko, hautemateko eta zuzentzeko testuinguruan arriskuen ebaluazioa kudeatzeko oinarrizko ereduaren baitan eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kudeaketa sistema egituratzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 6.5 artikuluaren c) letrak aurreikusten duenaren arabera, arriskuak ebaluatzeko bi tresna aurreikusten dira.

Oro har iruzur arriskuaren, eraginaren eta iruzurra gertatzeko probabilitatearen ebaluazio bat egitea aurreikusten da, PRTR plana egikaritzeko funtsezko prozesuak biltzen dituena, eta ebaluazio hori bi urtean behin egingo da –baina iruzurraren bat hautematen bada, urtean behin–.

Ebaluazio hori, iruzurra hautemateko tresna informatiko baten bitartez (Arriskuen Matrizea) egingo da, eta horretarako iruzur adierazleak garatuko dira.

Horretarako aztertuko diren adierazleek aukera emango dute Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren inbertsio proiektuak egikaritzean erabili daitezkeen kudeaketa tresna guztiak banaka analizatzeko.

Matrize horretan adierazi beharko da, arriskuaren adierazle bakoitzari dagokionez, aldez aurretik adierazitako arrisku zehatza prebenitzeko neurriren bat aplikatu ote den ala ez, eta arrisku horiek denboran gertatzeko dagoen probabilitatea ere adieraziko da.

Behin alderdi horiek adierazita, arriskua gauzatzeak Sailarentzat izan lezakeen eragina balioetsi behar da, matrizeak erakutsiko baitu zein den arriskua gertatzeko probabilitatea.

Probabilitate horren arabera, arrisku horiek prebenitzeko hartu beharreko neurriak gomendatuko dira.

Era berean, matrize horretan atal zehatz bat aurreikusten da arriskua gauzatu den kasuetan neurri jakin batzuk hartzeko gomendioa egiteko.

Matrize horri dagokionez, lehen adierazi bezala berehala osatuko baita Plan hau sinatuta eta bi urtean behin errepikatuko baita, egokitzat jotzen da kontratazio publikoari eta dirulaguntzak emateari buruzko banakako matrize batzuk aintzat hartzea.

Izan ere, esparru horietan zentralizatuko da Sailaren jarduera Europako funtsen kudeaketari dagokionez, eta hain zuzen ere esparru horietan dago adierazitako irregulartasunak gertatzeko arriskurik handiena.

Ildo horretan, banakako beste bi matrize gaineratu dira, eta horien helburua da burura eramango diren kontratazio espediente bakoitzean eta/edo dirulaguntzak emateko espediente bakoitzean betetzea.

Modu horretan, arrisku mapa horrek arrisku handi bat erakusten badu (eskuarki ehuneko berrogeita hamarretik gorakoa, baina arriskuaren garrantziaren araberakoa izango da) lizitazioa edo dirulaguntza ez egikaritzeko gomendioa egingo da, arriskuak desagerrarazteko neurriak hartu arte eta lizitazioa edo dirulaguntzaren emakida behar bezala eta, azken batean, finantza kudeaketa onaren printzipioak errespetatuz egingo dela bermatu arte.

II-B. ERANSKINA

SARRERA

Arriskuen mapa honen xedea da entitatearen kudeaketa ekonomiko-finantzarioan eta langileen kudeaketan gerta daitezkeen –edo gertatzen ari diren– arrisku nagusien probabilitatea eta larritasuna identifikatzea eta baloratzea.

Horretarako, lehenik eta behin, entitatearen esparruan oro har gerta daitezkeen arriskuen katalogo bat biltzen da, jarduera esparru bakoitzeko.

Jarraian, entitatearen barruan benetan gertagarritzat jotzen diren arriskuak jasotzen ditu honako mapa honek.

Honela dago konfiguratuta arriskuen mapa:

1. Arriskua.

Lehenik eta behin, arriskuak aipatzen dira; hau da, iruzurra, ustelkeria edo interes gatazkak gertatzeko probabilitatea areagotzen duten egoerak.

2. Arriskua identifikatzea.

Arriskuak bereiztea eta ulertzea ahalbidetzen dute, eta jakin daiteke, orobat, horiek gertatzen ari diren edo etorkizunean gertatuko diren.

3. Arlo arduraduna.

Prozesua gauzatzeaz arduratzen den alorra identifikatzen da, eta kaltea eragiteko arriskua non gerta daitekeen zehazten da.

4. Probabilitatea eta probabilitatearen balioa.

Emandako informazioaren arabera, arriskua azkenean egikaritzeko probabilitatea balora daiteke.

5. Larritasuna eta larritasunaren balioa.

Gerta litezkeen kalteen larritasuna balioesten da, baldin eta arriskua benetan gauzatzen bada.

6. Arrisku matrizea.

Arrisku matrizea kalkulatzeko, kaltea gertatzeko probabilitatearen balioa eta larritasunaren balioa alderatuko dira.

7. Gauzatu beharreko prebentzio neurriak.

Hainbat neurri identifikatzen dira, arrisku matrizetik lortutako emaitzaren arabera.

KONTZEPTUEN DEFINIZIOA

◦**Arriskua**

Iruzurra, ustelkeria edo interes gatazkak gertatzeko probabilitatea handitzen duten egoerak.

◦**Arriskua identifikatzea**

Erakundean gerta daitezkeen gertakariak eta helburuetan izan ditzaketen ondorioak ezagutzeko prozesua.

Arlo arduraduna

Prozesuaz arduratzen den saila; sail horretan ageri da arriskua gertatzeko probabilitatea eta, ondorioz, kaltea izatekoa.

◦**Probabilitatea. Mailaketa faktoreak.**

Arriskua gertatzeko aukera; horretarako, maiztasuna (adibidez, arriskua azken urteetan zenbat aldiz sortu den) ez ezik arrisku aukera arintzeko neurririk badagoen ala ez ere balioetsiko da.

PROBABILITATEA	MAILAKETA FAKTOREAK
HANDIA	· Erakundeak ez zuen ezarri halakorik gertatzea prebenitzeko neurririk, eta arriskua urtean behin baino gehiagotan gertatzen da (urtean hainbat aldiz). · Erakundeak ez zuen ezarri halakorik gertatzea prebenitzeko neurririk, eta arriskua urtean behin gertatzen da (urtean behin). · Erakundeak ez zuen ezarri halakorik gertatzea prebenitzeko neurririk, eta arriskua urtean behin baino gehiagotan gertatzen da.
ERTAINA	· Erakundeak neurri partzialak ditu halakoak gertatzea prebenitzeko, eta arriskua urtean behin baino gehiagotan gertatzen da (urtean hainbat aldiz). · Erakundeak neurri partzialak ditu halakoak gertatzea prebenitzeko, eta arriskua urtean behin gertatzen da (urtean behin). · Erakundeak neurri partzialak ditu halakoak gertatzea prebenitzeko, eta arriskua urtean behin baino gehiagotan gertatzen da.
TXIKIA	· Erakundeak badauzka ezarrita neurriak halakoak gerta ez daitezen, eta arriskua urtean behin baino gehiagotan gertatzen da (urtean hainbat aldiz). · Erakundeak badauzka ezarrita neurriak halakoak gerta ez daitezen, eta arriskua urtean behin gertatzen da (urtean behin). · Erakundeak badauzka ezarrita neurriak halakoak gerta ez daitezen, eta arriskua urtean behin baino gehiagotan gertatzen da.

◦**Larritasuna. Mailaketa faktoreak**

Arriskua gauzatuz gero sor daitezkeen kalteen intentsitate handiagoa edo txikiagoa.

LARRITASUNA	INPAKTU FAKTOREAK
HANDIA	· Kargu edo funts publikoak bidegabe erabiltzea, eta, gainera, onura partikularrerako egitea. Erakundearen izen onari kalte egiten dioten arau hauste penal edo administratibo larrien zantzua. · Helburu estrategikoak ez betetzea, eta, ondorioz, irudi instituzionalari edo zerbitzuak emateari eragitea. · Karguen, funtsen edo baliabide publikoen erabilera irregularra, ondareari kalte nabarmenak eraginez.
ERTAINA	· Larritasun txikiagoko arau hauste penal edo administratiboen zantzua, zeinek eragin ertaina baitute erakundearen irudian. · Administrazio arauen beste hainbat ez-betetze. · Baliabide publikoak modu irregularrean erabiltzea, ondareari kalte nabarmenik eragin gabe.
TXIKIA	· Irudi instituzionalean kalte txikiak eragiten dituzten arau-hauste penal edo administratibo arinen zantzua, zeinak berroneratzeko modukoak baitira epe laburrera. · Administrazio irregulartasunak, betiere arauak ez betetzea eta ondareari kalterik eragin gabe. · Helburu operatiboak ez betetzea.

◦**Larritasun balioa**

Arriskua gauzatzen bada, erakundean izango dituen ondorioak kontuan hartzea.

◦**Arriskuaren matrizea**

Arriskuaren magnitudea sailkatzeko erabilitako puntuazioaren isla, gertatzeko probabilitateari eta ondorioaren larritasunari emandako puntuazioak konbinatuz.

Probabilitatea / Larritasuna	HANDIA	ERTAINA	TXIKIA
TXIKIA	Ertaina	Txikia	Txikia
ERTAINA	Handia	Ertaina	Txikia
HANDIA	Handia	Handia	Ertaina

◦**Hartu beharreko prebentzio neurriak**

Loturiko arriskua arintzeko diseinatutako neurriak, aplikatzeko gomendatuak.

JARRAIBIDEAK

1.- Prozesuaren ardura duen arloa adierazi behar da.

2.- Adierazi behar da biltzen ote den arrisku egoerak saihestea aurreikusten duen neurriren bat, eta zehaztu behar da, orobat, badagoen egoera horiek partzialki bada ere aurreikusten dituen neurririk edo, aldiz, ez dagoen batere neurri

3.- Zehaztu behar da zer probabilitate dagoen arriskuan deskribatutako egoerak gertatzeko.

4.- Zehaztu behar da zer ondorio sortuko litzatekeen arriskua gauzatuz gero.

LANGILEEN KUDEAKETA

KATEGORIA	DESKRIBAPENA
Langileak hautatzea	Funtzio publikora sartzerakoan, ezinbestekoa da merezimenduan eta gaitasunean oinarritutako sistema ziurtatzea, ustelkeriari aurrea hartzeko eta zerbitzari publikoen gaitasun profesionala bermatzeko. Printzipio horiek bermatzen ez dituzten prozeduren bidez sartzeak ondorio larriak eragin ditzake osotasunaren ikuspegitik, hala nola funtzio publikoaren profesionalizazio falta, zerbitzari publikoen jardueretan inpartzialtasunik eta objektibotasunik eza, klientelismoa edo segiziozaletasuna ugaltzea, edo nepotismoa.
Ustelkeria, eroskeriak eta legez kanpoko komisioak adieraz ditzaketen adierazle orokorrak:	1. Kontratazio organoko kideek ez dituzte erakundeko etika kodean finkatutako prozedurak betetzen: Erakundeak badu etika kode bat, baina kontratazio organoko kideek ez dituzte hartan zehaztutako prozedurak jarraitzen (ustezko interes gatazken berri ematea, etab.). 2. Enplegatu baten portaera ezohikoa, lizitazio prozedura bati buruzko informazioa lortzeko ahaleginak egiten dituela prozeduraren ardurapean egon gabe: Lizitazio prozeduraz arduratzen diren taldeetako kide izan gabe enplegatu batek interes handia agertzen duenean lehiaketaren bilakaera nahasi dezakeen edo kontratista partikular bat faboratu dezakeen informazioa lortzeko. Balizko kontratistaren batek harremanak izan ditzake hornitzaileekin. 3. Enpresa batentzat lan egin duen kontratazio organoko langile batek lehiaketan parte hartu du hain justu erakunde

	adjudikatzailearen lanpostuan hasi baino lehen: Kontratazio organoko enplegatu batek hain justu lehentxeago kontratazio prozedura batean parte har dezakeen enpresa batentzat lan egin duenean, interes gatazkak sor daitezke, edo manipulazioak gerta daitezke prozeduraren baitan kontratista irabazlea izan daitekeen enpresa horren alde edo kontra. 4. Ahaidetasun lotura kontratazio organoko enplegatu baten eta erabakitzeko gaitasuna duen edo enpresa lizitatzailean eragina duen pertsonaren artean: Lotura horrek balioetsi beharreko kontratuaren esleipenaren alde jokatzen du. 5. Kontratazioaz arduratzen den enplegatuak uko egin dio erosketekin zerikusirik ez duen goragoko postu batera igotzeari: Enplegatu batek, justifikatutako eta zentzuzko arrazoirik gabe, uko egiten dionean erosketekin zerikusirik ez duen postu batera igotzeari. Baliteke loturaren bat izatea edo adierazi gabeko onura motaren bat lortzea balizko adjudikaziodunen batekin. 6. Kontratazio organoko kide bat, kontratazio prozedurarekin lotutako mesedeen truke, bidegabeko kontraprestazioak jasotzen ari delako zantzuak: Denbora bitarte laburrean eta itxura batean arrazoi justifikaturik gabe, kontratazioaz arduratzen den organoko kide baten aberastasuna edo bizi maila bat-batean emendatzen denean, adjudikaziodun jakin batzuen aldeko ekintzekin lotuta. 7. Harreman estua kontratazioaz arduratzen den enplegatu baten eta zerbitzu edo produktu hornitzaile baten artean: Halako adiskidetasuna edo harreman estua nabari da kontratazioko enplegatu baten eta kontratazio prozeduretatik etorritako enpresa interesak izan ditzakeen zerbitzu edo produktu hornitzaile baten artean. 8. Kontratazio organoko kideen jokabide ezohikoak: Espedientean ez dira zehazten kontratuei buruzko dokumentuen atzerapenei edo absentziari buruzko arrazoiak, eta enplegatua ez da kasu horiek justifikatzeko prest agertzen. Izan ere, interes gatazka motaren bat izan dezake enplegatu horrek. 9. Kontratazioaz arduratzen den enplegatuak ez du interes gatazkei buruzko adierazpena egin, edo osatu gabe egin du. 10. Kontratistak eroskeriak ordaintzeko ospea du sektorean. 11. Ebaluazio batzordeko kideek ez dituzte aurkeztutako eskaintzak ebaluatzeko behar diren ezagutza teknikoak, eta pertsona baten mende daude.
<u>Lizitazio</u> fasean gerta daitezkeen adierazleak:	1. Enpresen kontsultak etorkizuneko lizitazioaren edukiari buruz, SPKLren 115. artikuluan merkatuari kontsultak egiteko aurreikusitako prozedura eta neurriak errespetatu gabe. 2. Lizitazioaren dokumentuak idazteaz arduratzen den pertsonak / goi funtzionarioak behin eta berriz esaten du kanpoko enpresa bat kontratatu behar dela dokumentuak idazten lagun diezaion, beharrezkoa ez bada ere. 3. Gai berari buruzko bi prestakuntza azterlan edo gehiago eskatzen zaizkie kanpoko enpresei, eta norbaitek langileak presionatzen ditu azterlan horietako bat erabil dezaten lizitazioari dagozkion dokumentuak idazterakoan. 4. Dokumentuak idazteaz arduratzen den pertsonak lizitazioa hasi aurretik dokumentuak sakon berraztertzeko denborarik ez izateko moduan antolatzen du prozedura. 5. Kontratua adjudikaziodun bera duten bi prozeduratan edo gehiagotan zatitzeko aukera, guztizko zenbatekoaren arabera legokiokeen prozedura erabiltzea saihestuz, prozedura horrek lehia eta publizitate berme handiagoak eskatzen baititu: Adjudikaziodun berari kontratua antzeko xedea duten bi kontratu txikitan zatitzen zaionean edo kontratua xede berari lotutako hornidura desberdinetan zatitzen denean. 6. Kontratazio prozedurari buruzko dokumentazioan ez dago informazio eta publizitate neurririk, eta/edo laburregiak dira eskaintzak jasotzeko epeak. 7. Xedearen definizio ezegokia. Kontratuaren xedea balio ez duten, egokiak ez diren edo beharrezkoak ez diren produktuak edo zerbitzuak erostea dela definitzen denean gertatzen da.

	8. Xedeak muga edo betebehar tekniko oso zehatzak finkatzen ditu, produktu jakin bati aipatzen dute eta eragotzi egiten dute beste lizitatzaile batzuen lehia. 9. Lehenagoko antzeko prozeduretan onartutakoak baino preskripzio murriztaileagoak dituzte baldintza orriek: Egoera hori gertatzen da baldintzak gogortzen direnean, lehia mugatuz, aurreko prozeduren antzeko prozedura batean. Adibidea: antzeko ezaugarriak dituzten prozeduretan ezarritakoarekin alderatuta, finantza eskakizunak emendatzea, fakturazio bolumen jakin bat finkatzea, enplegatu kopuruaren zerrenda murriztea eta abar. 10. Klausula orokorrak edo anbiguoak, osatugabeak. 11. Esleitzeko irizpideak ez daude behar bezala zehaztuta edo ez daude orrietan jasota. Orrietan ez daude jasota edo modu anbiguoan eta zehaztugabean daude idatzita eskaintza teknikoak, hala badagokio, eta eskaintza ekonomikoak baloratzeko eta adjudikaziodun gertatzen diren lizitatzaileak aukeratzeko, eta horrek gardentasun eta objektibotasun falta dakar adjudikaziodunaren hautaketan. 12. Hain dira zehatzak esleitzeko irizpideak ezen enpresa lizitatzaile bakar batek baizik ezin baitu eskaintza egin eta merkatua murrizten baita. 13. Esleitzeko irizpideen balorazio ezegokia egin da. 14. Kontratuaren balio haztatua manipulatu egin da dagozkion prozedura eta publizitatea ez aplikatzeko, eskaintzen murrizketa edo absentzia eraginez. 15. Asetasun atalaseak dituzten edo eskaintza hobeak egiten dituzten lizitatzaileen ahalegina saritzen ez duten formula ekonomikoak. 16. Eskaintza bakarra edo ezohiko proposamen kopuru txikia aurkeztea lizitazioa lortzeko aukerarekin kontratazio prozeduraren arabera. Halaxe gertatzen da kontratatzeko prozesuak, sektore publikoari aplikatu beharreko araudiaren arabera, kontratuaren xedea egikaritzeko gaitasuna duten gutxieneko enpresa kopuru bati eskatzen dienean eskaintzak egiteko, eta hori betetzen ez denean. Esate baterako, prozedura negoziatuan, kontratuaren xedea egikaritzeko gaitasuna duten gutxienez hiru enpresari eskatu beharko zaie eskaintzak egiteko, ahal den guztietan. 17. Enpresa desberdinen eskaintzek kalkulu akats berberak dituzte. 18. Bakarka lehiatzeko kaudimen nahikoa duten hainbat lizitatzaile ABEE batean lehiatzen dira. 19. Beste eskaintzaile batzuen erreklamazioak: Idatzizko erreklamazioak edo kexuak egin dira Kontratazio prozeduraren Orrien edukiak lehia mugatzen duelako.
<u>Adjudikazio</u> fasean gerta daitezkeen adierazleak:	1. Kontratazio prozedura kontrolatzeko prozedura ezegokiak eta/edo prozedurarik eza: Ez dira kontrol neurriak aplikatzen lizitazio prozedura behar bezala bideratzeko, eta ondorioz, akatsak gerta daitezke hautagaiak aukeratzerakoan. Esate baterako, eskaintza ekonomikoak onartzen dira lehendik baldintza teknikoak eta/edo administratiboak bete ez dituzten lizitatzaileak baztertu gabe. 2. Eskaintzak irekitzeko prozedura ez gardenak. Plataforman ez dira dagozkion Aktak argitaratu. 3. Hornitzaileak beren aldetik biltzen dira eskaintzak aurkeztu aurretik, batzuetan eskaintzak aurkeztu beharreko lekutik hurbil. 4. Hornitzaile jakin baten eskaintza askoz ere altuagoa da kontratu jakin bati begira hornitzaile horrek berak antzeko beste kontratu bati begira egindakoa baino. 5. Lizitatzaileen arteko ustezko akordioak elkarren arteko harremana eta /edo lotura duten enpresekin elkar hartuta, edo “hornitzaile fantasmak” sartuta. 6. Lizitatzaileen arteko ustezko akordioak merkatua banatzeko: Lizitatzaileek elkarren artean banatzen dute merkatua lehia murriztuz, esate baterako, eskualdeka, lan edo obra motaren arabera… 7. Lizitatzaileek dokumentu faltsutuak aurkeztu dituzte eskaintzak

	aukeratzeko prozesuan: Lizitatzaileak dokumentazio eta informazio faltsua aurkeztu du kontratazio prozesuan parte hartu ahal izateko. 8. Eskaintza altuak / baja zentzugabeak 9. Behin eta berriz onartzen dira prezio handiko eskaintzak eta/edo kalitate eskaseko lanak: Kontratuak behin eta berriz esleitzen zaizkie aurkeztutako beste eskaintzen aldean eskaintza ekonomiko handiagoak egin dituzten eta/edo baldintza teknikoen orrietan eskatutako kalitatearekin bat ez datozen kontraprestazioak egin dituzten lizitatzaileei. Esleipen horiek erakunde kontratatzaileko kideren baten interes gatazken mende egon daitezke; esate betarako, lizitatzaile batek aldez aurretik daki adjudikazioduna izango dela, eta prezio altu bat eskatu du kontratazio prozeduran finkatutako mugaren barruan. 10. Jaso ondoren eskaintzetan aldaketak egin direlako zantzuak: Azaldutako zantzu batzuek iradokitzen dute eskaintzak jaso ondoren aldaketa bat egin dela haietan, bai prezioari dagokionez, bai eskaintzetan jasotako beste baldintza batzuei dagokienez. 11. Akatsengatik edo zalantzazko arrazoiengatik baztertutako eskaintzak: Behar bezala justifikatu gabeko arrazoiengatik edo akatsengatik baztertutako eskaintzak dira. Kontratista jakin bat aukeratzeko interesei erantzun diezaiekete. 12. Eskaintza baten eta gainerako eskaintzen arteko alde nabarmenak “azpimarratu” dira irizpide automatikoen eragina ezerezean uzteko. 13. Esleipenak behin eta berriz lizitatzaile baten alde egitea: Lizitatzaileak kontratuak lortzen ditu erakunde kontratatzailearen aldetik justifikatu gabe jasotzen duen faboritismoari esker, orrietan finkatutako esleitzeko irizpideetan oinarritu gabe. 14. Lizitatzaileak behar bezala justifikatu gabeko beherapen arriskutsuak onartzea. Lizitatzaileak eskaintza nabarmenki baxua aurkeztu du gainerako lehiakideek aurkeztutakoekin alderatuta, eta aldez aurretik prestazio hori finkatutako denboran eta moduan emateko gaitasuna duela justifikatu gabe, kontratazio organoak onartu egin du eskaintza. Era berean, lizitatzaileek eskainitako prezioak jakinarazi eta lizitatzaile batek bere prezioa jakinarazitako eskaintza ekonomikoei doitzeagatik gerta daiteke. 15. Eskaintza adjudikazioduna oso gertu dago aurrekontutik, ez baitu ia inolako beherapenik eskaini. 16. Enpresa ezezagun eta historiarik gabeek irabazi dute kontratua. 17. Atzerapen luzeak eta azaldu ezinak kontratuaren esleipenean edo negoziazioetan. Esate baterako, formulen bidez ebaluatu beharreko esleipen irizpideak edo balorazioari buruzko Agiria argitaratu direnetik 2 hilabetetik gorako epea igarotzen denean. 18. Atzerapen justifikatu gabeak kontratazio organoaren eta adjudikaziodunaren arteko kontratua sinatzeko: Kontratua sinatzeko atzerapen handiek iradoki dezakete zerbait ezohiko edo susmagarri gertatzen ari dela. 19. Formalizatutako kontratuak aldatu egiten ditu adjudikazioaren baldintzak: Kontratuak lizitazioaren baldintzetara zehazki egokitzen den administrazio dokumentu batean formalizatu behar dira, eta kontratua formalizatzen den dokumentuan inolaz ere ez dira esleipenaren baldintzen aldaketa ekar ditzaketen klausulak sartuko. Hauexek dira aldaketa batzuk: kontratuetako klausula estandarrak eta/edo kontratuaren esleipenean finkatutakoak gutxitzea, aldaketa nabarmenak baldintza teknikoetan edo baldintza administratiboen orrian, kontratuaren ondasun eta zerbitzuen kopurua edo zehaztapenak, eta alderdi horiei buruzko betekizunak deialdiaren orrietan, etab. 20. Elkarrekikotasunik eza kontratuan jasotako prestazioetan: Kontratuen oinarrizko ezaugarrietako bat da sinalagmatikoak izan behar direla, hau da, halako bat etortzea egon behar da prestazioaren eta kontraprestazioaren artean. Esate baterako, 40.000 euroko kontratu bat esleitu da kopuru hori justifikatzen ez duen xede baterako (gela batzuk margotzea, merkatuko kostu erreala 2.000 euro baino txikiagoa izan daitekeenean), kontratistak eman beharreko zerbitzua edo produktua aldatu da,

	produktu gutxiago eman ditu baina adjudikaziodunak egin beharreko kontraprestazioan edo ordainketan aldaketarik egin gabe, langileen kalitatearen edo jardueren gainestimazioa, etab. 21. Lizitatzaile galtzaileak ez dira Interneten eta negozio direktorioetan topatzen, ez dute helbiderik, etab. (bestela esanda, fikziozkoak dira).
<u>Egikaritze</u> fasean gerta daitezkeen adierazleak:	1. Kontratuan ezarritakoa baino prestazio txikiagoa ematea: Zirkunstantzia hauetako bat gertatzen denean jazotzen da: produktuak ematen edo ordezkatzen ez direnean; modu irregularrean gauzatzen direnean kalitateari edo entrega epeei dagokienez, edo kualifikatu gabeko baliabideak edo kontratuaren beharrizanak baino kostu txikiagoko baliabideak esleitzen direnean, besteak beste; hori guzti hori justifikatu/arrazoitu gabe, adjudikaziodunari ezin egotzi zaizkion arrazoiengatik luzatzeko eskaera formalik egin gabe, ezinbesteko arrazoiengatik, etab. 2. Kalitate txikiko langileak edo gaitasun nahikoak ez dituzten azpikontratistak erabiltzea (215. art.). 3. Baldintza teknikoak edo epeak ez betetzea. 4. Behin eta berriz onartzea kalitate eskaseko ondasunak, produktuak edo zerbitzuak. 5. Adjudikaziodunak kontratazio prozesuan parte hartu duten beste lizitatzaile batzuk azpikontratatu ditu: Adjudikaziodun gertatu ez den lizitatzaile batek kontratuaren zati garrantzitsuena egikaritu du adjudikaziodunak azpikontratatuta, finkatutako azpikontratatzeko mugak saihesturik eta kontuan harturik lizitatzaile horrek aldez aurretik ez zuela eskatutako kaudimen teknikoa eta/edo administratiboa. 6. Aldaketak prestazioan itxuraz arrazoirik gabe: Hainbat formatan gerta daiteke egoera hori. Esate baterako, kontratuaren arabera eskaera jakin batzuk kontratista batekin ezarri ondoren, eskaera horiek sarritan emendatzen edo gutxitzen dira itxura batean arrazoirik gabe, edo lanorduak emendatzen dira lanordu horietan erabili ahal izan diren materialen emendioa gertatu gabe, etab. 7. Kostuen erreklamazioak edo fakturazioa manipulatzea kargu okerrak, faltsuak, gehiegizkoak edo bikoiztuak sartzeko: Fakturak manipulatzen direnean edo faktura faltsuak aurkezten direnean kontratistak kostuak itzultzeko, esate baterako, kostu bikoiztuak, faktura faltsuak edo hanpatuak egin direnean, egikaritu ez diren edo kontratuaren arabera egin ez diren jarduerei dagozkien fakturak (langile gastu okerrak, ordaindu gabeko aparteko orduengatiko karguak, ordutegi tarifa desegokiak, ez dagoen langilearentzat erreklamatutako gastuak, edo egikaritze epetik kanpo egindako jarduerengatiko langile gastuak) egin direnean edo langileen kalitatearen eta jardueren gainestimua izan denean, etab. 8. Merkatukoak baino nabarmenki handiagoak dira prezio berriak. 9. Efizientziarik eza edo ustelkeria edo prozedurazko izapidetzerik eza ezkutatzeko neurketa irrealen aldaketen simulazioa. 10. Zalantzan jar daitezkeen fakturak eduki anbiguoa izateagatik, adostasun faltagatik eta haien irregulartasunagatik. 11. Ez dago edo zalantzazkoa da kontratua betetzeari buruzko dokumentazioa.

DIRULAGUNTZA PUBLIKOEN arloan:

Lehia mugatzea	1. Erakundeak ez die behar bezalako zabalkundea eman deialdi/Oinarri arautzaileei. 2. Erakundeak ez ditu argi eta garbi zehaztu laguntzen edo dirulaguntzen onuradunek edo hartzaileek bete beharreko baldintzak. 3. Ez dira errespetatu deialdi/Oinarri arautzaileetan eskaerak aurkezteko finkatutako epeak. 4. Baremoen arabera emandako dirulaguntzen kasuan, ez dira dagozkien Aldizkari Ofizialetan argitaratu. 5. Laguntzen onuradunak edo hartzaileak ez du lehia bermatzeko obligazioa betetzen hornitzaileekin negoziatu behar duenean.
Tratu diskriminatzailea eskatzaileak hautatzean	Onuradunen hautaketan ez dira objektibotasun, berdintasun eta ez diskriminatzeko printzipioak betetzen.
Interes gatazkak balorazio batzordean	Ebaluazio batzordeko kideek nahita eragitea edo presionatzea onuradunak ebaluatzeko eta hautatzeko prozesuan.
Estatuaren laguntzen araubidea ez betetzea	Estatuaren laguntzak dira finantzatutako eragiketak, eta ez da Europako araudiak horretarako ezarritako informazio eta jakinarazpen prozedura jarraitu.
Dirulaguntzaren xedetik desbideratzea	Onuradunak ez ditu funtsak dirulaguntza arautzen duen araudian ezarritako helburuetara bideratu.
Gehigarritasun printzipioa ez betetzea	1. Gehiegikeria gertatu da eragiketen kofinantzaketan: Onuradunak funts beretik baina erakunde desberdinetatik etorritako laguntzak jasotzen ditu, eta gehiegizko irabazia edo kofinantzaketa gertatzen ari da. 2. Eragiketa bera finantzatzen duten hainbat kofinantzatu daude. 3. Ez dago hirugarrenek egindako euskarri dokumentaziorik (hitzarmenak, dohaintzak, bestelako diruzko ekarpenak, etab.). 4. Hirugarrenek emandako finantzaketak ez du xede zehatzik, eta ez dago hura banatzeko irizpiderik. 5. Onuradunak ez du eragiketen gastuen eta sarreren kontrola egiten: Ez dago eragiketa motaren, proiektu motaren edo finantza iturri motaren araberako gastuen eta sarreren kontrol dokumentatua eramateko moduko kontabilitate analitikorik.
Dokumentuak faltsutzea	1. Eskatzaileek dokumentazio faltsutua aurkeztu dute hautaketa prozesu batean hautatuak izateko. 2. Gastuak justifikatzeko dokumentu euskarria manipulatzea: Fakturak manipulatzen direnean edo faktura faltsuak aurkezten direnean diruz lagundutako eragiketan izandako gastuak itzultzeko.
Nazioko eta erkidegoko araudiak informazio eta publizitate arloan ezarritako obligazioak ez betetzea	Kofinantzatutako eragiketetarako emandako dirulaguntzei buruzko informazioa emateko eta jakinarazteko betebeharrak ez betetzea: Deialdia egiten duen erakundeak eta azken hartzaileek nahitaez jakinarazi eta zabaldu behar dute laguntza edo eragiketa horiek dirulaguntzen kontura daudela finantzatuta, eta bete egin behar dute erkidegoko xedapenetan horri buruz ezarritakoa.
Auditoretza pista galtzea	1. Erakundeak ez du eragiketaren dokumentazio egokia egin auditoretza pista bermatzeko: Eragiketari buruzko espedientean ez daude dokumentatuta auditoretza pista bermatzeko prozesuak. Adibide batzuk dira, besteak beste, gastuen eta ordainketen prozesuak, kontabilitate prozesuak, publizitate eta egikaritze prozesuak izatea. 2. Deialdiak ez du zehazten zer modutan dokumentatu behar diren eragiketatik eratorritako gastuak. 3. Deialdiak ez ditu argi eta zehatz definitzen gastu hautagarriak.

	4. Deialdiak ez du zehazki ezartzen eragiketetan aplikatu beharreko kostuak kalkulatzeko metodoa.
Orokorra	1. Dirulaguntzetako baldintza baztertzaileak, aukera soilik Pertsona Fisiko edo Juridiko jakin batzuek izatea dakartenak. 2. Baremoetan oinarrituta emandako dirulaguntzen kasuan, ez dira baremazioaren emaitzak argitaratu. 3. Baremoetan oinarritutako dirulaguntzak emateko ebazpenean ez dira arrazoi egokiak eta nahikoak eman. 4. Enpresa batentzat lan egin duen administrazioko enplegatu batek parte hartu du dirulaguntza emateko prozesuan. 5. Administrazioko kideek ez dituzte erakundeko etika kodean finkatutako prozedurak betetzen: Erakundeak badu etika kode bat, baina organoko kideek ez dituzte hartan zehaztutako prozedurak jarraitzen (ustezko interes gatazken berri ematea, etab.). 6. Administrazioko enplegatu batek dirulaguntza lortu dezakeen enpresa batentzat lan egiten duten senitartekoak ditu. 7. Administrazioko langile batek lizitatu dezakeen enpresa batentzat lan egin du hain justu erakunde adjudikatzailearen lanpostuan hasi baino lehen. 8. Enplegatu baten portaera ezohikoa, prozedura bati buruzko informazioa lortzeko ahaleginak egiten dituela prozeduraren ardurapean egon gabe.

DOKUMENTUEN arloan:

Formatua	1. Enpresaren fakturak eta gutunak logotiporik gabe. 2. Ageriko aldeak dokumentuko letra tipoan, tamainan, argitasunean, kolorean, etab. 3. Zifra ezabatuak edo marratuak, baimendutako pertsonek sinatu gabeko oharrak. 4. Eskuz idatzitako zenbatekoak, baimendutako pertsonen sinadurarik gabe, edo elementuak a priori justifikatzen ez den inprimaki batean. 5. Letra gutxiegi edo gehiegi, jarraitutasun falta testu lerroetan. 6. Zigilu ofiziala lortzeko ordenagailuko inprimagailua erabili dela salatzen duten zigilu ofizialen ertz zorrotz anormalak edo kolore ezohikoak. 7. Hainbat dokumentutan pertsonen sinadura guztiz berdinak (formatuz eta tamainaz) azaltzea, inprimaketa informatikoaren bidez sinadura horiek faltsutuak izan direla iradokiz. 8. Eskuz eta antzeko moldearekin edo idazluma berarekin garai desberdinetako dokumentuetan egindako sinadura kopurua.
Edukia	1. Data, zenbateko, ohar, telefono zenbaki eta kalkulu ezohikoak. 2. Erregistrorik eza (sekuentzien egiaztapenak). Esate baterako, ez da erregistro bat egin. 3. Kalkulu akatsa ordenagailuz egindako faktura edo nomina batean: esate baterako, transakzioen baturarekin bat ez datozen guztizko zenbatekoak. 4. Faktura batean nahitaezko elementu bat falta da: data, identifikazio fiskalaren zenbakia, faktura zenbakia, etab. 5. Zigilu baten eta pertsona baten sinaduraren posizio berbera dokumentu sorta batean, benetako sinadura bat ez baizik eta irudi bat erabili dela iradokiz: ordenagailuz sortutako irudi bat izan daiteke, dokumentuak faltsutzeko erabiltzen dena. 6. Enpresekin edo pertsonekin harremanetan jartzeko datuak falta dira, esate baterako, telefono zenbakia. 7. Salgaien fakturetan eta albaranetan serie zenbakirik ez izatea, normalean serie zenbakiekin (elektronika, ekoizpen lineak, etab.) markatuta egoten baitira.

	8. Ondasunen edo zerbitzuen deskribapen ez zehatza. 9. Arauarekiko bat ez etortzeak eta desbideraketak banku kontuen zenbakiei dagokienez (esate baterako, behar baino digitu gutxiago izatea, banku baten sukurtsalari ez dagokion zenbakia eta ageriko beste bat ez etortze batzuk). 10. Berberak dira kontratistaren eta enplegatu publiko baten helbideak. 11. Enpresa jardueren erregistroan inskribatuta ez dauden erakundeek egindako fakturak eta ordainagiriak. 12. Dokumentuan jasotako datuak ez datoz bat erakunde berak egindako antzeko dokumentu batean jasotakoekin. 13. Enpresen erregistro publikoetan inskribatuta ez dagoen enpresa bat edo baliabide publikoetan topatzen ez den enpresa bat aipatzea. 14. Sortu berri den enpresak egindako fakturak. 15. Faktura bat egiten duen enpresaren posta elektronikoko helbideak Interneteko atzerriko zerbitzari batean egotea. 16. Bat ez etortzeak erakunde batek egindako fakturen daten eta zenbakiaren artean, esate baterako: 152. faktura, 2012/03/25ean egina; 103. faktura, 2012/07/30ean egina. 17. Kontabilitatean erregistratu gabeko fakturak. 18. Aurrekontuekin bat ez datozen fakturak prezioari, kantitateari eta kalitateari, produktu motari eta/edo emandako produktuaren edo zerbitzuaren deskribapenari dagokienez. 19. Enpresaren ordezkari gisa jarduten duen pertsonak sinatutako gutuna/kontratua/dokumentua, merkataritza erregistroan ordezkari gisa izendatuta ez dagoenean. 20. Funsgabetasunak erakunde baten webgunean emandako informazioaren eta egindako fakturaren artean: esate baterako, erakundearen jarduera ez dator bat fakturatutako ondasunekin edo zerbitzuekin. 21. Ordainketa kopuru ezohikoa helbide edo onuradun bati eta berari. 22. Ezohiko atzerapenak informazioa ematean 23. Onuradunak ezin ditu jatorrizkoak aurkeztu halakoak eskatzen dizkiotenean.

IV. ERANSKINA

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU

Interes gatazkei eta iruzurraren eta ustelkeriaren prebentzioari buruzko testa

Galdera	Betetze maila			
	4	3	2	1
1. Ba al dago “Iruzurraren aurkako Neurrien Plan” bat erakunde betearazleari edo organo erabakitzaileari ahalbidetzen diona bere jarduera esparruan bermatu eta adierazi ahal izatea dagozkion funtsak arau aplikagarrien arabera erabili direla, bereziki iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak prebenitzeari, hautemateari eta zuzentzeari dagokienez?				
2. Egikaritze maila guztietan egiaztatzen al da dagokion “Iruzurraren aurkako Neurrien Plana” egotea?				
Prebentzioa				
3. Ba al dago iruzurraren aurka borrokatzeko konpromisoa azaltzen duen maila goreneko adierazpenik?				
4. Arrisku espezifikoak, horien eragina eta gertatzeko arriskuak identifikatzeko autoebaluaziorik egiten al da eta aldizka berrikusten al da?				
5. Kode etikoren bat zabaltzen al da eta oparien politikari buruzko informazioa ematen al da?				
6. Ematen al da Etika Publikoa sustatzen duen eta iruzurra hautematea ahalbidetzen duen formakuntzarik?				
7. Landu al da interes gatazkak tratatzeko prozedurarik?				
8. Esku hartzen duten guztiek egiten al dute interes gatazkarik ezari buruzko adierazpena?				
Hautematea				
9. Iruzur adierazleak edo alerta seinaleak (bandera gorriak) zehaztu eta jakinarazi al zaizkie halakoak hautemateko moduan dauden langileei?				

Galdera	Betetze maila			
	4	3	2	1
10. Erabiltzen al dira datuak aztertzeko edo arriskuak puntuatzeko tresnak?				

11. Ba al dago edozein interesatuk salaketak aurkezteko biderik?

12. Ba al dago salaketak aztertzeko eta neurriak proposatzeko ardura duen Unitaterik?

Zuzentzea

13.Iruzurra ebaluatu eta sistemikotzat edo puntualtzat kalifikatzen al da?

Baztertu egiten al dira iruzurrak kaltetutako eta SEM-MRRek finantzatutako edo finantzatu beharreko proiektuak edo proiektu zatiak?

Jazarpena

14. Ematen al zaie erakunde betearazleari, erakunde erabakitzaileari edo Agintaritza Arduradunari, dagokionaren arabera, gertatutakoen eta hartutako neurrien berri?

Puntuen guztizko partziala

Puntuak guztira

Gehieneko puntuak.

Puntu erlatiboak (puntuak guztira/gehieneko puntuak).

Oharra: betetze maila handienaren baliokidea da 4 eta betetze maila txikienarena 1.

V. ERANSKINA

BEHIN-BEHINEKO TXOSTEN DIAGNOSTIKOA

ZUZENTASUN ETA IRUZURRAREN AURKAKO NEURRIEN PLANA EUROPAKO FUNTSEN KUDEAKETAN; DONOSTIAKO UDALA

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 11n

AURKIBIDEA

1.- AURREKARIAK.....3

2. KONTSIDERAZIO OROKORRAK.....4

2.1.- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legea (ETEL).....4

2.2.- 4/2019 Foru Araua, martxoaren 11koa, Gobernu Onari buruzkoa, foru gobernantza publikoaren esparruan.....8

3.- UDAL GOBERNANTZA ETA ANTOLAKUNTZA EUROPAKO FUNTSEN KUDEAKETAN.....12

4.- EGIKARITZEA.....14

5.- ARRISKUEN EBALUAZIOA.....16

6.- KODE ETIKOA EDO JOKABIDE KODEA.....17

7.- SENTSIBILIZAZIO, ZABALKUNDE ETA FORMAKUNTZA PROGRAMAK.....18

8.- BARNE KONTROL ETA ZUZENTASUN SISTEMA ETA ARRISKUEN EBALUAZIOA.....19

9.- ARAUTZEKO TRESNA.....20

10.- SALAKETAK AURKEZTEKO POSTONTZIA EDO BARNE KANALA.....21

11.- IRREGULARTASUNAK, IRUZURRA, USTELKERIA ETA INTERES GATAZKAK HAUTEMATEKO SISTEMAK.....22

12.- IRUZURRA HAUTEMATEKO PROZEDURAK.....23

13.- INDARGUNEEN ETA AHULGUNEEN AZTERKETA.....24

14.- KONKLUSIOAK.....25

1.- AURREKARIAK

2021eko abenduaren 14an egin zen Europako Funtsen Kudeaketan Zuzentasun eta Iruzurraren aurkako Neurrien Plana lantzeko Donostiako Udal Txit Gorenaren Proiektua abiarazteko bilkura.

Bilkura horretan azaldu ziren Iruzurraren aurkako Neurrien Planaren oinarrizko ildoak eta Planaren lanketan bideratuko ziren faseak.

Era berean, Europako Funtsak kudeatzeko Udalaren antolakuntza egitura azaldu zen, baita Udalak dituen asmoak eta premiak ere Planaren egikaritzeari heltzeko.

2021eko abenduaren 20an, beste bilera bat egin zen Donostiako Udaletxeko gobernu gelan LexLabeleko ekipoko aholkulari baten eta aurreko agintaldietan Urte Askotako Finantza Esparruko Europako funtsen (EIE) erabileran unean-uneko erantzukizunak izan dituen Udal Administrazioaren eta Donostiako Sustapena erakunde publikoaren ordezkaritza baten artean. Bilera hartan aztertutako gai batzuk txertatu dira dokumentu honetan, diagnostikoa aberasteko elementuak direlako.

Aurrekoa azalduta, egin beharreko urratsak zehaztu ziren, horien artean autodiagnostiko formularioa betetzeko eta txosten hau egiteko.

2. KONTSIDERAZIO OROKORRAK

Udal Txit Gorenarekin egindako bileretan (online eta aurrez aurre) jasotako informazioa eta autodiagnostikorako formularioaren bidez bildutakoa kontuan hartuta egin da txosten hau. Formulario horrek Aginduaren II B 5 Eranskina du oinarri, eta dagozkion item guztiak emendatu eta haietako asko eta asko zehaztu dira egungo egoeraren erradiografia askoz ere zehatzagoa edukitzeko.

Gisa horretan, formulariotik abiatuta, Udalean erabiltzen diren zuzentasun eta etika publikoko politikei buruzko egoeraren berri jakin daiteke, irregulartasun administratiboak, iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak prebenitzeko, hautemateko eta zuzentzeko orain arte hartutako neurrien berri izan daiteke eta, azken batean, aipatutako erakundeak duen zuzentasun mekanismoen ereduaren indarguneen eta ahulguneen berri izan daiteke.

Beraz, Udalak emandako informazioa aztertzen hasi behar da, bere lurralde eremuan zuzentasun eta etika publikoarekin, iruzurrarekin, interes gatazkekin edo ustelkeriaren prebentzioarekin zerikusia duten alderdiak berariaz edo zeharka arautzen dituen erregelamendu mailako legeditik edo xedapenetik abiatuta.

Gai horri dagokionez, bi araudi arautzen dira:

2.1.- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legea (ETEL)

Lege horri dagokionez, formularioan adierazi da xedapen horretan jasotzen diren neurriak balio edo printzipio etikoak edo jokabide printzipioak direla, baita interes gatazkei eta bateraezintasun araubideari eta jarduera, interes era ondareari buruzko xedapenak ere.

Honenbestez ikusten dugu **Toki-araubideari buruzko eta udalen eta gainerako toki-erakundeen zuzendaritza politikoari eta gobernu-ekintzari buruzko printzipio zuzentzaileak** izenburuko 4.2 artikuluak honako printzipio hau jasotzen duela:

> *“Gardentasunaren printzipioa, etika publikoaren garapena eta gobernu onaren printzipioetara egokitzea”.*

Bestalde, gardentasun gaian, 17. artikuluak, 30. atalean, udalerrien eskumen propioak zehazten dituenean, udalek esparru horretan eskumenak erabili ahal izango dituztela finkatzen du:

> *“Herritarren partaidetza, gardentasuna, gobernu ona bultzatzeko eta teknologia berriak eskueran izateko azpiegiturak antolatzea eta kudeatzea”.*

Bere aldetik, 38.2 artikuluko a) letrak honako eginkizun hau gordetzen die zuzendari publiko profesionalei:

> *“Administrazio elektronikoa, gardentasuna eta gobernu irekia bultzatzea, eta orobat entzute aktiboa eta herritarren partizipazioa sustatzea, bere jardun-eremuan”.*

Manu horiei lotuta, jaso eta luze garatzen dira VI. Tituluan gobernu onaren, gardentasunaren, datu irekien eta herritarren parte hartzearen printzipioak, eta aipatzekoak dira kudeaketa publikoari buruzko informazioaren arloan ezartzen diren obligazioak.

Ildo horretan, 55. artikuluak xedatzen du hauek izango direla gardentasunaren arloko gutxieneko obligazioak:

> *“a) Kontratu guztiak publikoak izango dira, honako hauek adierazita: xedea, iraupena, lizitazio- eta esleipen-zenbatekoa, zein prozeduraren bidez egin den, zein bitartekoren bidez iragarri den, prozeduran parte hartu duten lizitatzaileen kopurua, esleipendunaren nortasuna, eta kontratuaren aldaketak eta luzapenak. Kontratuetan atzera egiteko eta kontratuari uko egiteko erabakiak ere argitaratu egin beharko dira.*
>
> *b) Datu estatistikoak sektore publikoko kontratuen legedian aurreikusitako prozeduretako bakoitzaren bidez esleitutako kontratuek aurrekontuaren gainean hartzen duten ehunekoari buruz.*
>
> *c) Ezarritako zigorrak, hala badagokio, kontratisten ezbetetzeengatik.*
>
> *d) Suntsiarazitako kontratuen zerrenda. Bereziki, publiko egingo dira kontratuetan atzera egiteko eta uko egiteko erabakiak.*
>
> *e) Kontratu txikiak hiru hilabetean behin argitaratuko dira, modu agregatuan, eta argitaratzen direnetik gutxienez 12 hilabetez emango da horien berri.*
>
> *f) Sinatutako hitzarmenen zerrenda, honako hauek adierazita: sinatzaileak, xedea, iraupena, aldaketak, prestazioak eta adostutako betebehar ekonomikoak –halakorik baldin badago–.*
>
> *g) Sinatzen diren kudeaketa-gomendioak ere argitaratuko dira, honako datu hauek adierazita: xedea, aurrekontua, iraupena, betebehar ekonomikoak eta azpikontratazioak, berariaz aipatuz esleipendunak, esleipena egiteko jarraitutako prozedura eta esleipenaren zenbatekoa.*
>
> *h) Emandako diru-laguntza eta laguntza publikoak: zenbatekoa, xedea edo helburua, eta onuradunak".*

Era berean, gardentasunaren printzipioaren erregulazio zabala jasotzen du araudiak, eta toki erakundeek ongi zainduko dute printzipio hori, kontratazio publikoari eta dirulaguntzen kudeaketari aipamen berezia eginez.

Jokabide Kodeei dagokienez, honako hau aurreikusten du ETELren 35. artikuluak:

> *“1.– Toki-erakundeen jokabide-kodeak balio, printzipio eta jardute-arau batzuk bilduko ditu, hautetsiek bai euren arteko harremanetan, bai enplegu publikoan eta beste erakunde batzuetan jarduten duten pertsonekiko eta, oro har, herritarrekiko harremanetan, jarraitu beharrekoak.*
>
> *2.Toki-jokabidearen kodeak, halaber, jaso ahal izango ditu gobernu ona errazteko eta toki-politikaren erakunde-kalitatea bideratzeko printzipioak edo jarduteko jarraibideak.*
>
> *Osoko bilkurak onartuko du kode hori edo, bestela, tokiko gobernu-batzarrak.*
>
> *3.Toki-erakundeek, autoantolaketarako dituzten ahalmenez baliatuz, jokabide-kode propioak egin eta onartu ahal izango dituzte, edo toki-erakundeen ordezkariek onartzen duten dokumentura atxiki ahal izango dira. Edonola ere, toki-erakundeak onartzen duen jokabidearen kodeari ahalik eta zabalkunde eta publizitate handiena eman beharko zaio, erakundearen webgunearen bidez edo horretarako erabilitako beste edozein bitartekoren bidez.*
>
> *4.Udal-hautetsien jokabide-kodearekiko atxikipenak berariazkoa, indibiduala eta borondatezkoa izan behar du. Udalean jarduten duten goi-kargudunak eta zuzendaritza-kideak ere kode horretara atxiki ahal izango dira, modu berean.*
>
> *5.Kodeak, era berean, jarraipen, kontrol eta ebaluazioko sistema bat ezarri ahal izango du, toki-erakunde bakoitzean nola aplikatzen den jakiteko.*
>
> *6.Dena dela, onartuko den jokabide-kodeak bermatu egin beharko du ordezkari publikoek, beren jardunaren ardatza izan behar duten balio, printzipio eta arauen artean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa sustatuko dutela.*
>
> *7.Nolanahi ere, toki-erakundeetako kideei Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Interes Gatazkak Arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legearen bigarren xedapen gehigarrian aurreikusitako jarduera- eta jokabide-printzipioak aplikatuko zaizkie”.*

Ikus dezakegunez, ETELren alderdi bereziki garrantzitsua da 35. artikuluan euskal Udalek udal ordezkaritza karguak dituzten pertsonei aplikatu beharreko Jokabide Kode bat izateko aurreikuspena. Era berean, hala badagokio, gobernu ona ahalbidetuko duten jarduera printzipioak txertatu ahal izango ditu.

Arauak finkatzen du jokabide kode hori toki erakundeak berak onartu dezakeela edo, hala badagokio, haren ordezkariek onartzen duten dokumentura atxiki ahal izango direla.

Era berean, onartu egiten da zuzendaritzako kideak kode horretara atxikitzeko aukera.

Jokabide kode hori izateko betebehar arautzailea argia ez dela dirudien arren, ondorio horretara eramango gintuzke arau horren interpretazio sistematikoak. Baina aitortu behar da autoerregulaziorako tresna horien onarpena orain arte mugatua izan dela euskal toki erakundeei dagokienez; hala eta guztiz ere, jokabide kodeak onartu dituzte udal batzuek (Bilbokoak, Gasteizkoak eta beste batzuek).

Donostiako Udalak Gobernu Onaren Kode bat du gaur egun, jarduera politikoari lotutako printzipio sorta bat jasotzen du, eta jokabide arauren bat aurreikusten du, azaletik bada ere (esate baterako, oparien gaian, halakoak onartuak izateko gizarte usadioen barruan egotea eskatzen baitu). Aspaldi samarreko kodea da, eta ez da ETELren eta zuzentasunaren arloko joera berrien eskakizunetara egokitzen. Gainera, ez du berme organorik, eta ez du behar bezala bereizten zer diren balioak, printzipioak, jarduera arauak eta jokabide arauak edo kudeaketa onekoak. Beraz, zuzentasun politikaren berehalako helburu gisa planteatu daiteke jokabide kode bat edo batzuk egitea, eta halaxe adieraztea Zuzentasun eta Iruzurraren aurkako Neurrien Planean, erakundearen zuzentasun sistema ahalik eta holistikoena konfiguratzeko borondate politikoarekin bat etorrita.

Hala eta guztiz ere, alde batera utzirik oraindik ez dagoela jokabide kode eguneraturik, bistan da Udaleko ordezkari kargudun publikoei bai baina zuzendaritzako kideei ez zaiela Gobernu Onaren Kodea aplikatzen.

Nolanahi ere, udal ordezkaritza kargudunei eta zuzendariei aplikagarri zaizkie Kargu publikodunen jokabide kodea eta haien interes gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legearen 5, 6 (6. atala izan ezik), 7 eta 8. artikuluetan ezarritako jarduera eta jokabide printzipioak, lege testu horretako bigarren xedapen gehigarriak aurreikusten duen bezala; beraz, Gobernu Onaren Kodeaz gain, Udaleko politikarientzat eta zuzendarientzat berariazko jokabide kode eguneraturik ez baitago, ETELren 35. artikulua zuzenean garatzeko, portaera eta jokabide printzipio horiek ere izango lirateke aplikagarri, eta hortaz, udal ordezkaritza politikoari eragingo litzaioke. Kontu hori Iruzurraren aurkako Neurrien Planean bertan jaso beharko litzateke.

Bestalde, Interes Gatazkei dagokienez, manuetan (31.3 art; 39.3 art.) behin eta berriz aipatzen da toki araubidearen oinarrizko legedia (75.8 artikulua eta TAOLren hamabosgarren xedapen gehigarria), alde batera utzi gabe udalek, hala badagokio, onartzen dituzten jokabide kodeen bidez gai horri buruz dagoen berariazko araudia, gaian gehiago sakondu gabe.

Beraz, gardentasun etikoaren eta gobernu onaren printzipioak jasotzen dituen araudia izan arren, ez ditu horiek garatzen, eta toki erakundeek landu beharreko jokabide kodeen esku geratzen da haren erregulazioa.

Azaldu bezala, bere garaian Gobernu Onaren Kode orokor bat onartu bazuen ere, Donostiako Udalak oraindik ez du ETELen jasotako araudi hori garatu jokabide kodeei dagokienez. Aitzitik, oro har aplikatu beharko luke:

a) Udal ordezkaritza kargudunei dagokienez, Gobernu Onaren Kode horretan ezarritakoa eta, jarduera eta jokabide printzipioei dagokienez, Eusko Legebiltzarraren 1/2014 Legearen 5-8 artikuluetan araututakoak, baita TAOLren 75. eta 76. artikuluetan jasotako aurreikuspen guztiak eta hamabosgarren xedapen gehigarrian jasotakoak ere bateraezintasunei buruzko araubideari, jardueren, interesen eta ondare ondasunei buruzko adierazpenei, jarduera eta ondasunen erregistroari dagokienez, eta ordezkaritza kargudunen eta, hala badagokio, zuzendarien interes gatazkei dagokienez.
b) Udaleko eta bere sektore publikoko erakundeetako zuzendariek, baina, une honetan ez dute arauzko erreferentziarik ez eta aplikagarri luketen jokabide koderik, eta beraz, kontuan izanik Europako funtsen kudeaketan erantzukizun garrantzitsuak izan ditzaketen langileak direla, komenigarria litzateke balio eta printzipio batzuk eta jokabide arauren bat modu iragankorrean txertatzea (halako zerbait egiten da Zuzentasun eta Iruzurraren aurkako Neurrien Planaren II. Eranskinean Europako Funtsen Kudeaketan Zuzentasun Protokolo bat jasota, zuzendariei ere aplikatzekoa dena).
c) Enplegatu publikoei dagokienez, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bategina litzateke aplikagarri, 52-54. artikuluak, langile horiei begira ere ez baitago berariazko jokabide koderik. Nolanahi ere, hartan xedatutakoa lehen aipatutako Zuzentasun Protokoloarekin osatuko litzateke modu iragankorrean, eta Europako funtsen kudeaketan zuzenean edo zeharka esku hartzen duten enplegatu publikoetara zabalduko litzateke haren aplikazio esparrua.

2.2.- 4/2019 Foru Araua, martxoaren 11koa, Gobernu Onari buruzkoa, foru gobernantza publikoaren esparruan.

Donostia Sustapenak martxoaren 11ko 4/2019 Foru Araua aipatzen du autodiagnostiko formularioan, eta arau horretako 2. artikuluak foru merkataritza elkarteei aplikatzea aurreikusten du.

Hala eta guztiz ere, helarazi zaigun galdetegian azaltzen bada ere, kontuan eduki behar da, behin arau horren aplikazio esparrua berrikusi ondoren, arau hori ez dela lurralde historikoko toki erakundeetara hedatzen, baizik eta soilik soilik foru merkataritza elkarteetara edo Diputazioarenetara.

Beraz, ez litzateke toki erakundeen merkataritza elkarteei aplikatu beharko, txosten honetan soilik praktika onaren erakusgarritzat aipatzen bada ere.

Hala eta guztiz ere, jakin badakigu Donostiako Udalak eta beste lurralde historikoetako bi hiriburuek, hiru foru Aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak sare instituzional bat egituratu dutela gobernantza publiko onaren esparruan zuzentasun instituzionaleko politikak garatzeko, nahiz eta orain arte Eusko Jaurlaritzan, Gipuzkoako Foru Aldundian, Arabako Foru Aldundian eta Bilboko Udalean jokabide kodeen inguruan izandako esperientzietatik haratago ez duten soluzio instituzional orokorrik zehaztu.

Eta jakin badakigu Bizkaiko Foru Aldundiak foru arau bat onartu zuela eta etikaren arloan autoerregulaziorako tresna bakunen bat duela.

Arauak, bere 3. artikuluan jasotzen ditu gobernu onaren printzipioak, eta Erakundearen Zuzentasunarena da zerrendan aurrenekoa:

> *"— Erakundearen zuzentasuna. Erakundearen zuzentasuna funtsezko balio gisa, ardura politikoa duten pertsonek eta enplegatu publikoek zein foru zerbitzuak emateko lanean parte hartzen duten erakunde edo pertsonek garatzen dituzten funtzio publikoetan aritzeko unean".*

7. artikuluak, bere aldetik, Erakundearen Zuzentasunaren definizioa ematen du:

> *"— Erakundearen zuzentasuna: Erakundearen zuzentasun politikari oinarria ematen dion foru sektore publikoaren azpiegitura etikoa, helburu, printzipio eta berme-erakundeen bitartez egituratua eta bere sistemaren oinarrizko tresnatzat jokabide kodeak dituena".*

Era berean, Arauak, 3. artikuluan, Gardentasunaren printzipioa eta datuak irekitzea aurreikusten ditu:

> *"— Datu gardentasuna eta datuak irekitzea. Gardentasuna funtsezko kontzeptutzat, herritarrei eskatu duten informazio publiko garrantzitsu guztia emateko, eta informazio hori eskuratzeko aukera eskubide gisa eraturik, herritarrekiko konfiantzan oinarritutako harremana eratu, Foru Aldundiaren eta beronen sektore publikoaren erakunde-legitimitatea sendotu eta kontuak ematea ahalbidetzearren. Datuak ahal den formatu guztietan eta ordenagailuz automatikoki irakurtzeko moduan irekiko dira, hartara, gardentasunaren erakusgarri izateaz gain, ezagutza kolektibo bihurtuko baita informazioa".*

Arauaren 7. artikuluak honela definitzen du Gardentasunaren printzipioa :

> *"— Gardentasuna: obligazio positiboa, foru sektore publikoaren jarduera aditzera emateko garrantzitsua den informazioa hark bere ekimenez eta era iraunkor, eguneratu eta sistematiko batean publiko egitekoa".*

Era berean, Erakundearen Zuzentasunari emana da Arauaren II. Titulua (8. artikulua eta hurrengoak).

Beraz, arau horren printzipioak eredutzat har daitezkeen arren, ez da Lurralde Historikoetako udaletan aplikagarri, nahiz eta GFAk sustatutako kode horiek "eredutzat" har daitezkeen.

Hala eta guztiz ere, GFAk aipatutako araudiaren esparruan kodeak onartzea sustatuta ere, Donostiako Udalak badu Kode etiko propio eta berezi bat edo batzuk edukitzeko izaera eta garrantzia.

Beste horrenbeste gertatzen da berme organoari dagokionez (Erakundearen Etika Batzordea): egokia da, eta are Europako funtsen kudeaketan, autonomia funtzionala duen organo propio batek ebaztea arau etikoen eta jokabide arauen aplikazioaren inguruan planteatu daitezkeen dilemak, alderdi etikoak, zalantzak, kexuak eta salaketak, baina batez ere Europako funtsen kudeaketaren arloko zuzentasun mekanismoei dagokienez.

Aurreko guztiarekin, soilik adibide gisa, arauaren alderdi hauek azpimarratuko ditugu:

- 9. artikuluak sistemak inspirazio izan behar dituen balioak biltzen ditu: zuzentasuna, eredugarritasuna, zintzotasuna eta interesik eza, objektibotasuna, profesionaltasuna, etab.
- 10. artikuluak aurreikusten du jokabide kodeak oinarrizko tresna direla Erakundearen Zuzentasun sisteman, eta horien bitartez identifikatzen direla Foru Aldundian eta beronen sektore publikoan zuzenean edo zeharka eginkizun publikoetan ari diren pertsona guztiek jarraitu beharko dituzten balio, printzipio eta jokabide arauak.
- Adierazten du Foru Aldundiak bere jokabide kodeak prestatuko dituela, eta balio horiek beste eragile batzuei zabaltzea eta horiek beste jokabide kode batzuk lantzea sustatuko duela.
- 13. artikuluak Foru Aldundiaren lankidetza aurreikusten du elkarlanean aritzeko eskatzen duten udalekin zuzentasun sistemak eta jokabide kodeak definitzeko eta itxuratzeko lanetan.
- Era berean, nahi duten udalak, Arauaren 11. artikuluan aurreikusitako Berme Organoari atxiki ahal izango zaizkio.
- 14. artikuluak Interes Taldeen Erregistro baten sorrera aurreikusten du beren kontura lanean ari diren eta Foru Aldundiaren eta beronen sektore publikoaren politika publikoen prestakuntza eta aplikazioan parte hartzen duten pertsonak eta erakundeak inskribatzeko eta kontrolatzeko.
- 33. artikuluan kontratazio, hitzarmen eta dirulaguntzei buruz informatzeko betebeharra azaltzen da. Beste askoren artean, hauexek argitaratu behar dira: emandako dirulaguntzak eta laguntzak, zenbatekoa, helburua, xedea, pertsona onuradunak, sektore publikoko kontratuen oinarrizko legedian araututako informazio guztia kontratatzailearen profilean, sektore publikoko kontratuen legedian aurreikusitako prozeduretako bakoitzaren bidez esleitutako kontratuen aurrekontu bolumenaren kopuruari eta ehunekoari buruzko datu estatistikoak, etab.

Beraz, merkataritza elkarteak bete beharko dituen etika eta zuzentasun printzipioak sakonago garatzen baditu ere, Arau honek berriz ere uzten du jokabide kodearen esku printzipio horien zehaztapena.

Hala eta guztiz ere, zabal jasotzen du informazioaren printzipioa, bereziki garrantzitsua da kontratazio publikoari eta dirulaguntzak emateari buruz ezarritakoa.

Konklusio gisa, manu horietatik ondorioztatu daiteke Zuzentasun Sistema bat eduki behar dela, eta bereziki garrantzitsua dela Kode etiko edo Jokabide Kode bat izatea.

Aldi berean, autoebaluaziorako formulariotik ondorioztatzen da neurriak hartu direla ildo horretan, izan ere, badago Gobernantza Sistema bat, eta Kode etiko bat ere bai; beraz, garrantzitsua litzateke ahalik eta zehatzen ezagutzea kontzeptu horien edukia, Iruzurraren aurkako Neurrien Planean jasotzeko eta azaltzeko.

Esate baterako, salaketak aurkezteko kanal segurua, haren aplikazioa zaintzeaz arduratuko den zuzentasun organoa, etab.

3.- UDAL GOBERNANTZA ETA ANTOLAKUNTZA EUROPAKO FUNTSEN KUDEAKETAN

Txosten honetan Donostiako Udalak kudeaketan aplikatu duen Antolakuntza aipatuko dugu, baita antolakuntza horren aurrekariak ere. Hauexek dira aipagarri:

- EIE funtsen (egiturazkoak eta inbertsioetarakoak) kudeaketa arlo horretako departamentu edo sail eskumendunak edo sektore publikoko erakundeek (esate baterako, Donostia Sustapenak, Turismok, DonostiBusek eta beste batzuek) eraman izan dute aurrera.

- NGEU funtsen kudeaketa, funts horiek berez duten garrantziagatik eta egikaritzeko epe mugatuagoa izateagatik, Udalaren Koordinazio Orokorra bideratzen duen zuzendaritza unitatean zentralizatu da; izan ere, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari (PRTR) lotutako funtsen kudeaketa osoaren zuzendaritza eta koordinazio lanak egiten ditu, baina era berean 2021-2027 Urte Askotako Finantza Esparruko funtsak ere kudeatu beharko lituzke, eta hala badagokio, onartuko den PRTR berritik etorriko direnak, behin 2023ko abuztuaren 31 baino lehen 71.000 milioi euroko mailegua eskatzen denean.

- Donostiako Udalean ez dago formalki onartuta Europako funtsak gobernatzeko eredurik, baina urrats garrantzitsuak egin dira Lehendakaritzak kudeatzen duen egitura politikoa osatzeko eta Koordinatzaile Nagusiaren bidez bideratzen den aitzindaritza eta koordinaziorako barne antolakuntzaren dimentsioa finkatzeko, koordinatzaileak zeharkako eskumenak baititu gai honetan, eta udal antolamendu osoan eta udalaren sektore publikoko erakundeetan proiektatzen baitira horiek.

- Behin aurreko Urte Askotako Finantza Esparruaren (2014-2020) aldian Europako EIE funtsen kudeaketan esperientzia egiaztatuta, programa horietako batzuetan iruzurraren aurkako borrokarekin lotutako prebentziozko ekintzak egin dira, hala nola formakuntza ikastaroetara joatea, formalizatuta zegoen arrisku matrize bat lantzea (Eusko Jaurlaritzak ematen zuen, Europako Batzordeak bidalita), eta horren bidez egiten ziren egiaztapen administratiboak.

- Oso garrantzitsua da azaltzea Udalak ez duela egiaztaturiko irregulartasun bakar bat ere izan, ez zaiola espedienterik izapidetu Europako funtsen kudeaketari dagokionez, ezta geroago Eusko Jaurlaritzak eta Europako Batzordeak egindako kontroletan ere. Beraz, iruzur, ustelkeria edo interes gatazkei dagokienez, oso garbia da Udalaren historikoa.

- Aldizka kontrolak egin dira laguntzak emateko baldintzak jasotzen dituzten DECA dokumentuetan, eragiketa batzuk bereizi dira eta urteko adierazpena eta aurretiazko auditoretza kontrolak egin dira. Horiek guztiak dirua itzultzeko eskaeretarako irazkiak ziren, eta beraz, eskakizun batzuk bete behar ziren nahitaez.

- FSE eta FEDER funtsen kudeaketak, eta oro har beste EIE funtsen kudeaketak, lehenengo kontrol maila (Kanpo auditoria) eta bigarren kontrol maila (Ogasun Ministerioa) dakartza berekin batean, hau da, egiaztatu baino lehen bi aldiz gainbegiratzen da kudeaketa.

- Beraz, NGEU funtsak kudeatzeko ereduak politika eta zuzendaritza zentralizazio maila handia du (Lehendakaritza eta Koordinazio Orokorra), baina baita egikaritzearen deszentralizazioa ere, saileko eta departamentuko zuzendaritzetan proiektatuko dena, baita sektore publikoko erakunde egituran ere, sektore publiko horrek eginkizun betearazle garrantzitsuak hartuko baititu bere gain esparru jakin batzuetan, hala nola garraio

jasangarrian, turismoan, sustapen ekonomikoan eta digitalizazioan, batzuetan enpresa publikoen bidez eta bestetzuetan erakunde autonomoen bidez.

- Mugarriak eta helburuak betetzeko eta Europako funtsen kudeaketatik etorritako gastua eraginkorra eta efizientea izateko, oso garrantzitsua izango da kontratazio publikoa, eta beraz, indartu egin beharko da antolakuntzari, lanbideari eta giza baliabideei dagokienez.

- Garrantzitsua da kontratazio publikoaren arloan Udalaren eta haren erakunde autonomoen Mahai orokor bat egotea, eta, gainera, sektore publikoko erakunde bakoitzak (Sustapena; Turismoa; DonostiBus) bere kontratazio organoak ditu.

4.- EGIKARITZEA

Europako funtsen kudeaketan parte hartzeari dagokionez, adierazi behar da Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren Osagaietako baten inbertsio proiektu edo azpiproiektu baten inbertsioak edo ekintzak egikaritzea edo kudeatzea aurreikusten dela, zehazki 14. Osagaitik (turismo sektorea modernizatzeko eta lehiakor bihurtzeko Plana) eratorritako Helmugetako Turismoaren Jasangarritasun Planen Deialdi bereziaren ondorioz.

Bereziki garrantzitsua da proiektuaren araberako ekintzak edo inbertsioak egikaritu edo kudeatuko direla jakin den eguna, **2021eko abenduaren 22a**, ordutik aurrera kontatzen hasiko baita irailaren 29ko HFP(1030/2021 Aginduaren 6. artikuluko 5. ataleko a) letran xedatutako epea.

Horrela, artikulu horrek aurreikusten du, Iruzurraren aurkako Neurrien Planaren eskakizunetako bat baita, Plana organo erabakitzaileak edo betearazleak onartzea, Agindu hau indarrean jartzen denetik kontatzen hasita 90 egun igaro baino lehen, **edo, hala badagokio, PRTR plana egikaritzen parte hartu dela jakiten denetik aurrera.**

Hala bada, plana onartu beharko litzateke PRTR plana egikaritzen parte hartu izanaren berri “jakin” zenetik 90 egun baliodun igaro baino lehen. Beraz, **2022ko apirilaren 29a** da Plana garatzeko eta onartzeko azken eguna, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen 29.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorrita egun baliodunen arabera zenbatu behar baitira epeak eta ez egun naturalen arabera (larunbatak, igandeak eta jaiegunak alde batera utzirik).

Zalantzazkoa da epea ez ote litzatekeen zenbatu behar azaroaren 3ko TER/1204/2021 Agindua argitaratzen zen egunetik aurrera. Agindu horren bidez, Toki Erakundeetako Administrazioak digitalki eraldatzeko eta modernizatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak onartu eta 2021. urteari dagokion deialdia egin zen, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan (azaroaren 6ko Estatuko Aldizkari Ofiziala). Izan ere, kasu horretan, deialdiak jada aurreikusten du Donostiako Udalari gehienez ere 700.272,39 € esleituko zaizkiola, eta kopuru hori aurkezten dituen diruz laguntzeko moduko jardueren arabera agortu ahal izango dela; beraz, uler daiteke une horretatik aurrera (deialdi horretan jarduerarik aurkezten ez badu, behintzat) jakingo dela funts horien kudeaketan parte hartu dela. Azaroaren 9tik aurrera, astelehena, laurogeita hamar egun baliodun zenbatu beharko lirateke aipatutako Plana onartzeko (hortaz, **2022ko martxoaren 17a** da azken eguna, data horretan beteko baitira 89 egun).

Bestalde, formularioan adierazi da Europako Gizarte Funtsak kudeatzen ari direla, baita Europako Batzordearen deialdi espezifikoetako laguntzak ere.

Hala eta guztiz ere, jakinarazi da ez dela iruzurraren aurkako plan orokorrik landu, baizik eta funts eta deialdi espezifiko bakoitzean adierazitakoa betetzeko beharrezkoak diren urratsak egin direla.

2014-2020 Urte Askotako Finantza Esparruko EIE funtsen kudeaketan ez zen Iruzurraren aurkako Neurrien Planak onartzeko eskatzen, baina neurriak hartu behar zituzten Batasunaren Aurrekontuetatik etorritako Europako funtsen kudeaketa partekatua bideratuko zuten erakundeek iruzurra prebenitzeko, hautemateko eta zuzentzeko. Behin HFP 1030/2021 Aginduak Plan horiek onartzeko agindu duenetik, Donostiako Udalaren asmoa da Iruzurraren aurkako Neurrien Plan bat onartzea Udal osorako eta beronen sektore publikoko erakundeetarako, eta geroago, beharrezkoa bada, sektore publikoko erakunde bakoitzak Plan horren alderdi batzuk egokitu ahal izatea.

Beraz, iruzurraren aurkako plan orokor bat ez izan arren, 2014-2020 epean, azaldu bezala, EIE funtsen erabileran zuzentasuna zaintzeko berariazko neurriak aplikatu ziren, iruzurraren aurkako neurri horiek eskatzen hasi baitziren funtsen erabilerari buruzko 1303/2013 (EB) erregelamendua eta, geroago, 2018ko finantza erregelamendua.

Aurrekoari kontrajarrita, formularioan adierazi da badagoela ***Gobernantza Publikoko Sistema*** bat (4.1), Erakundearen Zuzentasunaren edo Gobernantza Etikoaren eredu bat, datu irekien edo Datuen Gobernantzaren eredu bat, dagozkion tresnak biltzen dituen herritarrek parte hartzeko eredu bat, kontuak emateko sistema bat eta barne antolakuntzaren Gobernantzaren beste dimentsio batzuk jasotzen dituena. Hala eta guztiz ere, lortutako informaziotik ondorioztatzen da garatzeke daudela gobernantza publikoko sistema horren oinarrizko alderdi batzuk, hala nola kode etikoen, berme organoen eta beste jarraipen eta ebaluaziorako mekanismoen garapen eraginkorra (ETELren 35. artikulua).

Lehen ere azaldu dugun bezala, Udalak baduen Gobernantza Publikoko Sistemaren testuinguruan txertatu liteke Europako funtsen kudeaketarako Iruzurren aurkako Neurrien Plana. Nolanahi ere, iruzurraren aurkako neurriei eta, batez ere, Plana egiteari dagokienez, berezko izaera du Europako funtsen kudeaketak, PRTR funtsak kudeatzeko sistemaren parte den arauzko obligazio espezifikoa baita.

Nolanahi ere, horretarako beharrezkoa litzateke planaren edukia ahalik eta hobekien ezagutzea, biak koherenteak izan daitezen; izan ere, oso urria da horri buruzko informazioa, eta zaildu egiten du balorazioa.

5.- ARRISKUEN EBALUAZIOA

Arriskuen ebaluazioari dagokionez, adierazi da ez dela iruzur, ustelkeria edo interes gatazken arloan arrisku maparik landu (6.1).

Hala eta guztiz ere, lehen ere azaldu dugunez, 2014-2020 Urte Askotako Finantza Esparruarekin lotutako Europako funtsen kudeaketan, Donostia Sustapenak adierazi zuen, egindako bilkuran, Eusko Jaurlaritzak eskatuta arriskuak ebaluatzeko formulario batzuk bete zituztela proiektu jakin batzuetan. Komenigarria litzateke hori egiaztatzea; izan ere, Udalean egin ez bada ere, baliteke haren sektore publikoko erakunderen batek ebaluazioren bat egin izana, gutxienez formulario baten gisakoa.

Arriskuen maparik ez dagoela egiaztatuz gero, lehenik eta behin aipatutako esparru horietan gerta daitezkeen arriskuen katalogo bat prestatzea gomendatzen da, Udalak jakin dezan zein diren bere jarduera esparruan gertatzeko aukera handienak dituztenak.

Hau da, arriskuen katalogo orokor bat prestatzea gomendatzen da, eta ondoren Udalak kontratazio, dirulaguntza, ekonomia eta finantza kudeaketa, langileen kudeaketa eta beste arloetan egiten dituen jardueren arabera gerta daitezkeen arriskuen selekzio bat egitea.

Oinarri horretatik abiaturik, arriskuen mapa landu behar da, arriskua gertatzeko aukera oso modu grafikoan erakutsiko duena.

Behin arriskuen mapa egin ondoren, arrisku “posibleak” eta “oso posibleak” gertatzeko aukera murrizteko neurriak hartu behar dira.

Neurri horiek guztiak, neurriak aplikatzeko prozedura barne, onartu eta Iruzurraren aurkako Neurrien Planean jaso behar dira.

6.- KODE ETIKOA EDO JOKABIDE KODEA

Lehenengo puntuan azaldu bezala, Kode etikoak edo Jokabide Kodeak finkatuko ditu printzipio etikoak eta zuzentasun printzipioak.

Udalaren formularioan adierazi da kode etiko edo jokabide kode bat dagoela (7), eta soilik Goi kargudunei, zuzendariei, behin-behineko langileei eta Administrazio Publikoaren zerbitzura ari diren langileei aplikatzen zaiela. Bileran jasotako informazioarekin egiaztatzen da egiazki Gobernu Onaren Kode bat baizik ez dela, edukiz mugatua, eta berrikusi egin beharko litzatekeela; hori guztia alde batera utzi gabe era berean ordezkaritza kargua dutenei 1/2024 Legearen jarduera eta jokabide printzipioak eta enplegatu publikoei Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bateginaren 52-54 artikuluak aplikatu behar zaizkiela.

Beraz, hasteko, gomendagarria litzateke kode etiko horren aplikazio esparrua formularioan adierazten diren beste langileei zabaltzea, hau da, kontratazio publikoko langileei, interes taldeei eta abarrei. Ildo horretan, oso garrantzitsua da zuzendariak jokabide kode baten aplikazio esparruan sartzea, are Europako funtsen kudeaketaren esparruan, erantzukizun handia izan baitezakete esparru horietan.

Aldi berean, adierazi da Kode etikoak ez duela berme organorik aurreikusten, eta beraz, itxura batean bete gabe gelditzen da eginkizun hori.

Gomendagarria izan liteke berme organo bat izendatzea, aholkularitza lanak, ebazpen edo ebazpen proposamenak, zaintza edo kontrol lanak eta kodea hobetzeko edo egokitzeko proposamenak egin ditzan.

Aldi berean, organo hori izan liteke Iruzurraren aurkako Neurrien Planaren aplikazio egokia zainduko lukeena.

Azken alderdi horiei guztiei erantzuten die Iruzurraren aurkako Planak Eranskin baten bidez. Eranskin horretan Donostiako Udalaren Zuzentasun Protokolo bat jasotzen da Europako Funtsen Kudeaketari dagokionez, balioak eta interes gatazken prebentzioarekin lotutako jokabide arauren bat txertatu baitira eta berme organo bat aipatzen baita.

Aurrekoaren berri eman ondoren, ikusten da formularioan kodearen ez dela konfigurazioa garatzen, eta bereziki garrantzitsua da jakitea “tresna bizia” eta, beraz, aldaketak ahalbidetzen dituen tresna den, ala tresna estatiko baten gisara konfiguratu den.

Beraz, ezinbestekoa litzateke Kode etikoaren edukiaren berri izatea, aldaketak egin daitezkeen jakiteko eta:

a) Haren aplikazio esparrua zabaltzeko.
b) Berme organoa sortzeko.

7.- SENTSIBILIZAZIO, ZABALKUNDE ETA FORMAKUNTZA PROGRAMAK

Formularioan adierazitakoaren arabera deskribatutako programak eskuarki burutzen ez badira ere (8.1), adierazi da erakundeak Zuzentasun Publikoaren arloan gaitasunak garatzeko eta prestatzeko programa espezifiko bat duela (8.2), eta formakuntza ikastaro bat egin zela 2019ko abenduaren 9an.

Iruzurraren aurkako Neurrien Planean jasoko diren prebentziozko neurrietako bat epe laburrean eta ertainean formakuntza estrategia/programa bat ezartzea denez, ongi ezagutu beharko litzateke Udalak duen berariazko formakuntza programa.

Eta hori, behar izanez gero, programaren oinarriak eta edukia optimizatu ahal izateko, edo Europako funtsen kudeaketatik eratorritako beharrizanetara egokitzeko, bereziki interes gatazken arloan.

Planak formakuntza estrategia bat jaso beharko luke zuzentasun arloan, baita gutxienez 2022ko ekitaldian bideratzeko ekintza sorta zehatz bat ere.

8.- BARNE KONTROL ETA ZUZENTASUN SISTEMA ETA ARRISKUEN EBALUAZIOA

Barne kontrol sistemari eta arriskuen ebaluazioari dagokienez, hauexek utzi dituzte agerian formularioko erantzunek:

a) Ez zaie behar besteko arreta ematen irregulartasunak prebenitzeari eta hautemateari (9.1).
b) Ez dira identifikatzen eta ez dira burura eramaten aurrekontu gastu handiena duten, aplikazioan intentsitate handia duten edo kontrol konplexuak dakartzaten baldintza edo betebehar ugari eskatzen dituzten proiektuen, azpiproiektuen edo ekintzen gaineko jarraipen lanak (10.1).
c) Ez dira identifikatzen interes gatazkak indar handiagoz sor daitezkeen jarduerak eta esparruak (10.2).
d) Ez dago interes gatazkak kudeatzeko sistemarik edo prozedura protokolorik (13.1).

Beraz, behar-beharrezkoa eta oso garrantzitsua izango da Iruzurraren aurkako Neurrien Planean interes gatazkak kudeatzeko protokolo edo prozedura bat ezartzea, aurrez zehaztutako puntuak betetzeko eta, batez ere, gatazka mota hori kudeatzeko prozedura zehazteko.

Aldi berean, 15. galderan iruzurraren eta ustelkeriaren adierazle sistemarik aplikatu ez dela adierazi denez, “Red Flag” edo bandera gorrien katalogo bat prestatu beharko da, lehenik praktika horien berri langileei eta arduradun publikoei emateko, ondoren irregulartasunen prebentzioa eta detekzioa hobetzeko, gerta litezkeen iruzur, ustelkeria edo interes gatazka egoeren seinaleak emateko, eta jarraian interes gatazkak kudeatzeko protokoloa aplikatzeko.

Ez da harritzekoa diagnostiko hori, izan ere, Iruzurraren aurkako Neurrien Planak eta batez ere HFP 1030/2021 Aginduaren II B 5 Eranskinean jasotako autoebaluaziorako testak, galdetegi hau prestatzeko hasierako oinarria izan baita, halakoak Europako funtsak erabili ahala ezarri beharreko jarduerak direla dute oinarri, eta beraz, normala da une honetan mekanismo edo tresna horiek ez izatea, baina batzuk Planean jaso beharko dira, eta beste batzuk dokumentu horretan bertan programatu beharko dira beste egikaritze faseetan ezartzeko.

9.- ARAUTZEKO TRESNA

Galdetegiko 11. galderari emandako ezezko erantzunak, Dirulaguntzak eta Kontratazio Publikoa arlo berezietan iruzurraren aurkako zikloa arautzen duen Tresnaren bat ba ote dagoen galderari emandako ezezko erantzunak, agerian uzten du behar-beharrezkoa dela Neurrien Planaren barruan arestian adierazitako arloetan iruzurraren aurkako ziklo osoa txertatzea, ahalik eta zehatzen. Bereziki garrantzitsua da alderdi hori.

Ez da ohikoa esparru berezietan, kasurako kontratazio publikoa eta dirulaguntzak esparruetan, autoerregulaziorako tresnak izatea, baina erakunde batzuek badituzte (esate baterako, Gipuzkoako Foru Aldundiak). Baina Zuzentasun eta Iruzurraren aurkako Neurrien Planean epe ertainean lortu beharreko helburu gisa planteatu daitezke alderdi horiek, kontratazio publikoaren arloan autoerregulaziorako tresna bat onartzeari lehentasuna emanez, izan ere, funtsen erabileran, puntu horretan planteatu daitezke, zeharka bada ere, arrisku gehienak, alde batera utzi gabe laguntzen eta dirulaguntzen arloan gerta daitezkeenak (esate baterako, turismoaren eta sustapen ekonomikoaren arloetan).

10.- SALAKETAK AURKEZTEKO POSTONTZIA EDO BARNE KANALA

Iruzurraren aurkako Neurrien Planak aurreikusten duen prebentziozko neurrietako bat da salaketak aurkezteko postontzi edo barne kanal bat sortzea, hala behar izanez gero.

Ildo horretan, galdetegian adierazi da (12) Udalak baduela salaketak aurkezteko barne kanal bat, Kode etikoari eta jokabide kodeari lotua dena, baina aurrerago adierazi da gaia lantzen ari direla, alde batetik garapen informatikoaren bidez, eta bestetik, jarraipen eta betetze lanaz arduratuko den batzordea osatuz.

Komenigarria litzateke batzorde arduradun horren jarduera esparrua ezagutzea, baita postontzi horretan jaso ahal izango diren salaketen izaera eta irismena ere.

Eta hori guztia, postontzi hori iruzurra, ustelkeria edo interes gatazka eragin dezaketen egoerak ezagutzearen ondorioz aurkezten diren salaketa guztiak jasotzeko erabil daitekeen zehazteko.

Izandako bileretatik ondorioztatu ahal izan zenez, Udala lanean ari da salaketak aurkezteko barne kanalak garatzen, salatariaren Estatutuari buruzko 2019/2021 (EB) Zuzentaraua betez. Salaketak izapidetzeko unitate bat sortzeko alderdi hori, hala badagokio, Udalean zuzentasuna kudeatzeko sortzen den berme organoaren berezko eskumenen barruan sar daiteke.

11.- IRREGULARTASUNAK, IRUZURRA, USTELKERIA ETA INTERES GATAZKAK HAUTEMATEKO SISTEMAK

Formularioko 14. galderari ezezkoarekin erantzun zaio, hots, Udalak ez du baliabide telematikoen edo beste edozein bitartekoren bidez (Dirulaguntzei buruzko Base Nazionala; datuak aztertzeko edo arriskuak neurtzeko tresnak, ARACHNE) irregularTasunak hautemateko sistemarik. Horrelakorik erabiltzeko aukera baldin badago, Iruzurraren aurkako Neurrien Planeko prebentziozko neurrietako bat izatea gomendatzen da.

Areago helburua denean Iruzurraren aurkako Neurrien Plana Udalaren errealitateari ahalik eta hobekien moldatzea.

12.- IRUZURRA HAUTEMATEKO PROZEDURAK

Galdetegian adierazi da (16, 17 eta 18) ez dagoela edo ez dela aplikatzen balizko iruzur bat zuzentzeari buruzko prozedurarik.

Hau da, balizko iruzur bat hautematen denean ez da neurririk hartzen, ez da ebaluaziorik egiten eta ez dira irregularartasunak identifikatzen.

Beraz, bereziki garrantzitsuak izango dira Iruzurraren aurkako Neurrien Planean zehazten diren zuzenketa eta jazarpen neurriak, galdetegiko erantzunetatik ondorioztatzen denez Udalaren ahulgune handienetako bat baita alderdi hori.

13.- INDARGUNEEN ETA AHULGUNEEN AZTERKETA

Indarguneen eta ahulguneen identifikazioari dagokionez, agerian dago Udalak ekipo zuzena duela, gardentasun, etika eta profesionaltasun irizpideak partekatzen dituena, eta Compliance kultura sustatzeko asmoa duela, prozedurak ezarriz eta barne araudiak sortuz.

Udalean eta sektore publikoko erakundeetan dagoen zuzentasun kultura bermatzen duen alderdi garrantzitsu bat da aurreko aldietako Europako funtsen kudeaketaren inguruko historikoa, izan ere, ez da intzidentzia edo espediente mota bakar bat ere izapidetu proiektuetan jasotako finantza baliabideen erabilera desegokiaren harira.

Hau da, testuinguru egokia da Iruzurraren aurkako Neurrien Plana ezartzeko, ziur asko harrera ona izango baitu azken batean plana aplikatu beharko duten langileen artean.

Era berean, indargunea da kontrol zorrotza izatea, baina Iruzurraren aurkako Neurrien Planaren kasuan zehaztu egin beharko da zein izango den kontrol hori bideratuko duen organoa.

Ahulguneen identifikazioari dagokionez, agerian gelditu da ez dagoela barne araudirik eta prozedurarik, edo ez dela nahikoa arauak betetzeko kultura kudeatzeko orduan. Beraz, behar-beharrezkoa da Planak ahalik eta prozedura kopuru handiena eta ahalik eta modurik argienean ezartzea.

Era berean, agerian gelditu da formakuntza saioen eta Zuzentasunaren kulturaren garapenaren gabezia. Alderdi hori modu garrantzitsuan landuko du Plan honek, eta horretarako formakuntza programa baten oinarriak jarriko ditu, epe laburrean eta epe ertainean.

Bestalde, hornitzaile garrantzitsuenetako batzuk ohikoak izateak arrisku egoerak sor ditzake kontratazio publikoa eta dirulaguntzak arloetan, eta beraz, Iruzurraren aurkako Neurrien Planak alderdi horretan jarri beharko du fokua arriskuak eta bandera gorriak zehazteko orduan.

14.- KONKLUSIOAK

Formularioaren bidez partekatutako informazioa aztertuta, agerian gelditzen da Iruzurraren aurkako Neurrien Plana bereziki beharrezkoa dela alderdi hauetan:

- Garrantzitsua da Kode etiko bat (edo kode etiko batzuk: alde batetik, ordezkaritza kargudunena eta zuzendariena; eta bestetik, enplegatu publikoena) edukitzea, 1. Atalean zerrendatutako araudian aurreikusitako betebehar guztiak jasoko dituena eta Iruzurraren aurkako Neurrien Plana jasoko duena, Plan horretatik elementu garrantzitsuak harturik, esate baterako, salaketak aurkezteko kanal segurua eta berme organoa.
- Beraz, Kode etikoa eta Gobernantza sistema ezarrita daudela adierazi denez (berez, egokitu beharko litzatekeen Gobernu Onaren Kodea da), garrantzitsua litzateke Gobernantza Sistemaren edukia ezagutzea, zuzentasun sistema horien eta Iruzurraren aurkako Neurrien Planaren artean bat egite ordenatua eta koherentea egin ahal izateko.
- Egokia da Zuzentasun Planari Eranskin gisa gehitzea, arriskuen ebaluazioaren Mapaz eta alerta edo bandera gorrien sistema batez gain, Europako funtsak kudeatzeko Zuzentasun protokolo bat (jokabide kodeen sistemaren ahulguneak gainditu eta berme organo bat edo dilemak, kexuak eta salaketak aurkezteko barne kanal bat ezarriko duena) eta interes gatazkak kudeatzeko prozedura protokolo bat. Era berean, lankidetza protokolo bat jaso liteke Udalaren eta beronen sektore publikoko erakundeen eta iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak hautemateko, zuzentzeko eta, bereziki, jazartzeko neurriak hartzeko eskumena duten erakundeen eta agintarien artean.
- Europako funtsen kudeaketaren berri 2021eko azaroaren 22an jakin bazen ere, zuhurtasun irizpideek gomendatzen dute erreferentziatzat azaroaren 3ko TER/1204/2021 Agindua argitaratu zen data hartzea. Beraz, 2022ko martxoaren 17a litzateke Plana onartzeko azken eguna.
- Bereziki garrantzitsua da arriskuen aurreneko ebaluazioa egitea, dagokion arriskuen maparekin.
- Adierazi da badagoela formakuntza programa bat, baina komenigarria litzateke haren edukia ezagutzea Iruzurraren aurkako Neurrien Planari egokitu dakiokeen balioesteko eta, hala behar izanez gero, optimizatzeko. Nolanahi ere, Planak formakuntza estrategia bat eta udal antolakuntzaren azpiegitura etikoaren eta zuzentasunaren kultura indartzeko ekintza sorta bat diseinatu behar ditu.
- Bandera gorrien katalogo bat finkatu behar da, eta Udaleko langile guztiek izan behar dute horren berri.
- Galdera batzuei emandako erantzunak agerian uzten du iruzurraren aurkako ziklo osoa ezartzeko premia, bereziki prozeduren ikuspegitik eta hartu beharreko neurrien ikuspegitik (kasu batzuetan gaur egun ere ez dago horrelakorik).

- Itxura batean gaur egun ez dago iruzurraren aurkako zikloa zuzentzeko eta jazartzeko neurririk. Ondorioz, Planak ahalik eta zehazkien ezarri beharko ditu neurri horiek, EBko Zuzenbidezko betebeharrekin eta HFP 1030/2021 Aginduan jasotako eskakizunekin bat etorrita.
- Ahulgune gisa hautematen da, eta hala da, barne araudirik ez izatea. Beraz, behar-beharrezkoa da Iruzurraren aurkako Neurrien Planak ahalik eta prozedura zehatzenak ezartzea iruzurraren aurkako ziklo osoaren kudeaketan.
- Arriskutzat jotzen da hornitzaileetako batzuk ohikoak izatea, eta hori kontuan hartu beharko da Plana lantzean.
- Behar-beharrezkoa da une honetan ezartzen ari den salaketak aurkezteko kanala xehetasun handiago batez ezagutzea; baina planean eta haren eranskinetan soluzio iragankorrak proposatu beharko lirateke 2019/1937 (EB) Zuzentarauan eskatutakoarekin pareka daitekeen barne kanal bat izan dadin.
- Era berean, iruzurraren eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko konpromisoaren Adierazpen Instituzional bat landu behar da, baita Interes Gatazkarik gabeko Adierazpen bat ere, Europako funtsak erabiltzeko prozeduretan parte hartzen duten pertsona guztientzat, eta indartu egin behar dira kargu publikodunen eta zuzendarien jardueren, ondasunen eta ondarearen Adierazpenak Europako funtsak kudeatzen dituztenean.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 11n

IRUZURRAREN AURKAKO

DONOSTIAKO UDALAREN PLANA

1 Sarrera

Azken urteotan, Donostiako Udala Gobernantza Publikoko Sistemaren ardatzak osatzen dituzten arloak eraikitzen joan da. Hartan, sei dimentsio daude: gardentasuna, herritarren partaidetza eta herritarren arreta, zuzentasun publikoa, kudeaketa aurreratua, berrikuntza publikoa eta aliantzak. Eremu handi horiek proiektu espezifikoen bitartez garatzen dira Lehendakaritza Zuzendaritzatik; esate baterako, hauen bidez: Herritarren Arreta Zerbitzu Integrala (HAZI), prozeduren digitalizazioa, ekipamenduen eta udal egoitzen plana, kudeaketa sistema, datu pertsonalen babesa, datuen eta informazioaren kudeaketa, Gobernu Plana kudeatu eta ebaluatzeko sistema eta, azkenik, herritarrei entzuteko eta lan hori kudeatzeko sistema (BELARRI). Halaber, udal organismoetan ere sistema horiek txertatzen joan dira, edo nor bere sistema garatzen joan da. Gobernantza Sistema osatzeko, Kudeaketa Publikoaren Zuzentasun Sistema garatzea falta zen. Duela zenbait urte, urrats batzuk egin ziren norabide horretan: ordezkari publikoen jokabide kode bat onartu zen. Edonola ere, orain heldu zaio gai horri osoki, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa onartu denean. Horren emaitza zera izan da, Iruzurraren aurkako Donostiako Udalaren Plana onartzea, Europako funtsak kudeatzeko.

Plan hori ez da Next funtsak edo Europako funtsak kudeatzera mugatzen; aitzitik, Udalaren kudeaketa publiko osora hedatu nahi da.

2 Zer dira Next Generation funtsak?

Europako funts batzuk dira, batik bat laguntzen bitartez bideratzen direnak. Ezohiko tresna bat dira, pandemiak eragindako ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko baliatu nahi dena. Nagusiki, Next Generation funtsek Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa erabiltzen dute (aurrerantzean, SEM). Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa (SEM-MRR) ezartzen duen Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamenduaren bidez, zuzkitu eta SEMa onartu zen.

Horren ondorioz, Espainiako estatuan, Eraldatze eta Erresilientzia Plana (PRTR) sortu zen. Orobat onartu zen 36/2020 Errege Lege Dekretua, zeinaren bidez onartu baitziren Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko premiazko neurriak.

3 Zuzentasun publikoaren kudeaketa, oinarri arauemailea

Gobernantza Sistema zintzotasun publikoari buruzko zutabe batekin osatu behar da; horren baitan, dokumentu honetan jorratzen den iruzurraren aurkako planaren gisakoek zentzu bete-betea dute. Behar horrez landa, horri guztiari buruzko betebehar espezifiko bat jasota dago aurreko puntuan aipatu den araudian. Betebehar hori HFP 1030/2021 Aginduan zehazturik dator; hartan, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema konfiguratzen da.

Jarraian, testu arauemaile horietara joko dugu, haietan kudeaketa publikoa eta iruzurraren aurkako plan baten beharra ere hizpide baitira, honela:

2021/241 (EB) Erregelamendua:
Iruzurrik ez gertatzeko zenbait plan eta neurri aipatzen dira; edonola ere, argiena hitzaurreko 39. puntukoa da: "Suspertze eta erresilientzia planean, estatu kidearen plan, sistema eta neurri zehatzak azaldu behar dira, zeinen bitartez iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak prebenitu, hauteman eta zuzendu nahi baitira".

Artikuluen harira, 18.4 artikuluan xedatzen da PRTRak eduki behar duela "estatu kideak taxuturiko sistema bat, funtsak baliatzean izan daitezkeen iruzur eta ustelkeria egoerak eta interes gatazkak prebenitzeko, hautemateko eta zuzentzeko". Bestalde, 19. artikuluaren eraginez, iruzurrari aurre egiteko estatu kideek baliatzen dituzten xedapenetan, irregulartasun administratiboak, iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak prebenitu, hauteman eta zuzentzeko neurriak aurreikusi behar dira.

Ildo horretan, Europar Batasunaren finantza interesak babesteko neurriak hartzeko beharra berariaz aipatzen da, funtsak erabiltzeari begira; bereziki, iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak prebenitu, hauteman eta zuzentzeko neurriak.

Erregelamendu horretan iruzurraren aurkako planen ezaugarriak jasotzen dira jada, nolabait. Haietan:

- Aurre egin nahi zaion horren ikuspegia zabala da: ustelkeria, iruzurra, interes gatazkak eta irregulartasun administratiboak.
- Hartu beharreko neurriei ziklo moduan begiratzen zaie: prebenitzea, hautematea eta zuzentzea.

Betebeharrak edo neurriak betetzen ez badira, gerta daiteke estatu kideek jasotako funtsak itzuli behar izatea ere.

36/2020 Errege Lege Dekretua
PRTRko kudeaketa printzipioen artean, arau honetan finkatzen da kudeaketa oneko printzipioak errespetatu egin behar direla; besteak beste: "gastu publikoaren kontrol eraginkorra, ardura kudeaketa lanean eta kontuak ematea"; eta, orobat, "interes gatazkak, iruzurra eta irregulartasunak eraginkortasunez prebenitzea" (3. art.).

HFP 1030/2021 Agindua
Iruzurraren aurkako borroka eta planen beharra agindu honen eraginez zehaztu dira. Izan ere, 6. artikuluaren arabera, laguntzak gauzatuko dituzten entitateek iruzurraren aurkako neurrien plan bat eduki behar dute, eta horren bidez ziurtatu eta adierazi behar dute ezen, beren jarduketa eremuan, funtsak erabili direla araudiei jarraikiz (*compilance*) eta iruzurraren aurkako zikloaren neurriak oinarritzat hartuta (iruzurra ikuspegi zabaletik prebenitu, hauteman eta zuzentzea).

Iruzurraren aurkako sistema planifikatzeko betebeharraz gain, betebehar espezifiko hauek ere badaude:

- Iruzurraren aurkako bidean, arriskua ebaluatzea.

- Interes gatazka ezari buruzko adierazpena betetzea (aurrerantzean, DACI).
- Interes gatazkei heltzeko prozedura bat edukitzea.

Azkenik, agindu horretan finkatuta dago zer jaso behar den Planean, gutxienez:

- Laguntzak gauzatuko dituen entitateak hura onartu behar du 90 egun igaro aurretik, Agindua indarrean sartzen denetik aurrera zenbatzen hasita.
- Plana egituratzea iruzurraren aurkako zikloa osatzen duten lau elementu giltzarrien inguruan: prebenitzea, hautematea, zuzentzea eta jazartzea.
- Prozesu giltzarrietan (adibidez, kontratazioan eta dirulaguntzetan), arriskuaren ebaluazioak aurreikustea.
- Prebenitzeko, hautemateko eta zuzentzeko neurri egokiak finkatzea.
- Interes gatazkak prebenitu eta zuzentzeko prozedurak berariaz finkatzea; bereziki, eta ezinbestean, PRTRa gauzatzeko prozeduretan parte hartzen dutenek DACI dokumentua sinatu behar dutela finkatzea.

4 Kontzeptuen definizioa: iruzurra, irregulartasun administratiboak, interes gatazkak, ustelkeria

Iruzurraren aurkako zikloaren baitan, iruzurraren, ustelkeriaren, irregulartasun administratiboen eta interes gatazken kontrako neurriak proposatzen dira Planean, nahiz eta den-denak iruzurraren pean agertzen diren modu generikoan. Jokabide horiei buruzko definizioek Europako hainbat arautan baliatu direnak dituzte oinarri.

5 Planaren eremu subjektiboa

Plana Udalari izango zaio aplikagarri, laguntzak gauzatuko dituen entitatea baita. Era berean, Udalaren sektore publiko instituzionaleko entitateei ere aplikagarri izango zaie, laguntzen zati batzuk gauzatuko dituztelako. Dagozkion gobernu organoek onartzea alde batera utzita, Planean aurreikusten da entitateak haren mende geratuko direla Tokiko Gobernu Batzordeak onartzen duenetik aurrera (2022ko martxoaren 15ean), gai hauetan behintzat:

- Planeko elementu orokorrak eta printzipioak: izaera eta xedea, Planaren printzipioak, eremu objektiboa eta antolaketa egitura.
- Planaren zuzentasun protokoloa.
- Planarekin lotutako trebakuntza ekintzak.
- Arriskuak ebaluatzeko metodologia orokorra, eta kontratazio prozeduretan zein dirulaguntzak emateko prozeduretan ebaluazioa egiteko metodologia espezifikoak.
- Salaketen barne kanalari atxikitzea, eta hura erabiltzea.
- Iruzurra zuzendu eta jazartzeko neurriak.

6 Planaren egitura

Planaren egitura erdibitu egiten da: batetik, Zuzentasun Plana kudeatzeko erantzukizun teknikoa sortzen da; eta, bestetik, Zuzentasun Batzordea, eremu handiago batean diharduena. Bi egitura ildo horiek zuzendaritza politikoaren pean daude, eta zeregin hori alkateari egokituko zaio. Aurreko puntuan esan bezala, sektore publiko instituzionala ere egitura horren barnean egongo da. Organo bakoitzari (teknikoa edo zuzentasunekoa) egokitzen zaizkion zereginak edozein direla ere, ildoez arduratzen diren entitateek eta departamentuek Planeko jarduketa zehatzak gauzatu beharko dituzte (ikusi 7. puntua).

Arduradun teknikoa

Pertsona bakar batek osaturiko organo bat da, eta haren lana Plana kudeatu eta dinamizatzea izango da. Hari horretatik, eginkizun guztiak agortu nahi gabe ere, hauek behintzat gauzatuko ditu:

- Planeko neurriak dinamizatzea, eta neurri horien egokitzapena sustatzea, hala dagokionean.
- Arriskuak aldian-aldian ebaluatzea, eta egokitzapenak ere bai.
- Plana aplikatzeko bidean, aholkuak ematea sailei eta entitateei.
- Prozedura eskuliburuak, ereduak, deialdien oinarriak, hitzarmenak... bultzatzea.

Zuzentasun Batzordea

Osaera eta eginkizunak Europako funtsen kudeaketan zuzentasunez jarduteko protokoloan jasota daude; protokolo hori Planarekin batera onartu da, Tokiko Gobernu Batzordean. Zuzentasun Batzordea hiru pertsonak osatuko dute: Udaleko zuzendari batek, kanpoko aditu batek eta Udaleko teknikari batek. Idazkari batek lagundu egingo die. Laburrean, eginkizun hauek ditu:

- Zuzentasuna dela eta, aholkuak ematea gobernu organoei, zuzendariei eta enplegatu publikoei.
- 2019/1937 (EB) Zuzentarauari jarraituz egiten diren salaketak eta kexak izapidetzea (salaketak aurkezteko kanal segurua) eta salatzailea babesten dela ziurtatzea.
- Gomendioak egitea, Europako funtsak zuzentasunez kudeatzea dela eta.
- Interes gatazken egoerak aztertzea, ofizioz edo beste organo batzuek eskatuta, eta neurri posibleak proposatzea.
- Zuzentasunaren nondik norakoak hedatzeko eta haietan trebatzeko neurriak proposatzea.
- Salaketak tratatzea Planean finkatuta dagoen prozedurari jarraikiz (2.3.1.3.6.b puntua).
- Bere jarduerari buruzko urteko txostena egitea.

7 Zuzentasun protokoloa

Planaren barnean, jokabide eta kudeaketa egokiko kodeak egitea jaso da, kargu publikoak dituztenentzat eta enplegatu publikoentzat. Xedea zera da, zuzentasunez jardutea nola kontratazio

publikoan hala dirulaguntzen kudeaketan. Kode horiek prestatzen diren artean, Udalaren Zuzentasun Protokoloa onartu da, eta udal entitateei ere eragingo die. Helburua da Europako funtsen kudeaketan parte hartuko dutenek bete behar dituzten balio etikoak finkatzea; hots, kudeaketa oneko printzipioak ezartzea. Protokoloan hau ere jasota dago:

- Europako funtsak kudeatzeko balio etikoak: zuzentasuna, eredugarritasuna, zintzotasuna eta probetxurik eza, inpartzialtasuna eta objektibotasuna, bikaintasun profesionala eta errespetua eta enpatia.
- Europako funtsak kudeatzeko printzipioak: emaitzarekin konpromisoa hartzeko printzipioa, finantza kudeaketa ona eta eraginkorra egiteko printzipioa, gardentasunez jokatzeko printzipioa, datu pertsonalak babesteko printzipioa, Europako funtsak eta 2030 Agenda kudeatzeko printzipioa eta, Europako funtsak kudeatzean, zuzendariek eta profesionalek arduraz jokatzeko printzipioa.
- Interes gatazkekin lotutako jokabide arauak.
- Zuzentasun Protokoloaren harira trebatzea eta hura hedatzea.
- Barneko kanalak sortzea auzi etikoak, kexak eta salaketak ebazteko, Europako funtsen kudeaketarekin lotuta.

8 Planeko neurriak

Neurri orokorrak

Prebenitzeko neurriak

- Adierazpen politiko bat onartzea, zuzentasunarekin konpromisoa hartzeko (2022ko martxoaren 15eko Tokiko Gobernu Batzordea)
- Jokabide kodeak onartu edo sendotzeko estrategia bat diseinatzea; Zuzentasun Protokoloa behin-behinean onartzea, kodeak prestatu bitartean.
- Zuzentasun Batzordea sortzea, azaldutako eginkizunak izango dituena.
- Trebakuntza ekintzen sorta bat diseinatzea, zuzentasunaren eta kudeaketa publikoaren gainean.
- Arriskuak ebaluatzeko kudeaketa eredu bat definitzea (prozedura eta tresnak badaude jada).
- Funtsen kudeaketan, antolaketa neurriak finkatzea (kudeaketa, kontrol eta ordainketa rolak bereiztea).

Hautemateko neurriak

- Barne kanal bat bideratzea dilema etikoen eta salaketen berri emateko, eta salaketak tratatzeko metodologia finkatzea.
- Bandera gorrien zerrenda.
- DACI dokumentuak sinatzea.

- Datuak kudeatzeko eta trazabilitatea bideratzeko tresnak txertatzea.

Zuzentzeko neurriak

- Iruzur posibleen aurrean, jarduketa prozedurak finkatzea.
- Iruzurra noizean behin edo modu sistematikoan gertatzen al den ebaluatzea.
- Iruzur posibleen aurrean, proiektuetako batzuk edo guztiak bertan behera uztea.
- Beste neurri osagarri batzuk.

Jazartzeko neurriak

- Diziplina edo zigor prozedurak abiaraztea.
- Gertatutakoa eta hartutako neurriak agintari eskudunei jakinaraztea.
- Kasuak agintari eskudunen aurrean salatzea.
- Kasuen jarraipena egitea, eta funtsak berreskuratzea.

Entitate edo departamentu arduradunen neurri espezifikoak

Kontratazioan

- Agirien ereduetan, finantzazioa Next Generation funtsetatik datorrela aipatzea, eta irudiari buruzko eskuliburuko betebeharrak betetzea.
- Kontratazio prozesuetan parte hartzen duten guztiek DACI dokumentuak sinatzea: agiriak egiten dituzten, kontratazio mahaietan parte hartzen duten eta kontratua gauzatzen duten enplegatu publiko guztiek. Era berean, enpresa kontratatuek eta azpikontratatuek ere dokumentu hori sinatu beharko dute. Kontratuaren arduradunak bilduko ditu dokumentu horiek guztiak.
- Kontratua prestatzen den bitartean, arriskuak ebaluatu beharko dira. Horretarako, Planeko II.A eta II.C eranskinetako matrizea erabiliko da.

Beste gai batzuk

- Plana eta eranskinak onartzea.
- Bandera gorriak identifikatzea (III. eranskina).
- Arriskuen ebaluazio orokorrean parte hartzea; hasiera batean, bi urtetik behin egingo da. Beste prozedura batzuetako ebaluazioak ere egin beharko dira (kontratazioa eta dirulaguntzak), hala dagokionean.
- Kontsultak eta salaketak egiteko barne kanalari atxikitzea.